

# GORROTO GERTAKARIAK EUSKADIN 2018

Hate crime  
Violence  
Incident  
Bias  
Racism  
Disability  
LGTBI Law  
Victimization  
Reporting  
Human rights  
Identity  
Hate speech  
Offender  
Disrupting  
Hurt  
Police  
Etzaintza  
Fear  
Minorities  
Harassment

# **EUSKADIKO GORROTO GERTAKARIEN TXOSTENA 2018**

**Giza Eskubideen eta Botere Publikoen UNESCO Katedra**  
**Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)**

## **Zuzendaritza eta Koordinazioa**

**Irak. Dk. Jon-Mirena LANDA GOROSTIZA (Zuz.)**

**Irak. Dk. Enara GARRO CARRERA (Koord.)**

## **Lan taldea:**

**Mikel ANDEREZ BELATEGI**

**Diego ARIAS DÍAZ-FAES**

**Bertha GAZTELUMENDI CABALLERO**

**Iñigo GORDON BENITO**

**Uxue MARTÍN SILVA**

**Laura YANGUAS AGUIRRE**

**Segurtasun Saila**  
**Eusko Jaurlaritza**

**Vitoria-Gasteiz/Leioa,**  
**2019ko Martxoa**



## EDUKIEN TAULA

LABURDURAK .....	5
SARRERA.....	6
1. GORROTO GERTAKARIAK .....	8
1.1. Gorroto-gertakarien banaketa.....	8
1.2. Arau-hauste administratiboak lurralde historikoaren arabera .....	15
1.3. Egozpenen banaketa .....	16
1.4. Atxiloketen banaketa .....	19
1.5. Biktimizazioen banaketa.....	20
1.6. Gorroto gertakarien sailkapena delitu-tipologiaren arabera .....	23
1.7. Ondorioak .....	24
1.7.1. Gorroto gertakarien guztizko kopurua .....	24
1.7.2. Gertakarien jomugan dauden kolektiboen mapa .....	25
1.7.3. Delitu-tipologiak .....	25
1.7.4. Agertokia, eskualde mailako banaketa, ikertuak, atxilotuak eta biktimak .....	26
1.7.5. Euskadiko gorroto mapa Estatu mailako testuinguruan.....	26
2. AZTERKETA KONPARATUA EUROPAREKIN .....	28
2.1. Sarrera.....	29
2.2. Frantzia .....	30
2.2.1. Baliokide normatiboak .....	30
2.2.2. Errealitate enpirikora hurbilketa.....	37
2.3. Alemania .....	41
2.3.1. Baliokide normatiboak .....	41
2.3.2. Errealitate enpirikora hurbilketa.....	45
2.4. Ingalaterra eta Gales.....	47
2.4.1. Baliokide normatiboak .....	47
2.4.2. Errealitate enpirikora hurbilketa.....	51
2.5. OSCE/ODHIR-en datu ofizialen araberako marko konparatua: Frantzia, Alemania eta Erresuma Batua.....	55
2.5.1. OSCE/ODIHR: Frantzia. Gorroto delituei buruzko datuak .....	57
2.5.2. OSCE/ODIHR: Alemania. Gorroto delituen datuak. ....	58
2.5.3. OSCE/ODIHR: Erresuma Batua. Gorroto delituen inguruko datuak. ....	61

<b>2.6. Hausnarketa konparatuak .....</b>	<b>62</b>
<b>3. SINTESIA: AZKENEKO ONDORIOAK .....</b>	<b>66</b>
<b>BIBLIOGRAFIA .....</b>	<b>68</b>
<b>IRUDIEN AURKIBIDEA.....</b>	<b>70</b>
<b>I. ERANSKINA: PRENTSAN AGERTUTAKO KASU NABARMENAK (2018). Kasuen laburpena babestutako kategoriaren arabera. ....</b>	<b>71</b>
<b>1. ARRAZAKERIA / XENOFOBIA .....</b>	<b>74</b>
<b>2. IDEOLOGIA / JOERA POLITIKOA .....</b>	<b>83</b>
<b>3. SINISMENAK / ERLIJIOA.....</b>	<b>94</b>
<b>4. SEXU-ORIENTAZIOA / IDENTITATEA .....</b>	<b>96</b>
<b>5. DESGAITASUNA / ANIZTASUN FUNTZIONALA DUTEN PERTSONAK.....</b>	<b>98</b>
<b>Kategoria honekin lotuta ez da nabarmenezko albisterik topatu.....</b>	<b>98</b>
<b>II.ERANSKINA: EAEko FISKAL NAGUSIAREN ETA ESTATUKO FISKALTZA OROKORRAREN 2018 URTEKO MEMORIEN LABURPENA (2017ko EKITALDIA)101</b>	

## LABURDURAK

<b>ADA</b>	<i>Americans with Disability Act</i>
<b>ADL</b>	<i>Anti-Defamation League</i> (Ameriketako Estatu Batuak)
<b>AEDE</b>	<i>Agrupación de Estudiantes por la Unidad de España</i>
<b>art.</b>	Artikulu(k)
<b>CCIF</b>	<i>Collectif contre l'Islamophobie en France</i>
<b>CDA</b>	<i>Crime and Disorder Act 1998</i> (Ingalaterra eta Gales)
<b>CJA</b>	<i>Criminal Justice Act 2003</i> (Ingalaterra eta Gales)
<b>CNCDH</b>	<i>Commission nationale consultative des droits de l'homme</i> (Frantzia)
<b>CPS</b>	<i>Crown Prosecution Service</i> (Ingalaterra eta Gales)
<b>CSMU</b>	<i>Crime Statistics Management Unit</i> (Ingalaterra eta Gales)
<b>CSEW</b>	<i>Crime Survey for England and Wales</i>
<b>CST</b>	<i>Community Security Trust</i>
<b>DILCRAH</b>	<i>Delegation Interministerielle a la Lutte Contre le Racisme, L'antisemitisme et la Haine Anti-Lgbt</i>
<b>DIN</b>	<i>Diligencias de Investigación</i>
<b>DIP</b>	<i>Diligencias Previas</i>
<b>Dk.</b>	Doktore
<b>EAE</b>	Euskal Autonomia Erkidegoa
<b>EAO</b>	Estatuko Aldizkari Orokorra
<b>EM</b>	Erabaki Markoa (Europar Batasuna)
<b>ECRI</b>	<i>European Commission against Racism and Intolerance</i>
<b>EHAA</b>	Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria
<b>FELGTB</b>	<i>Federación Estatal de Lesbianas, Gais, Transexuales y Bisexuales</i>
<b>FBI</b>	<i>Federal Bureau of Investigation</i> (Ameriketako Estatu Batuak)
<b>GES</b>	<i>Gabinet d'Estudis Socials</i> (Katalunia)
<b>HCSA</b>	<i>Hate Crime Statistics Act</i> (Ameriketako Estatu Batuak)
<b>ILGA</b>	Asociación Internacional de Lesbianas, Gays, Bisexuales, Trans e Intersex
<b>INE</b>	<i>Instituto Nacional de Estadística</i> (Espainia)
<b>INSEE</b>	<i>Institut National de la Statistique et des Études Économiques</i> (Frantzia)
<b>Irak.</b>	Irakasle
<b>Koord.</b>	Koordinatzailea(k)
<b>PKL</b>	Prozedura Kriminaleko Legea
<b>LESS</b>	<i>Law Enforcement Support Section</i> (Ameriketako Estatu Batuak)
<b>LFP</b>	<i>Liga de Fútbol Profesional</i> (Espainia)
<b>LGTB(I)</b>	Lesbiana, Gay, Trans, Bisexual eta Intersexualak
<b>LO</b>	Lege Organikoa
<b>LSVD</b>	<i>Lesben- und Schwulenverband in Deutschland</i> (Alemania)
<b>MEND</b>	<i>Muslim Engagement and Development</i> (Erresuma Batua)
<b>MOE</b>	Munduko Osasun Erakundea
<b>OAPA</b>	<i>Offences Against the Person Act 1861</i> (Ingalaterra eta Gales)
<b>ODIHR</b>	Office for Democratic Institutions and Human Rights
<b>OIM</b>	Organización Internacional para las Migraciones
<b>ONDRP</b>	<i>L'Observatoire National de la Délinquance et des Réponses Pénales</i> (Frantzia)
<b>Or.</b>	Orrialdea(k)
<b>ORIW</b>	<i>Racism Islamophobia Watch</i> erakundea (Erresuma Batua)
<b>OSCE</b>	<i>Organization for the Security and Co-operation in Europe</i>
<b>PAB</b>	<i>Procedimiento Abreviado</i>
<b>PP</b>	<i>Partido Popular</i> (Espainia)
<b>RIAS</b>	<i>Recherche - und Informationsstelle Antisemitismus</i> (Alemania)
<b>SETA</b>	Ikerkuntza Politiko, Ekonomiko eta Sozialerako Fundazioa (Turkia)
<b>SCRT</b>	<i>Service Central du Renseignement Territorial</i> (Frantzia)
<b>SSMSI</b>	<i>Service Statistique Ministériel de la Sécurité Intérieure</i> (Frantzia)
<b>StGB</b>	<i>Strafgesetzbuch</i> (Alemaniako Zigor Kodea)
<b>TGEU</b>	<i>Transgender Europe</i>
<b>UNHCR/ACNUR</b>	<i>United Nations High Commissioner for Refugees / Alto Comisionado de las Naciones Unidas para los Refugiados</i>
<b>ZK</b>	Zigor Kodea (Espainia)
<b>zk.</b>	Zenbakia(k)
<b>Zuz.</b>	Zuzendaria(k)

**2018ko ekainaren 4ean Eusko Legebiltzarrean** (Erakunde, Segurtasun eta Gobernantza Publikoaren Batzordea) 2017ko gorroto-gertakariei buruzko lehen txostena aurkeztu zen, eta egoki ikusi zen eta konpromisoa adierazi zen urtero jarraitasuna emateko.

Eusko Jaurlaritzak bere **Gobernu Kontseiluaren 2018ko abenduaren 26ko** saioan onartu zuen *Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrearen, Segurtasun Sailaren bidez (Ertzaintza) eta Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen arteko lankidetzaren hitzarmena, UPV/EHUko Giza Eskubideen eta Botere Publikoen UNESCO Katedraren bidez, Euskadiko gorroto delituei buruzko urteko txostena eta Europarekin alderatzeko analisia egiteko.*

Hitzarmen honek adierazitako konpromisoa gauzatzen du eta estaldura juridikoa ematen dio asmo jakin batekin. Lehenik, Txostenak epe ertainean eta luzean kriminalitate mota honen ezaguera, prebentzioa eta erradikazio eraginkorrena hobetu ditzaken tresna bat izatea. Bigarrenik, gainera, eragile juridikoekin koordinazioa erraztu nahi da, baita gorroto delituekin izandako lan esperientzia nazioartera helarazteko baliabide bihur dadin sustatu ere.

Hitzarmena betetze aldera, Euskadiko Gorroto Gertakariei buruzko Bigarren Txosten hau 2018ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31era luzatzen den epeari dagokio; eta lehenengo txostenak bezala, bere gain hartzen ditu, bai potentzialki delitu izan daitezkeen gertakariak, bai arau-hauste administratibotzat har daitezkeen horiek, beren izaera eta inguruabarrengatik Ertzaintzak ezagutu dituenak. *2018ko Txostenaren* egitura, hala ere, bi funtsezko alorretan aldatu da.

Lehenik, babestutako kolektiboak identifikatzeko mugapen terminologikoari dagokion atala eta erreferentziazko araudia errepikatzea alboratu da. Hauek lehenengo txostenean finkatu ziren eta, bertan zehaztu bezala, etorkizunerako erreferentzia izango dira; ñabardurak gehitu, zuzenketak burutzea edo gehiketak egitea beharrezkoa denean izan ezik, kasu horietan berariaz adieraziko delarik. Bi alderdi horien kontsulta erraztearren, hala ere, atal horiek Txosten honi gehitu zaizkio *Eranskin* gisa.

Bigarrenik europar eremuan **gorroto delitu eta gertakarien errealitate konparatuaren** inguruko atal zabal bat gehitu da. Hitzarmenak hala agintzen duelako, berrikuntza bezala, Euskadirentzako berezkoa eta espezifikoa den txosten bat egitea gorroto delituen gainean, espreski barne bildu behar duena:

*“(...) gaiarekiko Europako errealitatearekin dagokion azterketa konparatiboa. (...) interes berezkoa izanik euskal errealitatea europarrarekin neurtzea”.* (Lehen Akordioa).


Horregatik, **Txostenaren egiturak**, sarrera honen ondoren, segidako egitura dauka: lehen puntuak 2018ko gorroto gertakarien informazioa eta analisisia islatzen du; bigarren puntuak azterketa konparatuari ekiten dio; hurrengo atalak laburpen eta azken ondorioak jasotzen ditu; bukatzeko izaera instrumentala duten atal batzuk txertatzen dira (bibliografia eta irudien aurkibidea) eta izaera informatiboa duten beste batzuk (I eta II eranskinak: prentsan nabarmendutako kasuak; Memorien laburpenak, EAEko Fiskal Nagusiarena eta Estatuko Fiskaltza Orokorrarena, hurrenez hurren; eta azkenik, terminologiari dagokion atala).

# 1. GORROTO GERTAKARIAK


## 1.1. Gorroto-gertakarien banaketa

2018. urtean zehar 132 gorroto gertakari erregistratu dira Euskadin, zeinetatik 130 delituak diren (%98,48) eta 2 arau-hauste administratiboak (%1,52). 1. eta 2. irudiek gorroto gertakariak zein gorroto delituek azken 3 urteetan izan duten bilakaera erakusten dute.

1. Irudia. Gorroto gertakarien bilakaera 2016-2018




2. Irudia. Gorroto delituen bilakaera 2016-2018






3. irudian ikus daitekeen moduan, izaera arrazista edo xenofobia duten delituek, guztira erregistratutako delituen %47,69 osatzen dute (62 kasu), sexu-orientazio eta sexu-identitatearekin zerikusia duten delituek %30 ordezkatzen duten bitartean (39 kasu), 2017an baino zertxobait gehiago. Bestalde, ideologiak eta orientazio politikoak (17 kasu), sinesmenek eta praktika erlijiosoek (7 kasu), dibertsitate funtzionalak (3 kasu) eta aporofobiak (2 kasu) erregistratutako delituen %22,31 osatzen dute, aurreko urteko kopuruaren ia berdina dena (4. irudia). Honetaz gain, aipatzeko modukoak dira bi arau-hauste administratibo gertatu zirela, uztailaren 11ko 19/2007 Legearen eremuan, kirolean ematen den indarkeria, arrazismoa, xenofobia eta intolerantziaren aurkakoak. Halaber, ez da diskriminazio anitzeko kasurik erregistratu 2018. urtean zehar.

3. Irudia. Delituen banaketa kolektiboaren arabera (2018)




	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	BESTE PROBINTZIAK	TOTALA	± (2017)	%
APOROFOBIA	-	2	-	-	2	1	%50
DIBERTSITATE FUNTZIONALA	-	3	-	-	3	1	%50
IDEOLOGIA/ ORIENTAZIO POLITIKOA	2	12	1	2	17	1	%6,25
SEXU-ORIENTAZIO/IDENTITATEA	4	28	6	1	39	7	%21,87
ARRAZISMOA/XENOFOBIA	4	36	21	1	62	-9	-%12,68
ERLIJIOA ETA SINESMENAK	-	2	5	-	7	0	0
<b>TOTALA</b>	<b>10</b>	<b>83</b>	<b>33</b>	<b>4</b>	<b>130</b>	<b>1</b>	<b>%0,77</b>

#### 4. Irudia. Gorroto delituen bilakaera kategoriaz (2016-2018)




5. irudiak delituen banaketa agertoki motaren arabera erakusten du. Ikus daitekeen legez, 2018an erregistratu diren delitu gehienak bide publikoetan burutuak izan ziren (%43). Etxebizitzek, bere aldetik, agertokiaren %21,5a osatzen dute, aurreko urtearekin konparatuz zifra altuagoa dena. Ostalaritza edo aisialdiko lokalak, ordea, agertokiaren %9,2a dira, 2017koa baino zifra txikiagoa dena. Nabarmentzeko modukoa da urte horretan zehar futbol zelai edo kirol-instalazioetan gertatutako delituri erregistratu ez izana.

#### 5. Irudia. Delituen banaketa agertokiaren arabera




Jarraian, 6., 7. eta 8. irudietan, delituen banaketa hilabetero, astero, eta orduaren arabera aurkezten da, hurrenez hurren.


6. Irudia. Delituen banaketa hilabetero (2018)



7. Irudia. Delituen banaketa astero (2018)




8. Irudia. Delituen banaketa orduaren arabera (2018)



130 delituak lurralde historikoetan zehar banatzeko moduari dagokionez, 9. irudiak erakusten duen legez, Bizkaiak biltzen ditu delituen ia bi herenak ( $n = 83$ ), Gipuzkoak laurden bat kontzentratzen dituen bitartean ( $n = 33$ ); eta Araba hamarrenaren azpian kokatzen da ( $n = 10$ ). Honi gehitu behar zaio 4 kasu galdu daudela, zeinetan ez den posible izan agertokia zein izan den identifikatzea.


9. Irudia. Delituen banaketa Lurralde Historikoaren arabera (2018)

■ Bizkaia ■ Gipuzkoa ■ Araba ■ Identifikatu gabe



10. irudiak delituen banaketa udalergi mailan aurkezten du, arreta berezia izanik Bizkaiko zein Gipuzkoako udalergi populatuenek. Gehienbat, lurralde historikoetako hiriburuez gain (Bilbo n=65; Donostia-San Sebastián n=12 eta Vitoria-Gasteiz n=8), Portugalete 5 deliturekin eta Irun 6 deliturekin gailentzen dira.


10. Irudia. Delituen banaketa udalergi mailan



Bestalde, kolektibo etniko-arrazialen adierazgarritasuna honako hau da: Arabiarra (n = 15; %24,2), Asiarra (n = 1; %1,61), Ijitoa (n = 4; %6,45), Beltza (n = 9; %14,52), Latinoa/Latinoamerikanoa (n = 8; %12,9), Zehaztu gabe (n = 25; %40,32).


11. irudian arrazismo/xenofobiako 62 delituen banaketa erakusten da. Aurreko urteetan gertatu zen moduan, Bizkaiak hirugarren urtez kasu gehienak biltzen ditu, 36 62tik (%58,06), Gipuzkoan erregistratutako delituak, 21, berriro igo diren bitartean (%33,87). Arabak, bere aldetik, 4 kasu erregistratu ditu, 2017an erregistratutako kasuen erdia (%3,05). Beste kasuari dagokionez, bere agertokia ezezaguna da.

11. Irudia. Arrazismoa/xenofobia delituen banaketa jatorriko Lurralde Historikoaren arabera (2018)



Biktimaren sexu-orientazio edota identitatean oinarrituz burutu diren delituei erreferentzia eginez, 12. irudia, Bizkaiak kasuen ia osotasunaren berri ematen jarraitzen du (n = 28; %71,79), nahiz eta 2018an delitu kopuru txikiago baten berri eman duen. Gipuzkoan, aldiz, aurreko urtearekin konparatuz, kasu gehiago erregistratu dira (n = 6; %15,38). Araba, berriz, 2017an kasu bakarra erregistratuz, 2018an 4 kasu erregistratuzera igaro da (n = 4; %10,26). Arestian aipatutako kolektiboarekin gertatzen zen moduan, ezin izan da delitu baten agertokia lokalizatu. Bestalde, biktimizazioa modu erlatiboki uniforme banatu da kategoria honen hiru kolektibo babestu nagusienetan zehar, hots, 8 delitu emakume lesbianen kontra gertatu dira, 9 delitu pertsona transgeneroen kontra, 12 delitu gizon gay-en kontra, eta 10 gertakari zehaztu gabe.

## 12. Irudia. Sexu-Orientazio/ -Identitatearen kontrako delituen banaketa jatorrizko Lurralde Historikoaren arabera (2018)



Gainerako kolektiboek erreparatu ez diren arazoak bezala, Ertzaintzak ideologia edota politika-orientazioaren kontrako 17 kasu erregistratu ditu: 2 Araban, 12 Bizkaian, 1 Gipuzkoan eta 2 lokalizatu gabe. Sinesmen eta praktika erlijiosoen aurka, Ertzaintzak 7 kasu ezagutu ditu, 2 Bizkaian eta 5 Gipuzkoan, zeinetatik 3 kasu kristauen aurka burutuak izan diren, 2 erlijio islamiarra zuten pertsonen kontra eta beste biak ez dira identifikatuak izan. Azkenik, Bizkaian dibertsitate funtzionala zuten pertsonen aurkako 3 kasu erregistratu dira, baita aporofobiako 2 kasu.

### 1.2. Arau-hauste administratiboak lurralde historikoaren arabera

2018an erregistratu diren 2 arau-hauste administratiboek erreferentzia eginez, ideologiaren kontrakoak dira, eta kirolaren eremura mugatzen dira. 13. irudian ikus daitezkeen moduan, bata Bizkaian (Bilbo) eta bestea Araban (Vitoria-Gasteiz) gertatu da.


## 13. Irudia. Arau-hauste administratiboak Lurralde Historikoaren arabera (2018)



### 1.3. Egozpenen banaketa<sup>1</sup>

Ikertuei erreparatuz, 14. irudia, gehienak espainiarrak dira (%66,3): 61 ikertu 92tik, zeinetatik 45 Euskadikoak diren (%73,77). Bestalde, 31 ikertu atzerritarak dira (%33,7), zeinetatik zati handi bat, 21 kasu, Latinoamerikatik datozen (%67,74).

Sexuaren araberako banaketari dagokionez, 25 ikertu emakumeak dira (%27,17) eta 67 gizonak (%72,83). Halaber, batz besteko adina 41,7 urtetan kokatzen da, eta adin-tartea 13 eta 88 urte artean dago.




Lurralde historikoari erreferentzia eginez, 15. irudia, Bizkaitik datozen ikertuen kopurua era drastikoan murriztu da 2017 urtearekin konparatuz, 29 ikertuekin -Euskaditik datozen 45 ikertuetatik- eta 100k biztanleko 2,52ko tasarekin. Araban ere beste aldaketa garrantzitsu bat eman da: 2017an 10

<sup>1</sup> Egotziak -edo ikertuak 13/2005 LOK LeCrim erreformatu ondoren-, delitu baten burutzea egotzi zaien pertsonak dira, eta zeinen kontra Ertzaintzak polizia-eginbideak hasi dituen.




ikertu izatetik 2018an ikertu bakarra izatera igaro da, 0,3ko tasarekin 100.000 biztanleko. Gipuzkoan, ordean, ikertuen kopurua handitu da aurreko urtearekin erkatuz, 15 ikerturekin eta 2,8ko tasarekin 100k biztanleko.

15. Irudia. Ikertuak jatorriko lurralde historikoaren arabera (2018)




Bestalde, 16. irudiak egozpenen banaketa udalerrri mailan erakusten du, non, hirugarren urtez, ikertu gehienak demografia aldetik populatuena diren Bizkaiko udalerrri nagusienetatik datozen, Bilbotik (n = 16) eta Barakaldotik (n = 9), hain zuzen ere. Nabarmentzeko modukoa da Barakaldoko ehunekoa, bere biztanleriarekin konparatuz (100.000 biztanle). Halere, aurreko urtean ez bezala, Gipuzkoako udalerrri populatuena datozen ikertuen kopurua handitu egin da, konkretuki, Donostia-San Sebastián (n = 9) eta Errenteriako (n = 5) biztanleena.

16. Irudia. Ikertuak jatorriko udalerraren arabera Euskadin (2018)



Ikertuen adinari dagokionez, 17. irudia, 40 eta 49 adin tartea da nagusi (%30,43), bai eta 18 eta 29 arteko tartea (%22,83). Gainerako adin tarteen kasuan, haurtzaroak (0-9), nerabezaroak (10-17) eta zahartzaroak (+60 urte) kasuen %16,31 osatzen dute, beste bi adin tarteez, 30-39 eta 50-59 arteko urteak barne hartzen dituztenak, geratzen den %30,43a osatzen dutelarik.


17. Irudia. Ikertuen adina (2018)



## 1.4. Atxiloketen banaketa


18. irudiak erakusten duen legez, 2018an 29 gizon eta 0 emakume atxilotuak izan dira, 25,5 urteko batezbesteko adinarekin. Gizon hauen zati handienak, 19. irudia, 18 eta 29 urte arteko adina zuen ( $n = 23$ , %79,31), gainerakoek 30 eta 39 urte arteko adina zuten bitartean ( $n = 6$ , %20,69).

18. Irudia. Atxilotuen perfil demografikoa (2018)




Atxilotu guztietatik, 23 ideologia/orientazio politikoarekin erlazionatutako delituengatik atxilotuak izan dira, eta gainerako 6ak aporofobiarengatik. Zifra hauek 2017koak ia bikoizten dituzte. Gainera,

19. Irudia. Atxilotuen adina (2018)



heterogeneotasun handiagoa dago atxilotuen jatorriari dagokionez, 20. irudiak aditzera ematen duen bezala. 29 atxilotuetatik, 15 Bizkaikoak ziren eta 3 Arabakoak. Gainerako 11 atxilotuei erreferentzia eginez, 8 Errusiatik zetozen eta 3 Poloniatik.

20. Irudia. Atxilotuak jatorriko eskualde edo lekuaren arabera (2018)




## 1.5. Biktimizazioen banaketa

21. irudiak adierazten duen moduan, biktimen %45,86-k espainiar nazionalitatea zuen (72 157tik), zeinetatik gehienak, kasuen ia %82, Euskadikoak diren (59 kasu). Honetaz gain, biktima atzerritarrek biktimen erdia baino gehiago dira (%54 inguruan, 85 kasu). Biktima atzerritarrei dagokienez, Ameriketatik datozen biktimena kolektibo biktimizatuena da (biktimizazioen %22,9a), Afrikatik datozen biktimek jarraituta (biktimen %21). Ezaugarri demografikoei erreparaturaz, bataz besteko adina aurreko urtekoaren berdina da, 35 urte (adin tartea 10 eta 71 urte bitartean dago), eta sexuaren arabera banaketari dagokionez, 85 gizonak dira (%54) eta 72 emakumeak (%46) dira.

Nazionalitatea	(n)
Afganistan	2
Angola	2
Aljeria	4
Bolivia	1
Brasil	4
Kamerun	2
Txile	1
Txina	1
Kolonbia	12
Kuba	3
Ekvador	2
Espainia	72
Guatemala	1
Honduras	3
Irak	1
Maroko	20
Mauritania	1
Nikaragua	5
Paraguai	1
Peru	1
Gineako	2
Errepublika	
Errumania	4


21. Irudia Biktimak jatorriko lurraldearen arabera (2018)



Errusia	1	<b>Sexua (n)</b>		<b>Adina <math>\bar{X}</math></b>
Sahara	1	Emakumeak	72 (%46)	35
Senegal	1	Gizonak	85 (%54)	
Turkia	2			
Ukraina	5			
Venezuela	2			
<b>Guztira</b>	<b>157</b>			


22. *irudiak* biktimizazioen banaketa lurralde historikoaren arabera erakusten du, non Bizkaiak Euskaditik datozen 59 biktimetatik 40 kontzentratzen dituen (%67,8), 3,48 biktimizazio tasarekin 100k biztanleko. Gipuzkoak, ordea, 2,08ko tasa dauka (%25,42), eta Arabak 1,22ko tasa (%6,78).

22. Irudia. Biktimak jatorriko Lurralde Historikoaren arabera (2018)




23. *irudiak* biktimizazioaren banaketa udalerrri mailan adierazten du, non Bilbo eta Barakaldo nabarmentzen diren (19 eta 7 kasu hurrenez-hurren).

23. Irudia. Biktimak jatorriko udalerriaren arabera (2018)



Biktimaren adinari erreferentzia eginez, 24. irudia, %35a heldu-gazteak dira, zeinak 18 eta 29 urte arteko adina duten. Gainerako adin-tarteei dagokienez, haurtzaroak (0-9), nerabezaroak (10-17) eta adinekoek (+60 urte) kasuen ia %16a osatzen dute, geratzen diren hiru adin-tarteek, 30 eta 59 urte artean daudenak, gainerako %49a osatzen duten bitartean.

## 24. Irudia. Biktimen adina (2018)




### 1.6. Gorroto gertakarien sailkapena delitu-tipologiaren arabera

25. irudian 132 gorroto gertakarien banaketa aurkezten da haien delitu-tipologiaren arabera, non lesioak (38 kasu), mehatxuak (26 kasu) eta gorroto-diskurtsoa (25 kasu) gailentzen diren. Aurreko urteetan bezala, gorroto-diskurtso bezala kalifikatutako egintzak tentuz hartu behar dira kontutan, izan ere, ibilbide judizial motza izan ohi dute. Bestalde, kontzientzia-askatasuna eta erlijio-sentimenduen aurkako delitu baten, sekretuak ezagutarazi eta agerraraztearen hiru delituen eta sute delitu baten presentzia nabarmentzeko moduak dira.

- **Mehatxuak:** 169., 170. eta 171. artikulua ZK.
- **Kalumniak:** 206. artikulua ZK.
- **Derrigortzeak:** 172. artikulua ZK.
- **Kalteak:** 263. artikulua ZK.
- **Sekretuak ezagutarazi eta agerraraztea:** 197.5. artikulua ZK.
- **Desordena publikoak:** 557. artikulua ZK.
- **Gorroto-diskurtsoa:** 510. artikulua ZK.
- **Suteak:** 351. artikulua ZK.
- **Iraina:** 209. artikulua ZK.
- **Lesioak:** 147. eta 154. artikulua ZK.
- **Kontzientzia-askatasuna:** 522. artikulua ZK.
- **Ondare historikoa:** 321. artikulua ZK.
- **Agintaritzaren aurkako jarkitzea/atentatua:** 550. artikulua ZK.
- **Indarkeriaz egindako lapurreta:** 242. artikulua ZK.

- **Tratu apalesgarria:** 173. artikulua ZK.
- **Indarkeria/arrazakeria kirolean:** uztailaren 11ko 19/2007 Legea, kirolean ematen den indarkeria, arrazismoa, xenofobia eta intolerantziaren aurkakoa

25. Irudia. Delitu-tipologiak



## 1.7. Ondorioak

### 1.7.1. Gorroto gertakarien guztizko kopurua

2018. urtean zehar 132 gorroto gertakari erregistratu ziren Euskadin, zeinetatik **130 delituak ziren** (%98,48) eta **2 arau-hauste administratiboak** (%1,52).

2016an 124 delitu gertakari erregistratu zirela eta 2017an 129ra apur bat igo zela kontuan izanda, egonkortze bat detektatzen da gora egiteko joera minimoarekin. Ondorio hauetarako, lehen Txostenean adierazi bezala, arau-hauste administratiboak bereizita geratzen dira tratamendu, aurkezpen eta balorazioari dagokienez; izan ere, berauen kopurua (gertakari nagusiari loturiko hainbat



gertakari barne bildu ditzakeena), eta benetako dinamika direla eta (pribatuak diren jarduera sektoreekin lotutakoa, adibidez, modu paradigmaticoan, kirol-ikuskitunak), potentzialki delituzkoak diren gertakariekin pareagarria ez den tratamendua merezi dutelako.

### 1.7.2. Gertakarien jomugan dauden kolektiboen mapa

Jomugan dauden kolektiboen mapan egonkortze bat egon da, mapa honen funtsezko formari eragiten ez dioten aldaketa arinekin. Izaera arrazista edo xenofobia duten gertakariak erregistratutako delituen %47,69 (62 kasu) dira, aurreko urtearekin konparatuz arinki jaitsi direlarik (-9 intzidente: -%12,68), sexu-orientazio eta identitatearekin lotutako delituek delituen %30 osatzen duten bitartean (39 kasu), 2017arekin erkatuz arinki igo den kopurua (+7: +%21,87). Bestalde, ideologia eta orientazio politikoak (17 kasu), sinesmen eta praktika erlijiosoek (7 kasu), dibertsitate funtzionalak (3 kasu) eta aporofobiak (2 kasu) erregistratutako delituen %22,31 osatzen dute, aurreko urtean emandako kopuruen oso antzekoak.

Kolektibo etnikoak, era zabalean ulertua, %66,15 ordezkaten du (%66,66 arau-hauste administratiboak kontuan hartuz gero), hau da, gorroto maparen bi herenak, geratzen den herena (%30) ia-ia bere osotasunean sexu-orientazioaren aurkako erasoez osatuta dagoelarik. Aporofobia eta dibertsitate funtzionalak batuz gero, ez dute %4 baino gehiago adierazten.

### 1.7.3. Delitu-tipologiak

**i. Talde nagusiak.** Bigarren txosten honetan lesioak (38 kasu: %29,2), mehatxuak (26 kasu: %20) eta gorroto diskurtsoa (25 kasu: %19,2) delitu gertakarien 3 talde kopurutsuenak bezala kontsolidatu egin dira, hurrengo delitu-taldeengandik nahiko urrun. Hirurek batera delitu-gertakarien %68,4 barne hartzen dute, hots, gorroto maparen bi herenak.

**ii. Indarkeriazko gertakariak.** Lesioak, talde osoaren herenera hurbiltzen direnak (38 kasu: %29,2), erantzukizun kriminala aldatzen duen Zigor Kodearen 22.4 artikuluko inguruabarrarengatik astunduak izango liratekeen jokoaren erreferentziazko muina izango lirateke.

Lesioak, “ekintzen bidezko” indarkeriazko bere osagarritik abiatuz (*hate crime* zentzu hertsian), kalte (10), ondare historiko (1), sute (1), eta baita desordena publikoa eta jarkitze (1) delituei ere gehitu ahal zaizkie, %40ko ehuneko zabala determinatuko lukeena.

**iii. “Hitzen bidezko” gorroto delituak** (*hate speech* zentzu zabalean). Zentzu hertsian hartutako gorroto delituen kategoriarekin konparatuz (ekintzen bidezkoak), gorrotoaren propaganda gertakariak

gehiengoa izaten jarraitzen dute. Mehatxuak (26), gorroto-diskurtsoa zentzu hertsian (25), irainak (6), kalumniak (1) eta sentimendu erlijiosoen aurkako gertakariak (1) gehituz gero, %45,3 osatzen dute (59), %57,6ra igoz kategoria orokor baino gertukoak gehitzen badizkiogu, adibidez, derrigortzeak (8) eta tratu apalesgarriak (8).

Delituen mapa horrela geratzen da, aurreko txostenaren ildo berean, adierazpen jokaeren “gain-irudikapen” batekin, ia-ia 6 4ren kontra, lesio portaera edo haien indarkeria periferikoa baino potentzialki larriagoa den indarkeriekin konparatuz.

Azkenik, sekretuen ezagutarazpen eta agerraraztearen 3 kasuen presentzia nabarmentzeko modukoa da.

#### ***1.7.4. Agertokia, eskualde mailako banaketa, ikertuak, atxilotuak eta biktimak***

Bide publikoa (%43,1) gorroto delitu gehien burutzen den lekua da. Hirugarren urtez, Bizkaiak gorroto delitu gehienak erregistratu ditu (%64), batez ere Bilbon (%50) eta Portugaleten (%4). Zentzu honetan, gainerako probintzien hiriburuak ere nabarmentzen dira Donostia-San Sebastián (9%) eta Vitoria-Gasteiz (6%), bai eta Gipuzkoako Irun (%5).

92 ikertuetatik gehienak espainiarrak dira (%66,3), zeinetatik %73,77 Euskaditik datozen, batez ere Bizkaitik (%64,4). Atzerritarrak diren ikertuetatik, Latinoamerikatik datozenak (%67,74) nabarmentzen dira. Udalerri mailan, ikertu gehienak Bizkaiko udalerri nagusienetatik datoz, Bilbo ( $n=16$ ) eta Barakaldo ( $n=9$ ); nahiz eta Gipuzkoako udalerri populatuenetatik, Donostia-San Sebastián ( $n=9$ ) eta Erreterria ( $n=5$ ), datozen ikertuen kopurua hazten ari den.

2018an 29 atxilotu egon ziren, gehienak Euskadikoak zirelarik (15 Bizkaikoak eta 3 Arabakoak). Biktimen %45,86ak espainiar nazionalitatea zuen, %82a Euskadikoak zirelarik. Atzerritarrak ziren biktimei dagokienez (%54), Amerika (%22,9) zein Afrikatik (%21) datozen biktimak gailentzen dira. Euskadikoa zen biktimen gehiengoa Bizkaikoa zen, batez ere Bilbo (%32) eta Barakaldokoak (%12).

#### ***1.7.5. Euskadiko gorroto mapa Estatu mailako testuinguruan***

**i. Datu orokorrak eta helburu diren kolektiboak.** 2018. urtean zehar 132 gorroto gertakari erregistratu ziren Euskadin, zeinetatik 130 delituak ziren (%98,48) eta 2 arau-hauste administratibo (%1,52). Estatu osoko datuei erreferentzia eginez, Gorroto Delituekin lotutako Gertakarien Bilakaeraren gaineko 2017ko Txostena abiapuntutzat hartuz, Estatu osoko polizia-instantzietara iritsi ziren gorroto delitu guztien (1.419 gertakari, 2016an baino %11 gehiago) %9,44 Euskadin burutuak izan ziren. Ildo honetatik, datu hauek testuinguruan kokatzeko, 2017 urtearen bukaeran, Euskadik

2.194.158 biztanle zituen — Bizkaia (1,14M biztanle, Gipuzkoa (0,71M biztanle) eta Araba (0,32M biztanle—, Espainiako 46.572.132 (INE, 2018) biztanletatik).

Espainiaren kasuan, 2017an, kategoria nagusietan, arrazismo/xenofobian eta ideologian, oinarrিতා buruturiko delituen ehunekoan eman den hazkundera nabarmentzen da, zeinak erregistratutako 1.419 gertakarien 2/3ak biltzen dituen, Euskadin joera hau ikusten ez den bitartean. Kaltetuta suertatu diren kolektiboen kasuan, bi kasuetan kolektibo kaltetuena arrazismoa/xenofobiari dagokiona den arren, aipagarria da Euskadin kolektibo honek gertakarien %47,69a pairatzea, Espainia mailan kopuru hau %37ra mugatzen den bitartean. Estatu mailan zein autonomia erkidego mailan, gehien biktimizatuak izan diren hurrengo kolektiboak ideologia edo orientazio politikoa (%31,4 Espainian eta %13,07 Euskadin), sexu-orientazio eta identitatea (%19,1 Espainian eta %30 Euskadin) eta sinesmen/praktika erlijiosoak (%7,3 Espainian eta %5,38 Euskadin) dira.

Azken kolektibo honi erreparatuz, sinesmen/praktika erlijiosoena, alegia, kasuen zenbaketarekin lotutako ñabardura bat egitea beharrezkoa da, izan ere, Euskadiko txostenean kategoria honek antisemitismoa barne hartzen baitu, Barne Ministerioaren Txostenak hau kategoria bereizitzat hartzen duen bitartean; beraz, datu hauek ez dira guztiz pareagarriak. Bestalde, bi kasuetan, ia ez zen erregistratu dibertsitate funtzional eta aporofobia kolektiboekin erlazionatutako gertakaririk.

Ondorioz, Euskadin erregistraturiko datuek ez dute agerian jartzen fenomenoaren detekzioan hazkunde esanguratsu baten existentzia; Barne Ministerioak azken urteetan (2013-2017) bildutako estatu mailako datuetan bai ikus daitekeena.

Aurreko urtearekin erkatuz, Estatu mailako Barne Ministerioaren txostenean kategoria guztiek gorako gutxi gora-beherako joera izan dute aurreko urtearekin konparatuz, antisemitismoa, dibertsitate funtzionala (zenbaketa metodologian emandako aldaketa batengatik, txostenak berak azaltzen duen legez) eta sexu/genero diskriminazioa izan ezik, zeinak jaitsi egin diren. Euskadi mailan, ordea, hazkunde handiena izan duten kategoriak aporofobia (gertakari batetik 2 gertakaritara igaroz), dibertsitate funtzionala (2 gertakaritik 3 gertakaritara igaroz), eta sexu-orientazio eta identitatea (32 gertakaritik 37 gertakaritara igaroz). Bestalde, ideologia eta politika-orientazio kategoriak hazkunde arina izan du (%6,25) eta erlijio eta sinesmenak egonkor mantendu dira. Azkenik, arrazismoa eta xenofobia %12,68 jaitsi dira.

Ondorioz, esan daiteke bi txostenetan biktimizatuak izan ziren kolektiboak arrazismoa/xenofobia, zeina bi txostenetan gailentzen den, ideologia eta sexu-orientazio eta identitatea direla, aporofobia eta dibertsitate funtzionalarekin lotuta biktimizazio eskasa erregistratu den bitartean.

**ii. Delitu-tipologiak.** Delitu-tipologiei dagokienez, bi txostenetan lesioak (%19,5 Espainian eta %28,8 Euskadin) eta mehatxuak (%7,8 Espainian eta %19,7 Euskadin) gailentzen diren tipologiak dira. Estatu mailan, neurri txikiagoan bada ere, Konstituzioaren aurkako delituak (%8) eta kalteak (%7,7) gailentzen dira, Euskadi mailan gorroto-diskurtsoa (%18,9) eta kalteak (%7,6) gailentzen diren bitartean.

**iii. Beste batzuk:** biktimak, erasotzaileak, banaketa espazio-tenporala eta agertokia.

Biktimaren profil demografikoari erreparatuz, bi txostenetan gehienak gizonak izan ziren (%63,2 Espainian eta %54 Euskadin), 18 eta 50 urte artekoak (%70 baino gehiago). Jatorrizko lekuari erreferentzia eginez, harrigarria da Espainia mailan biktimen %69 espainiarrak izatea, Euskadi mailan kopuru hau %45,86ra modu nabarian murrizten den bitartean, zeinetatik %82 Euskaditik zetozen. Bestalde, atzerritarrak diren biktimei dagokienez, bi kasuetan biktimizazio gehien jasan duten kolektiboak Afrikatik zetozen pertsonak (%17 Espainian eta %21 Euskadin) eta Amerikatik zetozen pertsonak (%8,2 Espainian eta %23 Euskadin) izan ziren.

Erasotzaileen profil demografikoari dagokionez, bai Espainia mailan bai Euskadi mailan, gorroto gertakarien erasotzaileak batez ere gizonak, gazte helduak eta espainiar nazionalitatekoak izan ziren.

Gertakari hauen banaketa espazio-tenporalari erreparatuz, Barne Ministerioaren Txostenak islatzen du urrian eta azaroan burutu zirela mota honetako gertakari gehienak, 197 eta 166 gertakariarekin, hurrenez-hurren. Euskadin, ordea, urtarrila eta martxoa izan ziren gertakari gehien erregistratu zituzten hilabeteak, bakoitzak 15 gertakariekin, maiatzak (14 gertakari) eta irailak (14 gertakari) jarraitzen dietelarik.

Azkenik, patroi espazialaren kasuan, bai Espainia mailan bai Euskadi mailan, gertakarien zati handi bat bide publikoan kokatu ohi da (%34,39 Espainian eta %43,1 Euskadin). Eremu pribatuari dagokionez, neurri txikiagoan bada ere, etxebizitzak (%21,21 Espainian eta %21,5 Euskadin) eta ostalaritza eta aisialdirako establezimenduak (%15,71 Espainian eta %9,2 Euskadin) nabarmentzen dira gertakari hauen agertoki moduan.

## 2. AZTERKETA KONPARATUA EUROPAREKIN

## 2.1. Sarrera

Gorroto gertakarien datuen eta gorroto gertakariei aurre egiteko estrategiei buruzko aurkezpen konparatuan oinarritzen den txosten baten prestaketarako bideratzen den Hitzarmenaren borondatea bereziki egokia da. Arlo honetan ezin da eraginkortasunez lan egin nazioarteko jarduera-esparrua eta, bereziki gure kasuan, Europako esparrua kontuan hartu gabe. Alferrikakoa dirudi, besterik gabe, aurrean ditugun eta aparteko eragina dituzten fenomeno deliktiboek estrategia bateratuak eskatzen dituztela berriz errepikatzea. Estrategia horiek begiradak goratzea eta sinergiak eta lankidetzak bilatzea eskatzen du, baita eredu inspiratzaileak eta orientazio-gidak ere hurbileko kultura- eta juridiko-elkarteetan. Zehatzago esanda, arau-esparru komunak alde batera utzita (giza eskubide unibertsalen nazioarteko eskubidea edo eskualdeko zuzenbidea –Europako Kontseilua, EB...–), gure inguruko herrialdeetan dagoen gaiaren egoeraren ezagutza enpirikoa funtsezkoa da. Izan ere, esku hartze eta prebentzio politika publikoa besterik gabe ezin da ezarri fenomenoaren diagnostikoa zuzena ez bada. Halaber, diagnostiko hori finkatzeko gure errealitate enpirikoa eta araudia ingurukoarekin konparatu beharko da.

Dena den, halako errealitate konparatuari buruzko orientabideak kontutan izan beharreko oztopo ikaragarri batekin topo egiten du: gaiaren inguruko datuen bilketaren hastapeneko egoera prekariora, batez ere datu ofizialak badira. Beste hitz batzuekin: ez da soilik gure artean, oraindik ere, ziurgabetasun-maila handia dagoela gorroto delituak juridikoki zehazki zer diren definitzeko orduan; ez da bakarrik estatu mailan edo Euskadin bilketak egiteko sistema enpirikoa finkatzear dagoela; ez da soilik gorroto-gertakarien trazabilitateari buruzko ezagutza, jatorrian edo polizia eta justizia-administrazio bilketetatik, haien balizko aurrerapena zirkuitu judizial ibilbide osoa amaitu arte (fiskaltza, instrukzioa, epaiketa, zigorra, zigorraren betearazpena...), gainditu gabeko irakasgaia dela. Europako eremuan ere, herrialdez herrialde, arazo berberak behin eta berriro azaltzen dira, baina gehigarri batekin, zeren gorroto gertakarien inguruak finkatzeko, datuak biltzeko eta gorroto delituak definitzeko unean, jurisdikzio nazional bakoitzean erreferentziatzat har ditzakegun terminoak guztiz kontrakoak dira. Azken finean, erreferentzia-terminoen konparagarritasuna oraindik oso urruti dago datu ofizialen iturri kontsolidatuetara sartzeko lan arrunta ahalbidetuko lukeen atalasetik, eguneratzeko prest besterik gabe egongo lirakeen datuetatik hain zuzen ere.

Horiek horrela, hurrengo erabaki metodologikoak hartu dira:

Lehenik eta behin, **lehenengo konparaketa fase bat** ezartzeko orduan **erreferentziatzko hiru herrialde** hautatu dira: Erresuma Batua (eta haren barruan, gehienbat Ingalaterra eta Gales), Frantzia eta Alemania. Hiru herrialde horiek europar-erreferentzia ukazina osatzen dute beren pisu

demografikoagatik eta politikoagatik; izan ere, gorroto eta diskriminazioaren aurkako delituetan esperientzia historiko aberatsa eta luzea dute, gure tradizio juridikoan eta europar estandar normatibo eta enpirikoaren osaketan eragina izaterainoko esperientzia. Azken ikuspuntu honetatik abiatuta, esparru juridikoak eta bilketa enpirikoko sistemak etorkizunean konfiguratzeko eragin gaitasun handien eta jada ibilbide nahikoa duten hiru eredu irudikatzen dira.

Bigarrenik, herrialde bakoitzeko **arau-esparruaren** azalpena emango da, Espainiako Zigor Kodearen manuekin baliokidetzak bilatzeko asmoz. Argi dago ezin izango dela baliokidetasun osoa aurkitu, eta kasu batzuetan, gainera, konparagarritasuna ezinezkotik gertu egongo dela. Baina helburua, momentuz, arlo honetan lege-sistema bakoitzaren funtzionamendua eta desberdintasunak azaltzea da, baliokidetasun materialak -ez-formalak- identifika daitezten. Sistema bakoitzeko funtsezko manuetatik, tutoretza-zentzutik eta babestutako kolektiboei bota behar zaien begiradetatik arakatu beharreko ildoak. Horri herrialde bakoitzaren **errealitate enpirikoari buruzko erreferenteak diren datu-iturrien** informazio-bloke bat gehituko zaio.

Hirugarrenik, eta horrek sistemen alderagarritasuna oraindik bermatzen ez badu ere, Europako eskualdean beharbada oraingoz dagoen iturri ofizial orohartzaille nagusiaren datuak aurkeztuko dira: **Europako Segurtasun eta Lankidetzarako Erakundea (ESLE)**.

Horrek guztiak, bloke honen amaiera gisa, ahalbidetuko du, ez horrenbeste ondorio batzuk lortzea zentzu hertsian, termino hori oraindik ere oso handinahia eta zientzien (normatiboen edo enpirikoen) egoeratik at baitago; baizik eta ildo komunak identifikatzeko, aipatutako herrialdeak zein fasetan dauden eta haien aurrerapenak eta erronkak ikusteko, eta etorkizuneko balizko garapenei buruz hausnartzeko aukera.

## 2.2. Frantzia

### 2.2.1. Baliokide normatiboak

Frantziako Zigor Kodean delitu autonomoak eta diskriminazioarengatiko inguruabar astungarria elkarrekin bizi dira.

1. *Delitu autonomoak*, hau da, tipoari atxikita doan motibazio gaitzesgarria erantsita dituztenak.

- 211-1 eta 211-2. artikulua [genozidio-delituak]: 211-1. artikuluari jarraiki, genozidiotzat joko da talde nazional, etniko, arrazial edo erlijioso bat erabat edo zati batean suntsitzeko adostutako egitasmoaren exekuzioa, edo beste edozein irizpide arbitrariok zehaztutako talde batena, talde horren kideen artean honako ekintza hauek burutzeko edo burutarazteko: a) Bizitzaren aurkako borondatezko atentatua; b) Osotasun-fisikoaren edo psikikoaren aurkako atentatu larria; c) Taldea erabat edo zati batean suntsitzea ekar dezakeen egitatezko baldintzen menpe jartzea; d) Jaiotzak saihesteko neurriak; e) Haurren bortxazko lekualdatzea. 211-2. artikulua araberak, genozidioren bat burutzeko eragite publiko eta zuzena, edozein bide erabilita ere, zigortuko da, zigorra desberdina izanik eragite horren ostean ekintza burutuko balitz ala ez. **Baliokidetzak 1995ko ZK-arekin:** Genozidio-delitua (ZK-ren 607. artikulua) eta genozidio-delitua burutzeko zirikatzeta (ZK-ren 615. artikulua).

- (A) ZK-ren 607/615. artikuluei dagokienez, Frantziako Zigor Kodearen 211-1. artikuluan falta diren kategoriak: Desgaitasuna.
- (B) Frantziako Zigor Kodearen 211-1. artikuluari dagokionez, ZK-ren 607/615. artikuluetan falta diren kategoriak: Beste edozein irizpide arbitrario.
- (C) Frantziako Zigor Kodearen 211-1. artikulua eta ZK-ren 607/615. artikuluek partekatzen dituzten kategoriak: Talde nazionala, etnikoa, arraziala, erlijiosoa.

- 212-1. artikulua [gizateriaren aurkako delituak]: Gizateriaren aurkako delitutzat joko da, biztanleria zibilaren edo beronen zati baten aurkako eraso orokor edo sistematikoaren barruan dagoen adostutako egitasmoaren exekuzioa hurrengoko ekintza baten bidez: a) Bizitzaren aurkako borondatezko atentatua; b) Sarraskia; c) Esklabotza; d) Deportazioa edo biztanleriaren bortxazko lekualdatzea; e) Espetxeratzea edo beste edonolako askatasun-gabetze fisiko eta larria; f) Tortura; g) Bortxaketa, behartutako prostituzioa, behartutako haurdunaldia, behartutako antzutzeta edo beste edonolako baina larritasunaren araberak alderagarria den sexu-indarkeria; h) Arrazoi politikoak, arrazakoak, nazionalak, etnikoak, kulturalak, erlijiosoak edo generokoak/sexistak, edo nazioarteko zuzenbidearen araberak onartezinak diren beste irizpide batzuk direla eta, identifika daitezkeen edozein talde edo erkidegoren jazarpena; i) Behartutako desagerpena; j) Arraza-talde bat beste edozein arraza-talderen gainean zapaldu eta sistematikoki menderatzeko erregimen instituzionalizatu baten esparruan egindako bereizketa-egintzak, eta araubide horri eusteko asmoa dutenak; k) Osotasun fisiko edo psikikoari lesio larriak edo sufrimendu handia nahita eragiten dieten gizabidezkoak ez diren baina antzekoak diren bestelako ekintzak. **Baliokidetzak 1995ko ZK-arekin:** Gizateriaren aurkako delituak (ZK-ren 607 bis. artikulua).

- (A) **ZK-ren 607 bis. artikuluari dagokionez, Frantziako Zigor Kodearen 212-1. artikuluan falta diren kategoriak:** Desgaitasuna.
- (B) **Frantziako Zigor Kodearen 212-1. artikuluari dagokionez, ZK-ren 607 bis. artikuluan falta diren kategoriak:** Bakar bat ere ez.
- (C) **Frantziako Zigor Kodearen 212-1. artikulua eta ZK-ren 607 bis. artikulua partekatzen dituzten kategoriak:** Arrazoi politikoak, arrazakoak, nazionalak, etnikoak, kulturalak, erlijiozkoak edo genero/sexistak, bestelako irizpideak.

- 225-1. artikulua eta hurrengoak [**diskriminazio delituak**]: Zehazki, 225-2. artikuluari jarraiki, pertsona fisiko edo juridiko baten aurkako diskriminazioak -aurreko artikuluetan definiturik- espetze zigorra eta isun zigorra izango ditu hurrengo kasuetan: a) Prestazio edo ondasun bat ukatzea diskriminazioa dela eta; b) Jarduera ekonomiko baten ohiko jardutea oztopatzea; c) Pertsona bat kontratatzeari uko egitea, zigortzea edo kaleratzea; d) Pertsona bat praktiketan jardutea onartzeari uko egitea. Babestutako kategoriak hurrengoak izango lirateke (221-1. artikulua): Jatorria, sexua, familia-egoera, haurdunaldia, itxura fisikoa, egoera ekonomikoarengatik sorturiko ahulezia berezia, abizena, bizilekua, osasun egoera, autonomiaren gabezia, desgaitasuna, ezaugarri genetikoak, ohitura moralak, sexu-orientazioa, genero identitatea, adina, iritzi politikoak, jarduera sindikalak, frantsesa ez den beste hizkuntza batean mintzatzeko gaitasuna, etnia, nazioa, ustezko arraza edo erlijioa. **Baliokidetzak 1995ko ZK-rekin:** Laneko edo enpresako prestazioa diskriminazioz ukatzeagatiko delitua (ZK-ren 512. artikulua).

- (A) **ZK-ren 512. artikuluari dagokionez, Frantziako Zigor Kodearen 225-1. artikuluan eta hurrengoetan falta diren kategoriak:** Sinesmenak, genero arrazoiak.
- (B) **Frantziako Zigor Kodearen 225-1. artikuluari eta hurrengoei dagokionez, ZK-ren 512. artikuluan falta diren kategoriak:** Jatorria, haurdunaldia, itxura fisikoa, egoera ekonomikoa, abizena, bizilekua, ezaugarri genetikoak, ohitura moralak, genero identitatea, adina, jarduera sindikalak, hizkuntza, autonomiaren gabezia.
- (C) **Frantziako Zigor Kodearen 225-1. artikulua eta hurrengoak eta ZK-ren 512. artikulua partekatzen dituzten kategoriak:** Sexua, familia-egoera, osasun egoera edo gaixotasuna, desgaitasuna, sexu-orientazioa, iritzi politikoak edo ideologia, etnia, nazioa, arraza, erlijioa.

- 432-7. artikulua [**diskriminazio delitua**]: 225-1. artikuluan definitutako diskriminazioa, pertsona fisiko edo juridiko bati dagokionez eta agintari publiko edo zerbitzu publiko baten ardura duen pertsona batek edo zerbitzu publiko baten ardura duenak burututa, espetxealdi-eta isun-zigorrarekin zigortzen da hurrengokoetan oinarritzen bada: a) Legez norbaiti dagokion eskubide baten onura emateari uko egitea; b) Jarduera ekonomiko baten ohiko jardutea oztopatzea. Berriz ere, babestutako kategoriak hurrengoak dira (225-1. artikulua): Jatorria, sexua, familia-egoera, haurdunaldia, itxura fisikoa, egoera ekonomikoarengatik



sorturiko ahulezia berezia, abizena, bizilekua, osasun egoera, autonomiaren gabezia, desgaitasuna, ezaugarri genetikoak, ohitura moralak, sexu-orientazioa, genero identitatea, adina, iritzi politikoak, jarduera sindikalak, frantsesa ez den beste hizkuntza batean mintzatzeko gaitasuna, etnia, nazioa, ustezko arraza edo erlijioa. **Baliokidetzak 1995ko ZK-rekin:** Prestazio publikoa diskriminazioz ukatzeagatik delitua (ZK-ren 511. artikulua).

- (A) **ZK-ren 511. artikuluari dagokionez, Frantziako Zigor Kodearen 432-7. artikuluan falta diren kategoriak:** Sinesmenak, genero arrazoiak.
- (B) **Frantziako Zigor Kodearen 432-7. artikuluari dagokionez, ZK-ren 511. artikuluan falta diren kategoriak:** Autonomiaren gabezia, haurdunaldia, itxura fisikoa, egoera ekonomikoa, abizena, bizilekua, ezaugarri genetikoak, ohitura moralak, genero identitatea, adina, jarduera sindikalak, hizkuntza, nazioa.
- (C) **Frantziako Zigor Kodearen 432-7. artikulua eta ZK-ren 511. artikulua partekatzen dituzten kategoriak:** Ideologia edo iritzi politikoak, erlijioa, etnia, arraza, jatorria edo jatorri nazionala, sexua, sexu-orientazioa, familia-egoera, gaixotasuna edo osasun egoera, desgaitasuna.

- 621-1. artikulua [**izaera apalesgarria edo umiliagarria duen irain sexistaren delitua**]: Irain sexista da pertsona bati sexu-konnotazio edo konnotazio sexista bat duen proposamena edo portaera inposatzea baldin eta bere pertsonaren duintasunaren kontra badoa izaera apalesgarria edo umiliagarria dela medio, edo egoera beldurgarria, etsaigoko egoera edo egoera iraingarria dela uste badu.

**Baliokidetzak 1995eko ZK-rekin:** Tratu apalesgarrien delitua (ZK-ren 173.1 artikulua). ZK-ren 22.4. artikulua astungarria ZK-ren 173.1. artikuluari oso gutxitan aplikagarri izan zaio. Hala ere, izan badira epaiak zentzu honetan. Besteak beste, ZK-ren 22.4. artikulua babesten dituen kategorien artean sexua eta generoa daude. ZK-ren 173.1. artikulua, bere kabuz, ez du tipo penalean kategoria espezifikorik sartzen.

- R625-7. artikulua [**publikoa ez den bultzatze delitua**]: Isun astunduekin zigortzen da pertsona edo pertsona talde baten aurkako publikoa ez den diskriminazioa, gorrotoa edo indarkeria eragitea jatorria dela eta, edo hurrengo kategorien benetako edo ustezko kidea izateagatik: etnia, nazioa, ustezko arraza, erlijioa, sexua, sexu-orientazioa, genero identitatea edo 225-2. artikuluan (jatorria, sexua, familia-egoera, haurdunaldia, itxura fisikoa, egoera ekonomikoarengatik sorturiko ahulezia berezia, abizena, bizilekua, osasun egoera, autonomiaren gabezia, desgaitasuna, ezaugarri genetikoak, ohitura moralak, sexu-orientazioa, genero identitatea, adina, iritzi politikoak, jarduera sindikalak, frantsesa ez den beste hizkuntza batean mintzatzeko gaitasuna, etnia, nazioa, ustezko arraza edo erlijioa) eta

432-7. artikuluan (aurreko diskriminazio kausak, berez 225-1. artikuluan definiturik baina 225-2. artikuluan zigorturik) daudenak. **Baliokidetzak 1995ko ZK-rekin:** Printzipioz, hedatzeko gaitasunik ez duten bultzatze portaera pribatuak ez dira zigorgarriak.

- R625-8. artikulua [**publikoa ez den difamazio delitua**]: Isun astunduekin zigortzen da pertsona edo pertsona talde baten aurkako publikoa ez den difamazioa jatorria dela-eta, edo hurrengo kategorien benetako edo ustezko kidea izateagatik: etnia, nazioa, ustezko arraza, erlijioa, sexua, sexu-orientazioa, genero identitatea edo bestelako handicap batzuk. **Baliokidetzak 1995ko ZK-arekin:** Publikoak ez diren irain edo kalumnia delituak, isun-zigorrarekin zigorturik bi kasuetan (ZK-ren 205-210. artikulua)

- (A) **ZK-ren 22.4 artikulua bidez astundua den irain/kalumnia delituari dagokionez, Frantziako Zigor Kodearen R625-8. artikuluan falta diren kategoriak:** Antisemitismoa, ideologia, sinesmenak, genero identitatea, genero arrazoiak, gaixotasuna, desgaitasuna.
- (B) **Frantziako Zigor Kodearen R625-8. artikuluari dagokionez, ZK-ren 22.4 artikulua bidez astundua den irain/kalumnia delituan falta diren kategoriak:** Genero identitatea, bestelako handicap batzuk.
- (C) **Frantziako Zigor Kodearen R625-8. artikulua eta ZK-ren 22.4 artikulua bidez astundua den irain/kalumnia delituak partekatzen dituzten kategoriak:** Etnia, nazioa, arraza, erlijioa, sexua, sexu-orientazioa.

- R625-8-1. artikulua [**publikoak ez diren irainen delitua**]: Isun astunduekin zigortzen da pertsona edo pertsona talde baten aurkako publikoa ez den iraina jatorria dela-eta, edo hurrengo kategorien benetako edo ustezko kidea izateagatik: etnia, nazioa, ustezko arraza, erlijioa, sexua, sexu-orientazioa, genero identitatea edo bestelako handicap batzuk. **Baliokidetzak 1995ko ZK-arekin:** Irain delitua, isun-zigorrarekin zigorturik (ZK-ren 208-210. artikulua)

- (A) **ZK-ren 22.4 artikulua bidez astundua den irain delituari dagokionez, Frantziako Zigor Kodearen R625-8-1. artikuluan falta diren kategoriak:** Antisemitismoa, ideologia, sinesmenak, genero identitatea, genero arrazoiak, gaixotasuna, desgaitasuna.
- (B) **Frantziako Zigor Kodearen R625-8-1. artikuluari dagokionez, ZK-ren 22.4 artikulua bidez astundua den irain delituan falta diren kategoriak:** Genero identitatea, bestelako handicap batzuk.
- (C) **Frantziako Zigor Kodearen R625-8. artikulua eta ZK-ren 22.4 artikulua bidez astundua den irain delituak partekatzen dituzten kategoriak:** Etnia, nazioa, arraza, erlijioa, sexua, sexu-orientazioa.

Frantziako legegileak erabilitako beste teknika penal bat diskriminazioarengatiko inguruabar astungarria izango litzateke.

- 132-76. artikulua [**diskriminazioarengatiko inguruabar astungarria (1)**]: Delitua baino lehen, batera edo jarraian biktimaren edo pertsona talde baten ohorearen edo estimuaren aurka, arraza, etnia, nazio edo erlijio kategorien benetako edo ustezko kidea izateagatik erasotzen duten edozein motatako hitzak, idatziak, irudiak, objektuak edo beste edonolako ekintzak egonez gero, edo aurreko edozein arrazoiarengatik egintzak burutu direla frogatzen bada, artikuluan ageri den bezala handiagotuko da espetxealdi-zigorren gehieneko muga.
- 132-77. artikulua [**diskriminazioarengatiko inguruabar astungarria (2)**]: Delitua baino lehen, batera edo jarraian biktimaren edo pertsona talde baten ohorearen edo estimuaren aurka, sexu, sexu-orientazio edo genero identitate kategorien benetako edo ustezko kidea izateagatik erasotzen duten edozein motatako hitzak, idatziak, irudiak, objektuak edo beste edonolako ekintzak egonez gero, edo aurreko edozein arrazoiarengatik egintzak burutu direla frogatzen bada, artikuluan ageri den bezala handiagotuko da espetxealdi-zigorren gehieneko muga.

Lehen espresuki zehaztutako delituetan baino ez zen ezartzen inguruabar astungarri hau, baina 2017ren urtarrilaren 27ko 2017-86 berdintasunari eta herritartasunari buruzko Legeak delitu guztietara orokortu du astungarria (artikuluak berak aurreikusten dituen delituak salbu; adibidez, astungarria jada erantsita dutenek). **Baliokidetzak 1995ko ZK-rekin:** ZK-ren 22.4. artikuluko astungarria.

- (A) **ZK-ren 22.4. artikuluari dagokionez, Frantziako Zigor Kodearen 132-76 eta 132-77. artikuluetan falta diren kategoriak:** Antisemitismoa, ideologia, biktimaren sinesmenak, sexu identitatea, genero arrazoiak, gaixotasuna, desgaitasuna.
- (B) **Frantziako Zigor Kodearen 132-76 eta 132-77. artikuluei dagokienez, ZK-ren 22.4. artikuluan falta diren kategoriak:** Genero identitatea.
- (C) **Frantziako Zigor Kodearen 132-76 eta 132-77. artikuluek eta ZK-ren 22.4. artikuluek partekatzen dituzten kategoriak:** Arraza, etnia, nazioa, erlijioa, sexua, sexu-orientazioa.

Frantziako Zigor Kodetik haratago, 1881-ren uztailaren 29ko Legea, prentsa askatasunari buruzkoa, adierazpen delituetaz arduratzen da.

- Legearen 23. artikulua [**delituren bat burutzeko eragiteagatiko delitua**]: Delitu bezala tipifikatutako egintza baten konplize gisa zigortuko dira beren diskurtsoen, oihuen edo

mehatxuen bidez, toki edo bilera publikoetan, beren idazkiak edo estanpak, marrazkiak, grabatuak, pinturak, ikurrak, irudiak edo beste edozein idazkera, diskurtso edo irudi bitartekoren laguntzarekin, saldu, banatu, erakutsi geroago saldu dadin edo toki edo bilera publikoetan erakusteko, horma-irudiz zein ikusgai jarritako seinaleen bidez; edo jendeari bideratutako edozein komunikabide bide elektronikoen bitartez, egileak egintza zuzenki burutu dezan eragiten duten pertsonak, beti ere eragite horri ekintzaren bat jarraituko balitzaio.

- Legearen 24. artikulua [**gorrotoa, diskriminazioa edo indarkeria eragiteagatiko delitua**]: Aurreko artikuluan aipatutako edozein bitartekoren bidez [diskurtsoak, oihuak edo mehatxuak toki edo bilera publikoetan, idazkiak edo estanpak, marrazkiak, grabatuak, pinturak, ikurrak, irudiak, edo beste edozein idazkera, diskurtso edo irudi bitartekoren laguntzarekin, saldu, banatu, erakutsi geroago saldu dadin edo toki edo bilera publikoetan erakusteko, horma-irudiz zein ikusgai jarritako seinaleen bidez, edo jendeari bideratutako edozein komunikabide bide elektronikoen bitartez], pertsona edo pertsona talde baten aurkako bereizkeria, gorrotoa edo indarkeria eragin duena zigortzen da, jatorria dela-eta edo baldin eta etnia, nazio, arraza edo erlijio zehatz bateko, sexu, sexu-orientazio, genero identitate edo desgaitasun jakin bateko kide den ala ez den. **Baliokidetzak 1995ko ZK-arekin:** Gorrotoa eragiteagatiko delitua (ZK-ren 510. artikulua).

<p>(A) <b>ZK-ren 510. artikuluari dagokionez, Frantziako Legearen 24. artikuluan falta diren kategoriak:</b> Antisemitismoa, ideologia, sinesmenak, familia-egoera, sexu identitatea, genero arrazoiak, gaixotasuna.</p> <p>(B) <b>Frantziako Legearen 24. artikuluari dagokionez, ZK-ren 510. artikuluan falta diren kategoriak:</b> Genero identitatea.</p> <p>(C) <b>Frantziako Legearen 24. artikulua eta ZK-ren 510. artikulua partekatzen dituzten kategoriak:</b> Jatorria edo jatorri nazionala, etnia, nazioa, arraza, erlijioa, sexua, sexu-orientazioa, desgaitasuna.</p>
--

- Legearen 32. artikulua [**difamazio delitua**]: Partikularren aurka 23. artikuluan aurreikusitako bide batengatik [diskurtsoak, oihuak edo mehatxuak toki edo bilera publikoetan, idazkiak edo estanpak, marrazkiak, grabatuak, pinturak, ikurrak, irudiak, edo beste edozein idazkera, diskurtso edo irudi bitartekoren laguntzarekin, saldu, banatu, erakutsi geroago saldu dadin edo toki edo bilera publikoetan erakusteko, horma-irudiz zein ikusgai jarritako seinaleen bidez, edo jendeari bideratutako edozein komunikabide bide elektronikoen bitartez] egindako difamazioa<sup>2</sup>

---

<sup>2</sup> Egitea egozten zaion pertsona edo erakundearen ohorea edo begirunea kaltetzen duen gertaera alegatzea edo egozte izango da difamazioa. Alegazio edo egozpen hori zuzenean argitaratzea edo erreproduzitzea zigorgarria da, baita zalantzarikoa bada ere, edo, bestela, ez bada berariaz aipatzen baina diskurtso, oihu, mehatxu, idazki edo inprimaki, pankarta edo horma-irudietan erabilitako terminoen bidez identifikatzea posible denean.

zigortuko da. Era berean, bide berdinen bitartez pertsona edo pertsona talde baten aurka egindako difamazioa ere zigortzen da, jatorria dela-eta edo baldin eta etnia, nazio, arraza edo erlijio zehatz bateko, sexu, sexu-orientazio, genero identitate edo desgaitasun jakin bateko kide den ala ez den. **Baliokidetzak 1995ko ZK-rekin:** Iraina edo kalumnia delitua (ZK-ren 205-210. artikulua).

- (A) **ZK-ren 22.4 artikulua bidez astundua den irain/kalumnia delituari dagokionez, Frantziako Legearen 32. artikuluan falta diren kategoriak:** Antisemitismoa, ideologia, sinesmenak, sexu identitatea, genero arazoak, gaixotasuna.
- (B) **Frantziako Legearen 32. artikuluari dagokionez, ZK-ren 22.4 artikulua bidez astundua den irain/kalumnia delituan falta diren kategoriak:** Jatorria, genero identitatea.
- (C) **Frantziako Legearen 32. artikulua eta ZK-ren 22.4 artikulua bidez astundua den irain/kalumnia delituak partekatzen dituzten kategoriak:** Etnia, nazioa, arraza, erlijioa, sexua, sexu-orientazioa, desgaitasuna.

- Legearen 33. artikulua [**irain-delitua**]: Bide berdinekin organo edo lege honetako 30. [epaitegiak, auzitegiak, lehorreko, itsasoko edo aireko indarrak, eratzeko-organak eta administrazio publikoak] eta 31. [Errepublikako Presidente, Ministerioko kide bat edo gehiago, ganberetako kide bat edo gehiago, funtzionario publiko bat, etab.] artikulua izendatutako pertsonen aurka egindako irain<sup>3</sup> oro zigortzen da. Era berean, zigor desberdina jasoko dute bide berdinekin pertsona edo pertsona talde baten aurka zuzendutako edozein irainek jatorria dela eta; edo baldin eta etnia, nazio, arraza edo erlijio zehatz bateko, sexu, sexu-orientazio, genero identitate edo desgaitasun jakin bateko kide den ala ez den. **Baliokidetzak 1995ko ZK-rekin:** Irain delitua (ZK-ren 208-210. artikulua).

- (A) **ZK-ren 22.4 artikulua bidez astundua den irain delituari dagokionez, Frantziako Legearen 33. artikuluan falta diren kategoriak:** Antisemitismoa, ideologia, sinesmenak, sexu identitatea, genero arazoak, gaixotasuna.
- (B) **Frantziako Legearen 33. artikuluari dagokionez, ZK-ren 22.4 artikulua bidez astundua den irain delituan falta diren kategoriak:** Jatorria, genero identitatea.
- (C) **Frantziako Legearen 33. artikulua eta ZK-ren 22.4 artikulua bidez astundua den irain delituak partekatzen dituzten kategoriak:** Etnia, nazioa, arraza, erlijioa, sexua, sexu-orientazioa, desgaitasuna.

## 2.2.2. Errealitate empirikora hurbilketa

**i. Arrazakeria eta gobernuaren datuak.** “Gorrito delitu” terminoa, Espainiako Zigor Kodean gertatzen den bezala, zuzenbide frantsesean ere ez da existitzen. Hori dela eta, egitate mota hauek

<sup>3</sup> Inolako egitaterik egozteko asmorik ez duten eta iraingarria, mespretxukoa edo laidogarria den edozein adierazpen izango da iraina (Legearen 29. artikulua).

zigortzeko bere legerian ageri den aukera bakarria diskriminazio arrazoiengatik egindako arau-haustek dira (jatorria/arraza, aniztasun funtzionala, sexu-orientazioa, sindikatu-orientazioa, etab.). Horien artean, “arraza” eta “etnia” izan dira oinarrizko erreferentziak datuak jasotzeko sistemek aurrera egiterako orduan. Zehatz-mehatz, arrazakeria, antisemitismo eta xenofobiaren aurkako borrokarako Giza Eskubideen Aholku Batzorde Nazionala (GEABN) da diskriminazio arrazoi honen inguruko datuak jasotzen dituen erakundea. Erakunde honek txostenak egiten ditu 1990ko uztailetik aurrera, Frantziako botere-legegileak GEABN-ri urtero arrazakeriaren forma guztien aurkako borrokari buruzko txostena egiteko eskatu zionean, fenomeno hau hobeto ezagutzeko eta, horrela, modu eraginkorragoan aurre egiteko. Behar hau 1958ko urriaren 4ko Frantziako Konstituzioarekin bat dator, zeinek bere lehenengo artikuluan esaten duen «Frantzia errepublika zatiezina, laikoa, demokratikoa eta soziala da; herritar guztien legearekiko berdintasuna bermatzen duena, jatorria, arraza edo erlijioagatik desberdindu gabe»<sup>4</sup>.

GEABN-aren txostenaren azken argitalpenak, hogeita zortzigarrenak, 2017ko datuak jasotzen ditu arrazakeria eta xenofobiaren inguruan. Horretarako, Hezkuntza Ministerio Nazionalak, Barne Arazoetako Ministerioak eta Justizia Ministerioak urtero GEABN-ri arrazakeriaren aurkako jardueraren estatistika-balantzearen berri ematen diote.

Horrez gain, txosten honek GEABNak aurreko urteetan egindako gomendioen segimendua eta (GEABNak) Arrazakeria, antisemitismoa eta LGTB kolektiboaren aurkako gorrotoaren ministerioen arteko ordezkariari 2017ko abenduan jakinarazitako proposamenak aztertzen ditu.

Barne eta Justizia Ministerioen jarduera balantzeek arau-haustea suposatzen duen arrazakeriaren zatia erakusteko balio dute. Aldi berean, azpimarratu beharra dago Barne Ministerioak bi balantze osagarri aurkezten dituela: alde batetik, Barne Segurtasunerako Ministerioaren Zerbitzu Estatistikoarena (SSMSI), polizia eta gendarmeria zerbitzuen benetako jarduera adierazten duena; eta, bestetik, Lurralde Informaziorako Zerbitzu Nagusiarena (SCRT), zeinak toki-homologoek informatutako egitateen jarraipena egiten duen.

2017ko SSMSI-aren estatistika-balantzeak poliziak eta gendarmeriak erregistratutako prozeduren datuak jasotzen ditu, Zigor Kodean «arraza, jatorria, etnia edo erlijio arrazoiengatik» eginiko arau-hauste multzoa (krimen, delitu eta 4. eta 5. motako urratzeak) oinarri hartuta. Urte horretan, poliziak eta gendarmeriak Frantzia metropolitarran arraza, jatorria, etnia eta erlijioarekin harreman esplizitua zuten **8.730 arau-hauste inguru erregistratu zituzten; horietako 5.130 krimen**

---

<sup>4</sup> COMMISSION NATIONALE CONSULTATIVE DES DROITS DE L'HOMME (CNCDDH), “La lutte contre le racisme, l'antisémitisme et la xénophobie”, *Direction de l'information légale et administrative*, Paris, 2018, 412 págs. Acceso online: [https://www.cncdh.fr/sites/default/files/cncdh\\_rapport\\_2017\\_bat\\_basse\\_definition.pdf](https://www.cncdh.fr/sites/default/files/cncdh_rapport_2017_bat_basse_definition.pdf) [Último acceso: 05/03/2019].

**eta delituak (%59-a) eta 3.600 4. eta 5. motako urratzeak (%41)** izanik. Erregistratu den prozedura kopuruak aurreko bi urteekin alderatuta behera egin duen arren (11.000 prozedura inguru 2015ean eta 9.000 2016an), murrizketa hau 2015eko testuinguru bereziarekin lotu behar da, non indarkeria arrazistaren gorakadak urtarrila eta azaroaren atentatuen ondorengo aste eta hilabeteetan gertatu ziren. 2016an Frantzia gertatutako atentatu eta atentatu saiakeren ostean (esaterako, Magnanville erasoak ekainean; edo Nizako atentatua eta apaiz baten hilketak Saint-Étienne-du-Rouvray-en), aitzitik, arau-hauste kriminalen intentsitatea baxuagoa izan zen.

Orokorrean, hilabetero, ezaugarri arrazistak dituzten 700 prozesu baino gehiago irekitzen dira eta egitura egonkorra mantentzen dute: **arau-hauste gehienak (%80-tik gertu) kriminal edo delitu izaera dute eta probokazioak, irainak edo difamazioak dira**. Nabarmentzen dira ere, gutxiago izan arren, mehatxu eta xantaiak (%11), pertsonen aurkako atentatuak (%4) eta ondasunen aurkako atentatuak (%2).

Profilari dagokionez, gutxi gorabehera erasotzaileen %58 eta biktimen %55 gizonak izan ziren. Adinari begira, orokorrean biktimak adin ertaineko pertsonak izan ziren; izan ere, %70 25 eta 54 urteren artean zegoen. 25 urte baino gutxiago dituzten pertsonen irudikapen eskasa (%17 inguru, biztanleriaren %30 direnean) eta 55 urte baino gutxiago dituztenena (%11 inguru, biztanleriaren %30 direnean), salaketa jartzeko joera baxuak azal dezake, adierazpen arrazista gutxiago pairatzeak baino. Erasotzaileen kasuan, ordea, gazteek ordezkariak eskasa zuten arren (%35 35 urte baino gutxiago zituzten, biztanleriaren %66 direnean), 55 urtetik gorakoak gehiegi ordezkatuak zeuden (erasotzaileen %23 izan ziren, biztanleriaren %6 direnean). Gainera, %9 aldera, adingabeak ziren egitateen momentuan; tasa hau arau-hauste arrazistaren arabera aldatzen zen (%16 ondasunen aurkako atentatuengatik prozesatuak ziren).

Beste alde batetik, pertsona atzerritarrak biktima kopuru osoan gehiegi ordezkatuak daude. Izan ere, krimen eta delitu biktimen %21 izan ziren. Berezi kaltetutako taldea Afrikatik datozen pertsonak osatzen dute (%17, nahiz eta biztanleriaren %3 baino ez diren). Logikoa denez, gehiegizko irudikapen hau ez da erasotzaileen kasuan gertatzen, erasotzaileen %9 baino ez baitzen Frantziatik kanpo jaio.

Nabarmentzekoa da, ikuspegi geografikotik, aglomerazio handiek adierazpen arrazistak sustatzen dituztela: goian aipatutako krimen eta delituen bi heren. Parisen gertatu ziren (%29) edo 200.000 biztanle baino gehiagoko guneetan (%34). Landa-udalerriak, aldiz, egitate arrazista hauengatik gutxien kaltetuak dira (biktimen %6).

**ii. Botere judizialaren eta fiskaltzaren datuak.** 2016an, 7.664 gai judizial ailegatu ziren Fiskaltzara. Horien artean, %45 (3.433 kasu) irainak eta difamazioak dira; %35 (2.693 kasu) mehatxuak eta indarkeriak; %16 (1.263 kasu) diskriminazioak; eta gainerako %4 ondasunaren aurkako atentatuak. 2017an prozesatuak izan zirenen kopurua, ordea, 6.947 izan zen; %27 gehiago 2016koarekin alderatuta. Aldi berean, diskriminazioa, gorroto edo indarkeria eragiten duten arau-haustek eta irain eta difamazio arrazistak gehien kondenatzen direnak dira, guztira %74 izanik.

**iii. Datuak arrazakeriaz eta xenofobiaz haratago.** Zifra hauek Lurralde Informaziorako Zerbitzu Nagusiak (SCRT) komunikatu dituenekin alderatuta nahiko urrun daude, azken 3 urteotan egondako beherakada joera adierazteaz aparte. Zehazki, 2017 urtean zehar jasotako beherakada %15,78-koa izan zen (950 gertakari 2017an, 2016ko 1.128 gertakariarekin konparatuta). Hala ere, itxuraz, beherakada honen azpitik doan errealitate burutsu bat egon badago. Nahiz eta egia izan mehatxuen kopurua, hau da, kontabilizaturiko ekintzen hiru laurden, azken urte honetan nabarmenki gutxiagotu dela (-%22,67), ekintzak areagotzen ari dira (+%11,34), batik bat antisemitismo etsaitasuna adierazten duten ekintzen kasuan eta, neurri txikiago batean, musulmanen aurkako ekintzen kasuan.

Txosten honek izaera arrazista duten delituei buruzko datuak soilik jasotzen ez dituela azpimarratu behar da, gorrotozko beste arrazoi batzuen arabera zigortutako delituei buruzko datuak ere jasotzen ditu laburki. Lehenik eta behin, esan behar da 2016. urtean motibazio diskriminatzailea duten delituak 603 izan zirela, jatorria (arrazo, etnia, nazioa edo erlijioa) izanik biktimizatuen zegoen kategoria, delitu guztien %81,3 inguru jasan zituelarik; nahiz eta aurreko urtearekin alderatuta jaisten den, aurreko urtean delitu guztien %81 biltzen zituen, hau da, 490 arau-hauste. Biktimizatuen dagoen bigarren kategoria, nahiz eta aurrekoa baino txikiagoa izan, sexu-orientazioa eta identitatea da, delituen %15,2 inguru biltzen duena (92 arau-hauste). Gainerako motibazio diskriminatzaileak (jarduera sindikalak, dibertsitate funtzionala, sexu-jazarpena eta sexua) gainerako delituen %3,5 jasaten dute. Era berean, “ohitura” eta “familiarren egoera” aipatzen dira motibazio diskriminatzaile gisa, baina ez da deliturik izan azken bi urteetan haien inguruan.

Bestalde, arrazakeriaren, antisemitismoaren eta LGTBI kolektiboaren aurkako gorrotoaren aurkako ministerioarteko ordezkariak (DILCRAH), Barne Ministerioaren Estatistikarako Ministerio-Zerbitzuaren (SSMI) laguntzaz, datuak biltzen ditu eta urtean behin segurtasun indarrek (polizia eta jendarmeria) biktimen sexu-orientazio edo genero-identitate erreala edo ustezkoaren gainean biltzen dituzten datuekin inbentario bat lantzen du<sup>5</sup>. Hori dela eta, 2017an segurtasun indarrek eta

---

<sup>5</sup> DELEGATION INTERMINISTERIELLE A LA LUTTE CONTRE LE RACISME, L'ANTISEMITISME ET LA HAINE ANTI-LGBT (DILCRAH), “Stabilité du nombre de crimes et délits anti-LGBT”, *Secrétariat d'Etat chargé de*



jendarmeriak 1.026 arau-hauste homofobo edo transfobo bildu zituzten, aurreko urtean baino %0,58 gehiago. Arau-hauste horietatik guztietatik 262 abusu fisiko edo sexualak ziren (gertakarien %25,6). Arau-hauste horien biktimak gizonezkoak (%73) eta gazteak (biktimen %58 35 urte baino gutxiagoko biktimak) izan ziren. Burutzeko tokiari dagokionez, gertakarien %56,2 200.000 biztanletik gorako hiri-eremuetan gertatu zen. Kopuru horiek egonkorak dira, eta LGBT kolektiboaren aurkako gorrotoa denboran zehar egonkorra dela erakusten dute baita ere.

**iv. Zifra beltza eta inkestak.** Azkenik, CNCDHk jakin badaki administrazio-estatistikak ez direla nahiko Frantzian dagoen gaiaren egoera sakonki aztertzeko. Hori dela eta, ezagutzen diren gertakari kopurua benetan emandako gertaerena baino askoz txikiagoa den heinean, CNCDHk bere adierazgarritasunari eragiten dion “zifra beltza” kontutan hartzea defendatzen du. Honako hurbilketa hau osatzeko eta azpi-aitorpenaren eragina mugatzeko, beste iturri soziologiko batzuk erabiltzen ditu, hala nola, inkesten «bizitza eta segurtasun-taula». Inkesta horiek aurrez aurre egindako iritzi-azterketa batek eta online inkesta batek osatzen dute eta 2007an sortu ziren INSEE-ren eskutik, delinkuentziaren eta zigor-erantzunen behatoki nazionalarekin (ONDRP) elkarlanean, aurreko bi urteetan herritarrek jasan izan zituzten delitu-egitateak zein diren jakiteko eta, era berean, segurtasun subjektiboaren pertzepzioa identifikatzeko asmoarekin. Inkesta hau urte bakoitzeko lehen hiruhilekoan egiten da, Frantzia metropolitarrako 25.500 etxebizitza inguruan.

## 2.3. Alemania

### 2.3.1. Baliokide normatiboak

Alemanian gorroto delituak bereziki Zigor Kodearen bi artikuluren inguruan antolatzen dira: alde batetik, § 46.2.1 StGB-ko astungarri orokorra eta, bestetik, § 130 StGB, gorroto-diskurtsoari dagokionez<sup>6</sup>.

#### i. § 46.2.1 StGB-ko astungarri orokorra

Alemaniano Zigor Kodearen § 46-ak zigorraren zehaztapena gidatzen duten zenbait oinarri jasotzen ditu, zigorra astundu zein arindu dezaketen irizpideen erreferentzia barne. Zehazki, § 46.2.1-

---

*l'Egalité entre les femmes et les hommes*, Paris, 2018, Online sarbidea: <http://uuyk.mjt.lu/nl2/uuyk/lz3z.html?hl=fr> [Azken atzipena: 05/03/2019].

<sup>6</sup> Artikulu hauetaz gain, ikus § 86a StGB, konstituzioaren aurkako sinboloen erabilerari dagokionez; hala nola, esbastikak, nazionalsozialismoaren militar eta polizia gorputzen uniformeak, etab.

ak egilearen arrazoi eta helburuak aipatzen ditu, bereziki arrazistak, xenofoboak edota pertsonenganako mespretxuzkoak direnak.

Auzitegi alemaniarren eguneroko jarduera eta praktikaren parte da arau-hauslea gidatzen duten motibazioen balorazio kualitatiboa egitea, horiek ondoren astungarri edo aringarri gisa zigorrea eragina izan dezaten, beren balorazio etiko-sozialaren arabera. Formulazio legalaren zabaltasuna aintzat hartuta, argi dago tentuz ibili behar dela arau-hauslearen izaera soilari buruzko baieztapenak egiterako orduan, hala nola beronen “berreskuraezintasuna” edo “temakeria”. Garrantzitsua ez da pertsonaren izaeraren ezaugarria, baizik eta egitateak burutzeko unean gertatzen ziren eta horrela frogatu daitezkeen arrazoi eta jarrerak.

Gogoeta generikoak alde batera utzita, arrazistak, xenofoboak edota pertsonenganako mespretxukoak diren arrazoiari buruzko aipamenari dagokionez, arrazoi hauek 2015ean gehitu ziren, eztabaida luze baten ondoren. Azkenean, zioen azalpenean legegileak arrazoi horiek espresuki aipatzearen garrantzia azpimarratu zuen, gorroto delituek zalantzan jartzen dituzten bizikidetzaren baloreak nabarmendu daitezkeen. Antza denez, ordea, honek ez du aldaketa handirik eragin auzitegien jardueran; izan ere, 2015eko erreforma baino lehen StGB-ren § 46.2.1.-an, aldaketa ostean jasotako arrazoi berengatik burututako egitateen zigorra astuntzen zen.

“Arrazista” eta “xenofobo” hitzek 2008/913/JAI Erabaki Markoaren 4. artikuluan dute jatorria. Honek, biktimen eta erreferentziazko taldearen arraza, azalaren kolorea, erlijioa, arbasoen jatorria, nazio- edo etnia-jatorriaren irizpideen bidez burututako egitateak deskribatzen ditu. Arrazakeriaren kasuan herentziazko ezaugarri fenotipikoetan oinarria duten arrazoiak sartzen dira; bestalde, xenofobiaren kasuan, biktimaren kanpoko itxuraz gain, bere jatorria, hizkuntza edo ezberdintasun kulturala dela eta estigmatizatutako edo laidoztatutako portaeretan oinarria dutenak. Astungarria aplikatzen da subjektu aktiboak aurreiritziek gidatuta jokatzeko duela frogatzen denean, giza eskubideen indar unibertsala ukatuz eta biktimen duintasuna urratuz. “Pertsonenganako mespretxuzkoak diren beste arrazoiak” klausularen bitartez, debekatuta dauden beste diskriminazio motak hartzen dira barnean; esaterako, arrazoi antisemitak, erlijiosoak edo biktimaren desgaitasuna, estatus soziala edo sexu-orientazio arrazoiak.

StGB-ren § 46.2.1.-koaren baliokidea Espainiako ordenamendu juridikoan ZK-aren 22.4. artikuluan jasotako astungarri generikoa izango litzateke. Erabilitako lege-teknikak, ordea, bi ordenamendu juridikoen arteko ezberdintasunak erakusten ditu: Espainiako legegileak arrazoi

zerrenda oso zehatza erantsi du; Alemaniako Zigor kodeak, berriz, adierazpen generikoagoa erabiltzen du, kolektiboak babesteko nahikoa dena, antza.

Zigorra zehazteko astungarri generikoa den neurrian, Kodearen zati bereziaren edozein delituri aplikatu dakioke, Espainiako Zigor kodearen astungarriarekin gertatzen den bezala. **Baliokidetzak 1995ko ZK-arekin:** ZK-aren 22.4. artikulua.

- (A) § 46.2.1 StGB-an -espresuki<sup>7</sup>- falta diren kategoriak ZK-aren 22.4. artikuluekin alderatuta: Antisemitismoa, ideologia, sinesmenak, sexua, sexu-orientazioa, sexu-identitatea, genero arrazoiak, gaixotasuna, desgaitasuna.
- (B) ZK-aren 22.4. artikuluan -espresuki- falta diren kategoriak § 46.2.1 StGB-arekin alderatuta: Xenofobia, pertsonenganako mespretxuzkoak direnak, azalaren kolorea, jatorria.
- (C) § 46.2.1 StGB-ak eta ZK-aren 22.4 art.-ak partekatzen dituzten kategoriak: Arraza, erlijioa, etnia edo jatorri etnikoa, nazioa edo jatorri nazionala.

## ii. Gorroto-diskurtsoa

StGB-ren § 130-ak gorrotoa eragitearen delitua jasotzen du (*Volksverhetzung*). Zigor tipo konplexu eta korapilatsua da eta, funtsean, hurrengo egitura eta portaerak barne biltzen ditu:

- a) Gorrotoa eragitea, indarkeria-deialdia edo herri-bakea asaldatzeko gai diren neurri arbitrarioak hartzea. Kolektibo babestuak dira Alemanian bizi diren nazio, arraza, erlijio, beren jatorri etnikoetatik zehaztutako taldeak edo biztanleriaren zatiak; eta aipatutako taldeen edo biztanleria alderdi baten partaide diren pertsona indibidualak.

“Biztanleriaren zati” kontzeptuaren barruan sartzen dira zenbait ezaugarri partekatu izateagatik, arrazoi profesional, ideologiko, politiko, sozial, ekonomiko edo bestelakoengatik, nabarmentzen diren pertsona-talde egonkor eta iraunkorrak. Aipatutako portaera bakoitzari 3 hilabetetik 5 urtera arteko zigor askatasun-gabetzailea dagokio.

---

<sup>7</sup> “Espresuki” hitzarekin dauden moduan artikulua batean ez bestean agertzen ez diren kategorietaz ari gara hemen eta aurrerantzean, kategoria horiek generikoagoak diren beste batzuren baitan sar daitezkeen kalterik gabe.

- b) Giza-duintasunarekiko erasoak aurreko epigrafean aipatzen diren kolektiboenganako iraina, mespretxu maltzurra eta difamazioaz baliatuta, portaera herri-bakea asaldatzeko gai denean. Portaera honi 3 hilabetetik 5 urtera arteko zigor askatasun-gabetzailea dagokio.
- c) Gorrotoa eragitea, indarkeria-deialdia, neurri arbitrarioak hartzea, edo giza-duintasunarekiko erasoak iraina, mespretxu maltzurra eta difamazioaz baliatuta; idazki baten hedapenaren bidez (modu zabalean edo adingabe baten eskura jarritz) edo komunikabide edo Interneten bidez egiten denean, portaerak herri-bakea asaldatzeko gai ez direnean, 3 urtera arteko isuna ezarriko da.

Zigor bera ezarriko zaio diskriminazio-propaganda edukia duten materialen ekoizpena, eresketa edo biltegiatzeari, material hauek aurreko epigrafean aipatutako portaerak egiteko erabiliko badira (gorrotoa eragitea; indarkeria-deialdia; neurri arbitrarioak hartzea; edo giza-duintasunarekiko erasoak iraina, mespretxu maltzurra eta difamazioaz baliatuta; idazki baten hedapenaren bidez).

- d) Jendearen Eskubideen Zigor Kodearen (*Völkerstrafgesetzbuch*) § 6.-ean jasotzen diren portaerak, menderatze nazionalsozialistan zehar burututakoak, onartzea, ukatzea edo txikiagotzea bake juridikoa asaldatzeko gaitasuna dutenean. Barnean hartzen dira ere, Estatuak antolatutako genozidioa edo pertsona zehatzen aurkako ekintza indibidualak, lehenengoak talde baten kide izateagatik erasotzen direnean, onartzea, ukatzea edo txikiagotzea. Aipatutako portaerari 5 urtera arteko zigor askatasun-gabetzailea edo isuna dagokio.
- e) Menderatze nazionalsozialistan zehar burututako indarkeriazko ekintza arbitrarioak goraiatzea edota justifikatzea, biktimen duintasunari kalte egiten zaionean eta herri-bakea asaldatzen denean. Diskurtso horiek oinarritzko giza eskubideak urratzeari buruzkoak izan behar dute; hala ere, pertsona zehatzak goraiatzea ere zigortuko da, erregimen nazionalsozialistaren funtsa irudikatu zutenak, honen baitan hartutako erabaki garrantzitsuenen erantzule bezala agertzen direnak. Aipatutako portaera 3 urtera arteko zigor askatasun-gabetzailearekin edo, bestela, isunarekin zigortzen da.

StGB-ren § 130.-koaren baliokidea Espainiako ordenamendu juridikoan ZK-ren 510. artikulua izango litzateke. Ezberdintasunak egon arren, azken honek paragrafo alemaniarrekiko paralelotasunak

agertzen ditu. **Baliokidetzak 1995ko ZK-rekin:** Gorrotoa eragiteagatik delitua (ZK-aren 510. artikulua).

- (A) § 130 StGB-an -espresuki- falta diren kategoriak ZK-aren 22.4. artikuluekin alderatuta: Antisemitismoa, ideologia, sinesmenak, familia-egoera, jatorri nazionala/nazioa/nazio taldea, sexua, sexu-orientazioa, sexu-identitatea, genero arrazoiak, gaixotasuna, desgaitasuna.
- (B) ZK-aren 510. artikuluan -espresuki- falta diren kategoriak § 130 StGB-arekin alderatuta: Biztanleriaren zatiak.
- (C) § 130 StGB-ak eta ZK-aren 510. art.-ak partekatzen dituzten kategoriak: Arraza, erlijioa, etnia edo jatorri etnikoa.

### 2.3.2. Errealitate empirikora hurbilketa

Alemanian, datu estatistikoen arloan erreferentzia ofizial nagusia Alemaniako Barne Ministeriotik dator (*Bundesministerium des Innern, für Bau und Heimat*)<sup>8</sup>, zeinak Arrazoi Politikoengatik eragindako Indarkeria (*Politisch motivierte Kriminalität –PMK-*) kategoriaren barruan Gorroto Kriminalitatea (*Hasskriminalität*) izeneko azpikategoria jasotzen duen.

Arrazoi politikoengatik egindako kriminalitatearekiko hurbiltze estatistiko orokorra Alemaniaren guda osteko diseinu juridiko-politikoarekin bat dator. Izan ere, demokrazia militantearen ereduaren aukerak demokraziaren aurkako muturreko mugimenduei arreta berezia jartzea dakar.

Weimar Errepublikaren esperientzia latza oinarri, mutur politikoaren intolerantzia eta ondorengo nazismoaren gorakadagatik itota, mugimendu horien zaintza eta inteligentzia instituzio-mekanismoak (*Verfassungsschutz*) sendotu ziren. Horren adibide da, alegia, estatistika jasotzeko sistema.

Hortaz, arrazoi politikoengatik burututako kriminalitatearen kategoria beste zuzenbide konparatuko zirkuluetan dagoen gorroto delituen oinarritzko kontzeptuaz haratago doa. *Verfassungsschutzbericht*-aren 2017ko azken txostenean agertutako definizioaren arabera<sup>9</sup>, arrazoi

<sup>8</sup> Online sarbidea:

[https://www.bka.de/DE/AktuelleInformationen/StatistikenLagebilder/PolizeilicheKriminalstatistik/pks\\_node.html](https://www.bka.de/DE/AktuelleInformationen/StatistikenLagebilder/PolizeilicheKriminalstatistik/pks_node.html)

<sup>9</sup> Eraikuntza eta Aberrirako Barne Ministerio Federalaren (*Bundesministerium des Innern, für Bau und Heimat*) 2017ko Konstituzioaren Babesarako Txostenean (*Verfassungsschutzbericht*), arrazoi politikoengatik burututako kriminalitatea honela definitzen da, 22-23 orrialdeetan: “Estatuaren babesarako delituen ezaugarriak betetzen dituen egitate kriminala, nahiz eta motibazio-politikoak egiazatu ezin den”. Hona hemen Estatuaren babesarako delitu klasikoak jasotzen dituzten artikulua: §§ 80 - 83, 84 - 91, 94 - 100a, 102 -104a, 105 - 108e, 109 - 109h, 129a, 129b, 130, 234a o 241a StGB.

Kriminalitate arruntaren arloan egiten diren delituak (esaterako, giza hilketak, lesio delituak, sutea, jarkitzea eta kalteak) “arrazoi politikoengatik burututako kriminalitatea” kategoriaren barruan sartzen dira honako kasuetan: egitatearen edo

politikoengatik burututako delituak Estatuaren aurkako delituen alderdi klasikoaren barruan sartutakoak dira, kasu bakoitzean motibazio zehatza identifikatu daitekeenean. Horregatik, delitu hauen estatistika datu-baseetan Alemaniako Zigor Kodearen (*Strafgesetzbuch* StGB) paragrafo zehatzak, askotarikoak eta ugariak sartzen dira (§§ 80 bis 83, 84 bis 91, 94 bis 100a, 102 bis 104a, 105 bis 108e, 109 bis 109h, 129a, 129b, 130, 234a y 241a StGB) edo beste zigor arau orokorrakoak, dagokion motibazio adierazgarria identifikatzen denean. Kategoria orokor honekin, ulergarria da arlo honetan orotara 39.505 gertakari kriminal egotea eta, horien artean, 13.406 **propaganda delitu** (indarkeria politiko osoaren %33,9; eskuin-muturreko indarkeria politikoaren %58,6<sup>10</sup>); eta 3.754 **indarkeriazko delitu** (gehienbat lesio delituak: 2.066 gertakari) izatea.

Gorroto delituen ikuspuntu mugatu eta zehatzena (*Hasskriminalität*) abiapuntu hartuta, aipatu berri diren kopuruak murrizten dira: orotara ia 8.000 gertakari (7.913) 2017 urtean, 10.086 arte ailegatu litekeena gorroto kriminalitate datu generikoei helburu diren taldeen datu estatistiko konkrituak gehituko balitzaizkio: xenofoboak (6.166); antisemitak (1.412); arrazistak (1.277); beste erlijioen aurkakoak (27); estatus sozialaren aurkakoak (20); sexu-orientazioaren aurkakoak (99); desgaitasuna duten pertsonen aurkakoak (20); kristauen aurkakoak (20); islamaren aurkakoak (994); pertsona ijitoen aurkakoak (39); eta bestelako jatorri etnikoa dutenen aurkakoak (12).

Gorroto delituen zenbateko osoa (7.913) bost zati nagusietan banatzen da, motibazio-politikoko indarkeriaren azpitik dagoen ideologiaren arabera, hots, 7.170 eskuin-muturretik datozen gertakariak; 44 ezker-muturretik datozenak; 132 atzerriko ideologietatik; 221 ideologia erlijiosoetatik; eta 346 adskripzio jakinik gabekoak.

Delitu-tipologia zehatzei dagokien datu bat nabarmendu beharra dago: eragite delituak (*Volksverhetzung*), Espainiako ZK-aren 510. artikulua baliokideak, guztira 3.309 gertakari dira 2017an. Era berean, 12 giza hilketa edota erailketa delitu erregistratu dira (pertsonaren bizitzaren aurkakoak) –2 burututako delitu eta 10 saiakuntza– eta 2.000 lesio-delitu baino gehiago (2.066) motibazio-politikoko kriminalitatearen ikuspegi zabala hartuta.

---

araua hausten duenaren ezaugarrien ebaluazio globala egin ostean, horiek motibazio-politikoaren arrazoi direla ondorioztatu daitekeenean, bere xedea borondate demokratikoan eragina izatea edo helburu politikoak lortu edo eragozteko delako; edo erabaki politikoak gauzatzea eragotzi nahi dutenean, ordena libre eta demokratikoa edo bere oinarriko ezaugarrien baten aurka, edo Federazioa edo bere Estatuaren egonkortasun edo segurtasunaren aurka; legezkontrako kaltea eragiten dutenean konstituzio edo estatu federalen organoetako kideen jardutean, indarkeriaren edo horren prestazekintzen bitartez Alemaniako Errepublika Federala arriskuan jarritz; pertsona bati zuzenduak daudenean ideologia politikoa, nazionalitatea, etnia, arraza, azalaren kolorea, erlijioa, munduaren ikuspegia, jatorria edo kanpoko itxura, desgaitasuna, sexu-orientazioa edo estatus soziala dela eta (gorroto delituak deritzonak). Aldi berean, kategoria honek pertsona baten aurka zuzenean bideratuta ez dauden egitateak barnean hartzen ditu; hau da, instituzio edo objektu baten aurkakoak aurreko kasuetan kokatzen diren neurrian.

<sup>10</sup> Bereziki konstituzioaren aurkako sinboloen erabilera, StGB-ren 86. eta 86 a. artikuluen arabera.

Orain arte aipatutako datuak aintzat hartuta, motibazio politikoko kriminalitatearen informazio bilketak guda osteko Alemaniako Errepublika Federalaren identitate juridiko-politikoari erantzuten diola baieztatu daiteke. Horregatik, poliziaren gainontzeko memoria estatistikoan gertatzen denaren aurka, gertakarien bilketa eta identifikazio sistema ez da “irteerakoa” (poliziaren instrukzioa behin itxi denean), “sarbidekoa” baizik (*Eingangsstistik*); hau da, poliziak gertakaria ezagutzen duen unean, jarduera mota hauen alerta mekanismoa ahalik eta eraginkortasun gehienarekin zabaldu dadin.

Hau dela eta, beste jurisdikzio batzuetan gertatzen denaren aurka, non gorroto delituak kolektibo kalteberen edo diskriminazioaren aurkako babesaren logika jarraituz eraten diren, fenomeno hauen inspirazio eta ulermen optika nagusiak<sup>11</sup> Alemanian logika “politikoa” dauka (demokrazia militantea), adierazi den moduan.

Amaitzeko, “indarkeriazko” gertakarien (*Gewalttaten*) ezberdintasun sistematikoa azpimarratu beharra dago, motibazioa (eskuin-, ezker-, ideologia atzerritar- edo erlijio- muturrak) edo babes azpi-kategoriak (gertakari antisemitak, ijitoen aurkakoak, arrazistak, xenofoboak, jatorri etnikoaren aurkakoak, erlijio kristaua, islama eta bestelakoen aurkakoak eta estatus soziala, sexu-orientazioa eta desgaitasunaren aurkakoak) aparte utzita. “Indarkeriazko” gertakariak pertsonen bizitzaren aurkako delituak eta lesio-delituak dituzte bere baitan, eta propaganda delituekiko alternatiba bezala eta zigor tipo indibidualen gainetik kokatzen den kategoria orokorrak bezala agertzen dira.

## 2.4. Ingalaterra eta Gales

### 2.4.1. Baliokide normatiboak

**i. Tipo astunduak.** 1998ko *Crime and Disorder Act*-aren (CDA) 28 eta 32 atalen artean, tipo astundu berriak jasotzen dira, xedapen sakabanatuetan dauden delitu arrunten zerrenda itxi batetiko. Hortaz, ezinbestekoa da astungarri bakoitzari dagokion delitu arruntera jotzea, portaera kriminalaren ikuspegi oso bat eskaintzeko, astundutako bertsioak CDA-n mantenduko duen portaera. Modu honetan baino ez da posible izango Europa kontinentaleko sistemekiko baliokidetzak edo zigor-tipo analogoak aurkitzea. Printzipioz, CDA-k delitu orokorren lau multzo handira egiten du bidalketa. Delako kategoriak honako hauek dira, CDA-ren ordena jarraituz (29-32 atalak): agresio-delituak («*assaults*»),

---

<sup>11</sup> Alerta sistemaren jatorria eta bere islada estatistikoak norabide horretan erakusten dute, nahiz eta datuak jasotzeko mekanismoak datuak beste modu batera aurkezteko aukera ematen duen. Ikusi, goian, OSCE-k jasotako datuen azalpena.

jabetzaren aurkako kalteak («*criminal damage*»), ordena publikoaren aurkako delituak («*public order offences*») eta zirikatzea edo jazarpena («*harassment or stalking*»).

a) CDA-ren 29. atalaren **agresio-delituei** («*assaults*») dagokienez, hiru alderdi kriminal daude, zeinetan posiblea izango den, izatekotan, tipo astundua aplikatzea egileak agertutako etsaitasunagatik edo egilearen etsai-motibazioagatik.

a.1) Gaitzusteko lesioa («*malicious wounding*») edo gaitzustekoa eta larria den gorputz-kaltea egitea («*maliciously inflicting grievous bodily harm*»), 1861ko *Offences Against the Person Act*-ren (OAPA) 20. atalaren arabera. **Baliokidetzak 1995ko ZK-arekin:** Lesio-delitua (ZK-aren 147 eta hurrengo art.).

a.2) Lesio delitua («*actual bodily harm*»), 1861ko *Offences Against the Person Act*-ren (OAPA) 47. atalaren arabera. **Baliokidetzak 1995ko ZK-arekin:** Lesio delitua ZK-aren 147 eta hurrengo artikuluetan (eta, batzuetan, muga kasuak mehatxu delituarekin).

a.3) Agresio delitu orokorra («*common assault*»). CDA-ak zein atalera jo behar den adierazten ez duen arren, hurrengoak aipatu behar dira: 1988ko *Criminal Justice Act*-ren 39. atala eta OAPA-ren 47. atala. **Baliokidetzak 1995ko ZK-arekin:** Lesio delitua ZK-aren 147 eta hurrengo artikuluetan (eta, batzuetan, muga kasuak mehatxu delituarekin).

b) Jabetzaren aurkako kalteak («*criminal damage*»), 1971ko *Criminal Damage Act*-ren 1(1). atalaren arabera.

Atal honen bitartez, besteren jabetza edo ondasuna arrazoirik gabe suntsitu edo kaltetzen duena zigortzen da, asmo horrekin edo zuhurtziagabekeria hutsagatik egin bada ere. **Baliokidetzak 1995ko ZK-arekin:** Kalte delitua (ZK-aren 263. eta hurrengo art.).

c) Ordena publikoaren aurkako delituak («*public order offences*»), 1986ko *Public Order Act*-ren 4., 4A. eta 5. atalen arabera. **Baliokidetzak 1995ko ZK-arekin:** Gorrotoa eragiteagatik delitua (ZK-aren 510. art.), desordena publikoen delitua (ZK-aren 557. eta hurrengo art.), kolektibo bat beldurtzeko asmoa duen mehatxu delitua (ZK-aren 170.1. art.), etab.

d) Zirikatze delitua («*harassment*»), jazarpen delitua (*stalking*»), indarkeriarekiko beldurra eragiten duen zirikatzea («*harassment causing a fear of violence*»), edo indarkeriarekiko beldurra eta



alarma edo estres larria eragiten duen jazarpena («*stalking causing fear of violence and serious alarm or distress*»), 1997ko *Protection from Harassment Act*-ren 2., 2A., 4. eta 4A. atalen arabera. **Baliokidetzak 1995ko ZK-arekin:** Legez kontrako jazarpena edo *stalking* (ZK-aren 172 *ter.* art.); izatekotan, mehatxu eta derrigortze delituak posibleak dira, *stalking* delitua gehitu baino lehen aplikatzen ziren delituak dira, hain zuzen ere.

Aurreko delitu tipo arrunt guztiak tipo astundu bihurtuko dira delitua egiteko unean egilearen etsaitasuna edo egileak etsai-motibazioagatik jokatu zuela frogatzen bada, etsaitasun hori biktima arraza<sup>12</sup> edo erlijio talde<sup>13</sup> bateko partaide izate erreal edota ustezkoan oinarrituta dagoenean.

**ii. Astungarri “orokorrak” epaian.** Delitu arrunta lehen aipatutakoen artean ez dagoenean, xedapen astungarriak daude delitu bakoitzari dagokion zigorra zehazteko fasean, egilearen etsai-motibazioa edo etsaitasunaren agerpena arraza<sup>14</sup> edo erlijioarekin<sup>15</sup>, erreal zein ustezkoarekin, lotuta dagoenean (2003ko *Criminal Justice Act*-ren 145. atala); edo desgaitasuna<sup>16</sup>, sexu-orientazioa edo transgenero-identitatearekin<sup>17</sup>, erreal zein ustezkoarekin, lotuta dagoenean (2003ko *Criminal Justice Act*-ren 146. atala).

Praktikan edozein delitu dago *Criminal Justice Act*-aren (CJA) 145-146 atalen mende. Izan ere, xedapen hauek legerian sartu baino lehen, bazegoen –eta horrela froga daiteke– praktika judiziala zentzu honetan. Edozein kasutan, Europako Kontseiluaren Arrazakeriaren aurkako Batzordeak (ECRI) bere ardura adierazi zuen 145-146 atalen aplikazioaren informazio eskuragairik ezaren gainean, Erresuma Batuari buruz egindako azken jarraipen txostenean (2016)<sup>18</sup>. **Baliokidetzak 1995ko ZK-arekin:**

ZK-ko	22.4	artikuluko	astungarria.
-------	------	------------	--------------

**(A) CDA eta CJA falta diren kategoriak ZK-ko 22.4. artikuluekin alderatuta:**

Antisemitismoa, ideologia, sinesmenak, sexua, sexu-identitatea, genero arrazoiak, gaixotasuna.

<sup>12</sup> CDA-ren 28(4). atalaren arabera, arraza-taldea arrazaren, kolorearen, nazionalitatearen (herritartasuna barne) edo jatorri etniko edo nazionalaren arabera definitzen den pertsona-taldea da.

<sup>13</sup> CDA-ren 28(5). atalaren arabera, erlijio-taldea sinesmen erlijioso baten edo sinesmen erlijioso ezaren arabera definitzen den pertsona-taldea da.

<sup>14</sup> Lehen aipatutako CDA-ren 28(4). ataleko definizioa apikatzen da.

<sup>15</sup> Lehen aipatutako CDA-ren 28(5). ataleko definizioa apikatzen da.

<sup>16</sup> CJA-ren 146(5). atalaren arabera, desgaitasuna edozein urritasun fisiko edo mentala.

<sup>17</sup> CJA-ren 146(6). atalaren arabera, transgenero erreferentziaren barruan transexual izatea edo generoa egokitze prozesu edo prozesu zati baten eraginpean jartzea, jartzeko helburua izatea edo jarri izatea/izana hartzen dit barne.

<sup>18</sup> Online sarbidea: <https://rm.coe.int/fifth-report-on-the-united-kingdom/16808b5758>

**(B) ZK-aren 22.4. artikuluan falta diren kategoriak CDA-a eta CJA-arekin alderatuta:** Transgenero-identitatea, kolorea, nazionalitatea.

**(C) CDA-ak eta CJA-ak eta ZK-ren 22.4 art.-ak partekatzen dituzten kategoriak:** Arraza, erlijioa, etnia edo jatorri etnikoa, nazioa edo jatorri nazionala, sexu-orientazioa eta desgaitasuna.

**iii. Eragitea.** Gorrotoa eragiteagatiko delituak («*incitement to hatred*»), 1986ko *Public Order Act*-ren 17-29N. ataletan sartuta, CDA-n jasotako tipo astunduekiko eta zigorra zehazteko fasean aplikatu daitezkeen xedapen astungarriekiko («*standalone offences*») erregimen berezia dute. Babestutako kategoriak arraza<sup>19</sup>, erlijioa<sup>20</sup> eta sexu-orientazioa<sup>21</sup> dira. Zehatz-mehatz, delituak ondokoak dira: a) Hitzen edo jokaeren erabilera edo idatzizko materialaren erakusketa (18 y 29B. atalak: «*use of words or behaviour or display of written material*»); b) idatzizko materialaren banatzea edo argitalpena (19 y 29C. atalak: «*publishing or distributing written material*»); c) obra artistiko baten antzezpen publikoa (20 y 29D. atalak: «*public performance of play*»); d) grabaketa baten banatzea, erakusketa edo erreprodukzioa (21 y 29E. atalak: «*distributing, showing or playing a recording*»); e) programa baten irrati-difusioa edo inklusioa kablearen bitarteko zerbitzu batean (22 y 29F. atalak: «*broadcasting or including programme in cable programme service*»); f) material arrazista probokatzailea edukitzea (23 y 29G. atalak: «*possession of racially inflammatory material*»). **Baliokidetzak 1995ko ZK-arekin:** Gorrotoa eragiteagatiko delitua (ZK-aren 510. artikulua).

**(A) 1986ko *Public Order Act*-an (gorrotoa eragitea) falta diren kategoriak ZK-aren 510. artikuluekin alderatuta:** Antisemitismoa, ideologia, sinesmenak, familia-egoera, sexua, sexu-orientazioa, sexu-identitatea, genero arrazioak, gaixotasuna, desgaitasuna.

**(B) ZK-aren 510. artikuluan falta diren kategoriak 1986ko *Public Order Act*-arekin (gorrotoa eragitea) alderatuta:** Nazionalitatea, kolorea.

**(C) 1986ko *Public Order Act*-ak eta ZK-aren 510. art.-ak partekatzen dituzten kategoriak:** Arraza, erlijioa, etnia edo jatorri etnikoa, nazioa edo jatorri nazionala, sexu-orientazioa.

<sup>19</sup> 1986ko *Public Order Act*-ren 17. atalaren arabera, arraza gorrotoa arrazaren, kolorearen, nazionalitatearen (herritartasuna barne) edo jatorri etniko edo nazionalaren arabera definitzen den pertsona-taldearen aurkako gorrotoa da.

<sup>20</sup> 1986ko *Public Order Act*-ren 29A. atalaren arabera, erlijio gorrotoa sinesmen erlijioso baten edo sinesmen erlijioso ezaren arabera definitzen den pertsona-taldearen aurkako gorrotoa da.

<sup>21</sup> 1986ko *Public Order Act*-ren 29AB. atalaren arabera, sexu-orientazioaren arloko gorrotoa sexu-orientazioaren arabera definitzen den pertsoan-taldearen aurkako gorrotoa da (sexu bereko zein beste sexukoen aurka).

## 2.4.2. Errealitate empirikora hurbilketa

Ez dago erregistro sistema bateraturik Ingalaterra eta Galesen, Barne Ministerioaren (Home Office) txostenek era bateratuan tratatzen baitituzte estatistika ofizialak *Hate Crime, England and Wales Statistical Bulletin*-ean (aurrerantzean, *Statistical Bulletin*), informazio hau *Crime Survey for England and Wales* (CSEW) biktimizazio inkestako datuen azalpenarekin konbinatuz. *Statistical Bulletin*-ean aurkezturiko datuak aldizka berrikusten dira *Code of Practice for Statistics*-ean jasotako estandarren arabera<sup>22</sup>.

Ingalaterra eta Galesen gertakarien detekzioa oso nabarmenki handitu da azken urteotan. Garrantzitsua da azpimarratzea kasuak erregistratzeko eran gertakariaren kontzeptua delituaren gainetik geratzen dela. Beraz, delitu penalaren froga ez da baldintza gertakaria erregistratu dadin; eta ondorioz, biktimak edo beste edozeinek aurreiritziak motibaturikoa dela atzematen duen edozein gertakari barne biltzen da. Era berean, delituaren erregistro prozesuan poliziak delitu bati faktore astungarri bat esleitu diezaioke, adibidez: alkohola, gorroto delitua, online delitua, etxeko abusua, etab.; ondorioz, posible da delitu bat burutzea inguruabar astungarri bat baino gehiagorekin, baina irizpide horien ezarpenean polizia indarren aldetik homogeneousuna falta da. 2011 eta 2014 urteen artean 43.000 eta 47.000 gorroto gertakari tartean erregistratu baziren ere, 2015ean kopuru horrek ia 55.000 gertakarira egin zuen gora; azken periodoan, 2017-2018koa, alegia, joera hori areagotu delarik. Erregistroek 100.000 gertakaritik gora jaso dituzte, eta beraz, bost urtetan %120koa izan da gorakada. Tendentzia aldaketa hau bat dator efektu moderatzailea izan dezaketen hainbat gertaerekin: 2016ko Brexitaren Erreferenduma edo 2017ko eraso terroristak, esate baterako; baina bat dator ere gorroto gertakarien ikerketa, ikuskapen eta erregistro prozesuen polizia-estandarren finketarekin. Hori dela eta, funtsezko bi protokolo aipatu behar dira, betiere biktimaren aldeko perspektibatik, aurreko arau eta gidalerroak eguneratzen dituztenak. Lehenengoa *National Standard for Incident Recording* (NSIR) delakoa, *National Policing Improvement Agency* erakundeak burutzen duena<sup>23</sup>, zeinak helburu baituen gertakarien erregistro sistematikoa ezartzea. Bigarrena, estatistika kriminalen erregistrarako protokolo orokorren berrikuspina da<sup>24</sup>. Eta hirugarrena, *College of Policing* delakoak garatutako *Hate Crime*

---

<sup>22</sup> OFFICE FOR STATISTICS REGULATION, "Code of Practice for Statistics: Ensuring official statistics serve the public", UK Statistics Authority, 2018, 38 or. Online sarbidea: <https://www.statisticsauthority.gov.uk/wp-content/uploads/2018/02/Code-of-Practice-for-Statistics.pdf>

<sup>23</sup> NATIONAL POLICING IMPROVEMENT AGENCY, "The national standard for incident recording (NSIR 2011), Instructions for Police Forces in England and Wales", *Home Office*, 2011, 34 or. Online sarbidea: [https://assets.publishing.service.gov.uk/government/uploads/system/uploads/attachment\\_data/file/116658/count-nsir11.pdf](https://assets.publishing.service.gov.uk/government/uploads/system/uploads/attachment_data/file/116658/count-nsir11.pdf)

<sup>24</sup> HER MAJESTY'S INSPECTORATE OF CONSTABULARY (HMIC) (2014), "Crime-recording: Making the victim count. The final report of an inspection of crime data integrity in police forces in England and Wales", *HMIC*, 2014, 126

*Operational Guidance* gida<sup>25</sup>, era labur eta irisgarrian gorroto delituen alderdi nagusiak jorratzen dituen: berauen definizioa, araudi garrantzitsua, kontrol jardueraren eta kaltetutako kolektiboekin jarduteko gakoak, eta baita instrukzioak, aholku praktikoak eta adibideak, besteak beste.

Azken periodoan, 2017-2018koa, 94.098 gertakari eta 100.102 aurreiritzizko motibazio detektatu ziren, ondorengo eran banatuak: 71.251 (%76) arrazagatik; 11.638 (%12) sexu-orientazioarengatik; 8.336 (%9) erlijioarengatik; 7.226 (%8) desgaitasunarengatik; eta 1.651 (%2) genero-identitatearengatik. Erregistroek motibazio faktore bat baino gehiago existitzeko aukera aurreikusten dutenez, datuek ez dute banaketa proportzional normal bat erakusten. Delitu tipologiei dagokienez, poliziak erregistraturiko gorroto gertakarien erdia baino gehiago (%56) ordena publikoarekin loturikoak ziren, heren bat (%33) pertsonen aurkako indarkeria kasuak ziren bitartean. Beraz, poliziak jasotako 10 gorroto gertakaritik 9 bi kategoria horietako batetan kokatzen ziren.

Gainera, goian aipatu den *Statistical Bulletin*-ak, beste txostenekin alderatuta, online osagaien bat duten gertakarien kopurua zehazten du. Hala ere, izaera esploratorioa du eta ez ditu beste estatistika ofizialen kalitate estandar berak betetzen. Edozein kasutan, interesgarria da Internetekin lotutako indikatzaile hau nola banatzen den ezagutzea. Erregistro prozesuan, bost markatzaile nagusien artean gutxienez bat aukeratzeaz gain, gorroto delitua online burutu den adierazteko markatzaile gehigarri bat dute baita. 2017-2018an, 1.605 gorroto gertakari erregistratu ziren online osagaien bat zutenak, 1.784 motibazio guztira, ondorengo banaketarekin: 928 arraza (%52, guztizkotik %2) 210 erlijioa (%11,8, guztizkotik %3), 352 sexu-orientazioa (%19,7, guztizkotik %4), 225 desgaitasuna (%12,6, guztizkotik %4) eta 69 transgenero (%3,9, guztizkotik %6). Gehienak, gertakarien %80, pertsonen aurkako indarkeriarekin lotutako egitateak dira, %14 ordena publikoaren eta gainontzekoak kategoria desberdinen artean banatzen dira.

Bestalde, CSEW inkestaren datuek kontrako joera erakusten dute. 2015etik 2018rarte uste da 184.000 gorroto gertakari eman direla urtero motibazio bakarra edo anitz dituztenak, 2007 eta 2009 bitartean dagokion zifra 307.000 gertakaritakoa delarik, %40ko beherakada suposatzen duena. Arrazarengatik ezinikusia da 2015-18 periodoan motibazio ohikoena, 100.000 gertakariko batezbestekoarekin, ondoren datorrelarik desgaitasuna 52.000 gertakariarekin, erlijioa 39.000 gertakariarekin eta sexu-orientazioa beste 30.000ekin. Bitartean, sexu-identitatearentzat, nahiz eta

---

or. Online sarbidea: <https://www.justiceinspectors.gov.uk/hmicfrs/wp-content/uploads/crime-recording-making-the-victim-count.pdf>

<sup>25</sup> COLLEGE OF POLICING, "Hate crime. Operational guidance", *College of Policing*, Coventry, 2014, 132 or. Online sarbidea: <http://www.college.police.uk/What-we-do/Support/Equality/Documents/Hate-Crime-Operational-Guidance.pdf>

2012-13tik jasota egon, CSEW-k adierazten du gertakariak oraindik eskasak direla eta ez dela posible estimazio fidagarriarik ematea. CSEW-k gertakariak delitu motaren arabera taldekatzen ditu, bi kategoriatan: indibidualak («*personal*») eta etxeakoak («*household*»). Pertsonalak dira norbanakoaren aurkakoak direnak eta inkestatuaren esperientzia pertsonalarekin bakarrik harremana dutenak; etxeakoak dira familiaren jabetzaren aurkako erasoak barne biltzen dituztenak (lapurreta, kalteak, ibilgailuak lapurtzea, etab.). Azken urteotan, 2015-2018 periodoan, gertakarien %58 indibidualak eta %42 etxeakoak izan ziren, indarkeriazko izaera zutenak (%46) eta kalteak (%18) nagusitzen zirelarik. Halaber, gorroto gertakariak CSEW-k jasotako delituen %3 suposatzen dute, eta indarkeriazko gertakariak guztizkoaren %21. Desberdintasun hauek present daude baita biktimizazioaren inpaktuan, izan ere, biktima guztien %13-ak baieztatzen du oso kaltetua dagoela, gorroto biktimen kasuan zifra hori %36-ra igotzen delarik.

Home Office-aren arabera, jada aurreratu den bezala, 94.098 gorroto gertakari jaso dira azkeneko urtean zehar (2017/2018). Estatuko Fiskaltza Nagusiak («Crown Prosecution Service» edo «CPS»), aldiz, 2017/18 aldirako argitaratutako gorroto delituei buruzko urteroko txostenean beste zifra batzuk aipatzen ditu, aurrekoekin bat ez datozenak, batez ere beste logika eta datuak biltzeko irizpideak jarraitzen direlako. Izan ere, Barne Ministerioarekin gertatzen ez den bezala, Estatuko Fiskaltza Nagusiak biltzen duen informazioa ez da ofiziala, *Statistics and Registration Service Act 2007*-an jasotako estatistika ofizialaren definizioari egokitu ez zaiolako. Nolanahi ere, Estatuko Fiskaltza Nagusiak 2017/18-an auzipetutako 14.151 gorroto delitu («*completed hate crime prosecutions*») aurreikusitakoak izan ziren, eta haietako 11.987 gorroto delituen kasuan (%84,7) zigor epaia eman zen. Halaber, zigor epai batekin amaitu zuten eta zigorra zehazteko fasean astundu ziren auzipetutako delituak 7.784 (%67,1) izan ziren.

Auzipetutako gorroto delituen kopuru globalari (14.151) berriro ekinez, banaketa hauxe litzateke:

- Arrazagatik astundutakoak diren 11.061 gorroto delitu auzipetu ziren, horietako 9.450-etan zigor epaia eman zuten (%85,4). Zigorraren zehaztapen-fasean berariaz zigor astundua jaso zuten kasuen ehunekoa %69,9koa izan zen.

Bestalde, erlijioagatik astundutakoak diren 820 gorroto delitu auzipetu ziren, horietako 691-etan zigor epaia eman zuten (%84,3). Zigorraren zehaztapen-fasean berariaz zigor astundua jaso zuten kasuen ehunekoa %69,2-koa izan zen.

Arraza eta erlijioak astundutako gorroto delituen baterako irakurketa batean, ehunekoak ematen dira delitu-kategoria nagusiei dagokienez. Intzidentzia ordenaren arabera, datu hauek lortzen

dira: %86,8 pertsonen aurkako delituetan («*offences against person*»), %7,9 ordena publikoaren aurkako delituetan («*public order offences*»), %2,2 kalte delituetan («*criminal damage*»), %1,1 ebasketetan eta salerosketetan («*theft and handling*»), %0,5 lapurretan («*robbery*»), %0,4 droga delituetan («*drugs offences*»), %0,3 bizilekua bortxatzearekin bat doazen lapurretak («*burglary*»), %0,1 giza-hilketetan eta erailketetan («*homicide*»), %0,11 sexu-delituetan («*sexual offences*») eta %0,1 iruzur eta faltsifikazioetan («*fraud and forgery*»).

- Homofobiagatik astunduak diren 1.436 gorroto delitu auzipetu ziren, horietako 1.219-tan zigor epaia emanez (%84,9). Zigorraren zehaztapen-fasean, berariaz, zigor astundua jaso zuten kasuen ehunekoa %64,1-ekoa izan zen.

Bestalde, transfobiagatik astunduak diren 82 gorroto delitu auzipetu ziren, horietako 63-tan zigor epaia emanez (%76,8). Zigorraren zehaztapen-fasean berariaz zigor astundua jaso zuten kasuen ehunekoa %58,1-koa izan zen.

Homofobia eta transfobiak astundutako gorroto delituen baterako irakurketa batean, ehunekoak ematen dira delitu-kategoria nagusiei dagokienez. Intzidentzia ordenaren arabera, datu hauek lortzen dira: %56,2 gizakien kontrako delituetan, %32,8 ordena publikoaren aurkako delituetan, %4,6 kalte delituetan, %1,7 ebasketetan eta salerosketetan, %1,5 droga delituetan, %1,2 lapurretan, %0,6 sexu-delituetan, %0,3 giza-hilketetan eta erailketetan, %0,3 bizilekua bortxatzearekin bat doazen lapurretak eta %0,2 iruzur eta faltsifikazioetan.

- Desgaitasun bat pairatzen duen biktima baten kontra burututako portaerengatik astunduak izan ziren 752 gorroto delitu auzipetu ziren, horietako 564-etan zigor epaia emanez (%75). Zigorraren zehaztapen-fasean berariaz zigor astundua jaso zuten kasuen portzentaia %24,8-ekoa izan zen.

Desgaitasunagatiko gorroto delituetan, ehunekoak ematen dira delitu-kategoria nagusiei dagokienez. Intzidentzia ordenaren arabera, datu hauek lortzen dira: %48,1 gizakien kontrako delituetan, %11,1 ordena publikoaren aurkako delituetan, %9,7 lapurretan, %9,7 iruzurretan eta faltsifikazioetan, %8 ebasketetan eta salerosketetan, %7,2 bizilekua bortxatzearekin bat doazen lapurretak, %3,2 sexu-delituetan, %1,4 kalte delituetan, %0,7 droga delituetan eta %0,6 giza-hilketetan eta erailketetan.

Azkenik, gorrotoa eragiteagatik («*stirring up hatred*») 9 kasu auzipetu ziren, haietako zortzitan zigor epaia emanez. Lehenengoak erlijio-gorrotoa eragiteagatik erlazionaturiko zortzi delitu

barneratzen zituen. Bigarrenak erlijio-gorrotoa eragiteagatik erlazonaturiko hiru delitu. Hirugarrenak arraza-gorrotoa eragiteagatik delitu bakarra eta erlijio-gorrotoa eragiteagatik beste delitu bat. Laugarrenak erlijio-gorrotoa eragiteagatik delitu bakarra. Bosgarrenak arraza-gorrotoa eragiteagatik erlazonaturiko delitu bakarra eta erlijio-gorrotoa eragiteagatik bi delitu. Seigarrenak erlijio-gorrotoa eragiteagatik sei delitu. Zazpigarrenak erlijio-gorrotoa eragiteagatik hiru delitu. Zortzigarrenak komunitate musulmana, afrokaribetarra eta juduarenganako gorrotoa eragiteagatik hamabi delitu.

Adinekoen aurkako delituak, hau da, 60 urteko edo hortik gorako adina dutenak, estatistiketan sartzen dira baita ere, delitu horiek kasuaren gertaeren arabera gorroto delituak izan daitezkeela edo izango ez direla jakinda. Nolanahi ere, auzitegiek biktimen zaugarritasuna kontuan hartu behar dute zigor zehaztapenean delituaren larritasuna areagotzeko orduan. Horrela, 3.295 adinekoen kontrako delitu auzipetu ziren, horietako 2.753-tan zigor epaia emanez (%83,6).

## 2.5. OSCE/ODHIR-en datu ofizialen arabeko marko konparatua: Frantzia, Alemania eta Erresuma Batua.

Europako Segurtasun eta Lankidetzako Antolakundearen (OSCE) menpe dagoen Erakunde Demokratikoen eta Giza Eskubideen Bulegoak (ODIHR) ez ditu diskriminazioarekin edo gorroto diskurtsoarekin lotutako daturik ematen, adierazten baitu ez dagoela OSCE eremuan adostasun nahikorik beraien delituzko izaeraren inguruan. Aurrekoa alde batera utzita, aurreiritziengatik motibaturiko delituen astungarriak («*penalty enhancement provisions*») eta jada tipo penalean astungarri hori barne biltzen duten delitu substantiboak («*substantive offences*») bakarrik jorratzen ditu erakunde honek. Bi kategoria horiek gorroto delitu («*hate crimes*») termino generikoarekin izendatzen dira, eta hori izango da herrialde bakoitzak OSCE/ODIHR-i emandako informazio ofiziala adierazteko erabiliko den terminoa<sup>26</sup>. Azken finean, orokorrean poliziak jasotzen dituen delitu-gertakariak dira, ondoren judizializatuak direnak edo herrialde bakoitzeko sistema judizialean zigor-arloan izapidetzen direnak.

Baina OSCE/ODIHR-ek ez ditu soilik dagokion autoritate nazionalak erraztutako zenbateko ofizialak islatzen; gizarte zibileko talde desberdinek emandako informazioari agerikotasuna ematen dio baita. Orokorrean, zenbateko ofizialak osatzen dituen informazioa da hau, garrantzi berezia hartzen duena estatistika-datu ofizialak eskaintzen ez direnean, informazio-iturri bakarra izanik. Haratago, aurreiritziengatik motibaturiko kasu batzuk plataforma hauen bitartez soilik ezagutu daitezke, biktimek

---

<sup>26</sup> Online sarbidea: <http://hatecrime.osce.org/what-hate-crime>

dagokion herrialdeko poliziak edo bestelako autoritateek kasua ezagutzerik nahi ez dutenetan. Gainera, gizarte zibileko talde hauek definizio kontrajarriak edo desberdinak izan ditzakete OSCE/ODIHR-en analisiaren objektu estandarizatuaren inguruan. Dena den, badirudi horrelako erakundeak gertukoagoak eta irisgarriagoak direla biktimentzako, eta beraz OSCE/ODIHR-ek informazio truke hau gainbegiratzen eta argitaratzen du herrialde bakoitzeko informazio ofizialarekin batera. 2017ko laguntzaileen zerrendak eskualde zein nazio mailako erakundeak jasotzen ditu<sup>27</sup>. Esan behar da gizarte zibilak, nazioarteko erakundeak eta Egoitza Santuak jasotako kasu hauek direla eskusiboki OSCE/ODIHR-ek gorroto gertakari («*hate incidents*») moduan izendatzen dituenak, aurrerago delitu izatera hel badaitezke ere. Gorroto gertakariak dagokienez behintzat, OSCE/ODIHR-ek adierazten du motibazio bat baino gehiago izan ditzaketela eta delitu-tipo bat baino gehiago tartean egon daitekela. Biktima edo erasotzaile bat baino gehiago ere barne bildu ditzake gertakariak, gertakari bakar bat moduan zenbatzen bada ere. Edozein kasutan, autoritate nazionalak ez dituzte halaberrez gertakari hauek ofizialki egiaztatu<sup>28</sup> eta beraz, egiaztaturiko gutxienerako informazioa mugatuko dugu gure ondorengo analisia. Beste modu batean esanda, OSCE/ODIHR gorroto delitu moduan izendatzen eta ulertzen duenari egingo diogu kasu.

Esan bezala, OSCE/ODIHR estatu parte-hartzaile guztientzako gutxienerako marko konparatu bat argitaratzeko konpromisoa hartu du eta horretarako mandatua jaso du. Aztertuko den herrialdearen arabera dagozkion ñabardurak egingo badira ere, gorroto delituentzako gutxienerako marko orokorrak ondorengo hartzen du barne:

- **Delitu-tipoak buruzko hamabi kategoria estandarizatuak** *numerus clausus* bat: giza hilketak/erailketak («*homicide*»); mehatxuak eta mehatxuzko portaerak («*threats and threatening behaviour*»); lesio fisikoak («*physical assault*»); jabetzari kalteak («*damage to property*»); sutea eragitea («*arson*»); indarkeria zirikatzea («*incitement to violence*»); ordena publikoa eraldatzea («*disturbance of the peace*»); ebasketa eta lapurreta («*theft and robbery*»);

---

<sup>27</sup> Zehatzago, eskualdeetako laguntzaileak 2017 urterako ondorengoak dira: *Anti-Defamation League (ADL)*, *International Lesbian, Gay, Bisexual, Trans and Intersex Association (ILGA-Europe)*, *International Organization for Migration (IOM)*, *Jehovaren Lekuko Kristauen Europako Erakundea*, *Europa garaikideko juduen Ikasketarako Kantor Zentrua (Tel Aviv-eko Unibertsitatea)*, *Observatory on Intolerance and Discrimination against Christians (OIDAC)*, *Racism Islamophobia Watch (ORIW)*, *Ikerketa politiko, ekonomiko eta sozialerako Fundazioa (SETA)*, *Transgender Europe (TGEU)* eta *Iheslarietako Nazio Batuen Goi Mandatariaren Bulegoa (ACNUR/UNHCR)*. Nazio mailako laguntzaileei dagokienez, *Espainia*, *Erresuma Batua*, *Frantzia* eta *Alemanien kasuei begiratu diegu*. *Espainian* hauek dira laguntzaileak: *Federación Estatal de Lesbianas, Gais, Transexuales y Bisexuales (FELGBT)*, *Gabinet d'Estudis Socials (GES)*, *Observatorio Español contra la LGBTfobia*, *Observatorio Madrileño contra la LGTBfobia – Arcópoli*, *Observatorio para la Libertad Religiosa y de Conciencia (OLRC)* eta *Unión de Comunidades Islámicas de España*. *Erresuma Batuan*: *Community Security Trust (CST)*, *Galop, Muslim Engagement and Development (MEND)* eta *Tell MAMA*. *Frantzia*: *L'Observatoire de la Christianophobie* y *Collectif contre l'Islamophobie en France (CCIF)*. *Eta Alemanian*: *Lesben- und Schwulverband in Deutschland (LSVD) e.V* eta *Recherche - und Informationsstelle Antisemitismus (RIAS)*. Estatu guztiak barnebiltzen ditue zerrendarako, ikus: <http://hatecrime.osce.org/2017-contributors>

<sup>28</sup> Aurreko guztiari buruz, xehetasunekin, ikus: <http://hatecrime.osce.org/2017-faq>



bandalismoa («*vandalism*»); kultu-lekuen aurkako erasoak («*attacks against places of worship*»); hilobiak bortxatzea («*desecration of graves*»); eta zehaztu gabeko delituak («*unspecified*»).

- **Bederatzi aurreiritzi motibazio estandarizatuen *numerus clausus* bat:** arrazakeria eta xenofobia («*racism and xenophobia*»); ijitoen eta sintien aurkako aurreiritzia («*bias against Roma and Sinti*»); antisemitismoa («*anti-semitism*»); musulmanen aurkako aurreiritzia («*bias against Muslims*»); kristauen aurkako aurreiritzia («*bias against Christians*»); bestelako erlijio edo sinesmenak dituztenen aurkako aurreiritzia («*bias against members of other religions or beliefs*»); sexua («*bias against other groups - Sex*»); sexu-orientazioaren edo genero-identitatearen arabera definitzen diren taldeen aurkako aurreiritzia («*bias against other groups – sexual orientation or gender identity*»); eta desgaitasuna duten pertsonen aurkako aurreiritzia («*bias against other groups – people with disabilities*»).

### 2.5.1. OSCE/ODIHR: Frantzia. Gorroto delituei buruzko datuak

OSCE/ODIHR-ek Frantzian gorroto delituei buruz duen informazio estatistikorik berriena, herrialde horretako agintari nazionalak erakundeari berari egindako datuen iraulketaren arabera, 2017. urteari dagokiona da<sup>29</sup>. Guztira 1.505 gorroto delitu izan dira Justizia Ministerioak, Giza Eskubideen Aholku Batzorde Nazionalak, poliziak eta jendarmeriak jaso dituztenak.

Delitu-kategoria desberdinen arabera, gorroto delituen kopuruaren arabera eta handienetik txikienera ordenatuta, aurreko zifra honela banatzen da<sup>30</sup>: 800 mehatxu eta mehatxuzko portaerak; 530 lesio fisikoak, sexu-indarkeria barne; 123 jabetzari kalteak; 37 zehaztu gabeak, ebasketa, lapurreta eta bizilekua bortxatzearekin bat doan lapurreta («*burglary*»)<sup>31</sup> azpikategoriak barneratzen dituzten

<sup>29</sup> Online sarbidea: <http://hatecrime.osce.org/france>

<sup>30</sup> Komeni da azpimarratzea delitu-kategoria bakoitzeko, aurrerago zehaztuko den moduan, motibazio bakar batekin lotuta dagoen gorroto delitu kopuru oso bat izango dugula. Hala ere, antisemitismoa («*anti-semitism*») eta musulmanen aurkako aurreiritziak («*bias against Muslims*») modu autonomoan eta arrazakeria eta xenofobia («*racism and xenophobia*») kategoriaren barruan daude. Esan den moduan, delitu-kategoria bakoitzaren inguruan jasotako gorroto delitu bakoitza motibazio bakar bati lotuta badago, beharrezkoa ez den bikoizketa izango genuke antisemitismoarekin eta musulmanen aurkako aurreiritziekin erlazonaturik dauden gorroto delituetan. Azken hori saihesteko, segidan datozen datuak aldeztu aurretik baldintzatuta egongo dira: kontabilizatuko den antisemitismo eta musulmanen aurkako gertakari-motibazio bakoitzeko arrazakeria eta xenofobia gertakari-motibazio bat kenduko da guztizko zifretatik.

OSCE/ODIHR bera arazo horretaz jabetu da eta estatistika orokorretan informazio bera bikoiztuta egon daitekeen arriskua aipatzen du. Arrisku hori herrialde bakoitzetik jasotako informazioa interpretatu eta egiaztatu behar duen bakoitzean erakundeak aurre egiten dituen erronei zor zaie. Online sarbidea: <http://hatecrime.osce.org/what-hate-crime/racism-and-xenophobia>

<sup>31</sup> Gainera, OSCE/ODIHR-en arabera, jabetzari eragindako kalteen («*damage to property*») eta eragindako suteen («*arson*») azpikategoriak zehaztu gabeko («*unspecified*») gertakarien barruan sartuko lirake; dena den, benetan egiten ari dena markagailua bikoiztea da, delitu-kategoria nagusien artean baitago ere. Hemen eskainitako datuetan aurreko bikoizketa saihestea lortu nahi izan da.

gorroto delituak badira ere; 10 sutea eragiteak; 4 giza hilketak edo erailketak, giza hilketak edo erailketa saiakuntza barne; eta hilobien bortxatze gertakari bakarra. Emandako datuen arabera agerikoa denez, gorroto delituetako bakoitzari (1.505) aurreiritzi motibazio bakarra emango zaio, motibazio anitzak printzipioz jasotzen ez direlarik. Hemendik abiatuta, gorroto delituen kopuruaren arabera eta handienetik txikienera ordenatuta, hurrengo sailkapena izango dugu: 623 sexu-orientazioaren edo genero-identitatearen arabera definitzen diren taldeen aurkako aurreiritzikoak, sexua, sexu-orientazioa eta genero-identitatea barne daudelarik; 476 arrazakeria eta xenofobiakoak, erlijio baten benetako nahiz ustezko partaidetza barne; 311 antisemitismoak; eta 95 musulmanen aurkako aurreiritzikoak.

Azkenik, egile-motibazioaren prebalentziak aldatu egin daitezke, delitu-kategoria bakoitzarekiko gurutzapena modu indibidualizatuagoan eginez:

- Mehatxuen eta mehatxuzko portaeren 800 delituen artean: 323 arrazakeria eta xenofobiari zor zaizkio; 240 sexu-orientazio edo genero-identitateari; 214 antisemitismoari; eta 23 musulmanen aurkako aurreiritziari.
- Lesio fisikoen 530 delituen artean: 320 sexu-orientazio edo genero-identitatearen arabera definitzen diren taldeen aurkako aurreiritziari zor zaizkio; 175 arrazakeria eta xenofobiari; 29 antisemitismoari; eta 6 musulmanen aurkako aurreiritziari.
- Jabetzari kalteen 123 delituen artean: 64 antisemitismoari zor zaizkio; eta 59 musulmanen aurkako aurreiritziari.
- Eragindako suteen 10 delituen artean: 7 musulmanen aurkako aurreiritziari zor zaizkio; eta 3 antisemitismoari.
- Giza-hilketa edo erailketen 4 delituen artean: 3 sexu-orientazio edo genero-identitatearen arabera definitzen diren taldeen aurkako aurreiritziari zor zaizkio; eta bakarra antisemitismoari.
- Hilobi bortxaketa bakarraren delituari dagokionez, arrazakeria eta xenofobiari zor zaio
- Azkenik, zehaztu gabeko 37 delituetan ezin da ondorioztatu motibazioaren inguruko informazio eztabaidaezinik.

### **2.5.2. OSCE/ODIHR: Alemania. Gorroto delituen datuak.**

OSCE/ODIHR-ek Alemanian buruturiko gorroto delituei buruz duen informazio estatistiko berriena, tokiko autoritateek emandako datuen arabera, 2017 urtekoa da<sup>32</sup>. Polizia indarrek erregistratutako gorroto delituen kopurua orotara 7.913 gertakariena da. Zehazki, lan hau polizia

---

<sup>32</sup> Online sarbidea: <http://hatecrime.osce.org/germany>

federala eta estatuetakoak burutzen dute, baita ere Barne Ministerioaren menpeko Alemaniako Estatistika Bulego Federalak.

Hala ere, OSCE-k islatzen dituen delitu-kategorietako gorroto delituen kopurua ez dator bat lehenago aipatu den kopuru globalarekin. Zehazki, handitik txikira ordenatuta gorroto delituen kopuruaren arabera, ondorengo kategoria deliktiboak agertzen dira: 1.132 lesio fisiko; 1.000 kalte jabegoari, kasu honetan bandalismo gertakariak barne biltzen dituen; 354 mehatxu eta mehatxuzko portaerak; 49 ebasketa eta lapurreta; 30 eragindako sute; 6 giza hilketa/erailketa; eta 5 hilobiak bortxatzea. Kontuan izanda gorroto delitu bakoitzak aurreiritzi motibazio bat baino gehiago izan dezakela, ondorengo sailkapena handitik txikira ordenatu da, gorroto delituen kopuruaren arabera: 1.860 arrazakeria eta xenofobiarengatik; 268 musulmanen aurkako aurreiritziarengatik; 233 antisemitismoarengatik; 114 sexu-orientazioaren edo genero-identitatearen arabera definitzen diren taldeen aurkako aurreiritziarengatik; 68 kristauen aurkako aurreiritziarengatik; 25 bestelako erlijio edo sinesmenak dituztenen aurkako aurreiritziarengatik; 4 desgaitasuna duten pertsonen aurkako aurreiritziarengatik; eta 4 ijito eta sintien aurkako aurreiritziarengatik.

Azkenik, egilean nagusitzen den motibazioan aldaketak eman daitezke delitu kategoria bakoitza era indibidualagoan aztertzean:

- Lesio fisikoengatik 1.132 delituetatik: 934 arrazakeria eta xenofobiari dagozkio; 70 sexu-orientazioari eta genero-identitateari; 51 musulmanen aurkako aurreiritziei; 33 antisemitismoari; 28 kristauen aurkako aurreiritziei; 12 bestelako erlijio edo sinesmenak dituztenen aurkako aurreiritziei; 2 desgaitasunari; eta 2 ijito eta sintien aurkako aurreiritziei.
- Jabegoaren kalteen 1.000 delituetatik: 608 arrazakeria eta xenofobiari dagozkio; 181 musulmanen aurkako aurreiritziei; 163 antisemitismoari; 23 sexu-orientazioari eta genero-identitateari; 15 kristauen aurkako aurreiritziei; 6 bestelako erlijio edo sinesmenak dituztenen aurkako aurreiritziei; 2 desgaitasunari; eta 2 ijito eta sintien aurkako aurreiritziei.
- Mehatxuen eta mehatxuzko portaeren 354 delituetatik: 265 arrazakeria eta xenofobiari dagozkio; 29 musulmanen aurkako aurreiritziei; 22 antisemitismoari; 19 kristauen aurkako aurreiritziei; 15 sexu-orientazioari eta genero-identitateari; y 4 bestelako erlijio edo sinesmenak dituztenen aurkako aurreiritziei.
- Ebasketa eta lapurretaren 49 delituetatik: 25 arrazakeria eta xenofobiari dagozkio; 10 antisemitismoari; 6 sexu-orientazioari eta genero-identitateari; 5 musulmanen aurkako aurreiritziei; 2 kristauen aurkako aurreiritziei; eta 1 bestelako erlijio eta sinesmenak dituztenen aurkako aurreiritziei.

- Eragindako suteen 30 delituetatik: 24 arrazakeria eta xenofobiari dagozkio; 2 musulmanen aurkako aurreiritziei; 1 antisemitismoari; 1 kristauen aurkako aurreiritziei.
- Giza hilketa/Erailketa 6 delituetatik: 4 arrazakeria eta xenofobiari dagozkio; eta 2 kristauen aurkako aurreiritziei.
- Hilobien bortxatzearen 5 delituetatik: 4 antisemitismoari dagozkio; eta 1 kristauen aurkako aurreiritziei.

Alemaniko autoritateek ez dizkiote OSCE-ri gorroto delituengatik edo gorroto diskurtsoarengatik prozesamenduen edo epai kondenatzaileen gaineko daturik eman<sup>33</sup>. OSCE-ren datu-baseek zentzu honetan hutsune garrantzitsu bat dute oraindik, zeinak galarazten baituen StGB-ko §46.2.1ko astungarri generikoaren eta StGB-ko §130eko gorrotoa eragitearen datuak banakatzea. 2016ko irailean, motibazio politikoa duen kriminalitatearekiko, Alemaniako Giza Eskubideen Institutuaren txosten batek adierazten zuen Alemaniako epaitegien aurrean karguak irekitzea ondorio estatistikoetarako jasotzen ari zirela, baina oraindik ez zela publikoa eta beraz, ez zitzaiola oraindik horren konturik eman OSCE-ODIHR-i. Aldiz, delituaren motibazioaren ebaluaketa judiziala aurretiazko fase batean zegoen; izan ere, horren inguruko informazio biketarik ere ez zen burutzen<sup>34</sup>.

Arazakeriaren eta Xenofobiaren Aurkako Europako Batzordeak (ECRI), Alemaniari buruzko bosgarren kontrol txostenean, 2014ko otsailaren 25ean argitaratua, Alemaniako autoritateei gomendatzen die gertakari arrazista, xenofobo, homofobo eta transfoboak jasotzeko eta jarraitzeko sistemaren lehentasunezko erreforma, ziurtatze aldera motibazio horiek dituzten kasu guztiak erregistratuta geratu daitezela<sup>35</sup>. Zentzu honetan, hobekuntzarako aukera adierazten zuen hiru norabidetan: 1) Gertakarien bilketa eta kontrola hobetzea poliziaren eremuan; 2) Ezagutzea zein neurritan heltzen diren gertakari horiek fiskaltzara; 3) Ezagutzea zein neurritan lortzen duten gertakari horiek delituaren muga gaingitzea (delitu bilakatzea)<sup>36</sup>. Hain zen lehentasunezkoa gomendioa ezen ECRI-ren bitarteko jarraipenaren menpe geratu baitzen; hau da, bi urteko gehienezko epean erakunde honek konpromisoa hartzen zuen berriz ere arlo horietan Alemaniako autoritateek egindako lana aztertzeko. ECRI-ren gai honen inguruko ondorioek, 2017ko otsailaren 27an argitaratuak, adierazten

<sup>33</sup> Online sarbidea: <http://hatecrime.osce.org/germany>

<sup>34</sup> GERMAN INSTITUTE FOR HUMAN RIGHTS, "Implementation of selected OSCE commitments on human rights and democracy in Germany. Independent evaluation report on the occasion of the German OSCE Chairmanship 2016", *German Institute for Human Rights*, Berlin, 2016, 19-20 or.

<sup>35</sup> EUROPEAN COMMISSION AGAINST RACISM AND INTOLERANCE (ECRI), "ECRI report on Germany (fifth monitoring cycle)", *Council of Europe*, Estrasburgo, 2014, § 56.

<sup>36</sup> Aldi berean, ondorengo txostenean jasotakoa jarraituz: EUROPEAN COMMISSION AGAINST RACISM AND INTOLERANCE (ECRI), "ECRI General Policy Recommendation N° 11 on Combating racism and racial discrimination in policing", *Council of Europe*, Estrasburgo, 2007, § 12.

dute gorroto delituen estatistikek ez dituztela oraindik prozesamenduen kopurua edo eman diren epaiak zehazten. Zehatzago, ECRI-k ondorioztatzen du ez dela posible baloratzea poliziaren aurrean erregistratutako gorroto gertakarien artean zenbat bidaltzen diren fiskaltzara, eta beraz, ezin dela jakin horietatik zenbat diren azkenean delitu<sup>37</sup>.

Informazio honen zuzenketa 2019rako aurreikusten da eta, beraz, espero da baita irisgarri egitea Europako, eskualdeko eta nazioarteko erakunde desberdinentzat. 2018ko urtarrilean, Alemaniako *Land* edo Estatu federatu batetako epaitegietan lehenengoz hasi ziren estatistikaren bilketarekin, informazio hori Justizia Bulego Federalera bidaltzeko, azken hau zelarik zenbakiak bateratzeko arduraduna. Esan bezala, gorroto delituen kopuruak nazio mailan, dagokion delituaren arabera bereziak gainera, urte honetarako espero dira<sup>38</sup>.

### 2.5.3. OSCE/ODIHR: Erresuma Batua. Gorroto delituen inguruko datuak.

OSCE/ODIHR-ek Erresuma Batuan buruturiko gorroto delituei buruz duen informazio estatistiko berriena, tokiko autoritateek emandako datuen arabera, 2017 urtekoa da<sup>39</sup>. Polizia indarrek erregistratutako gorroto delituen kopurua orotara 95.552 gertakaritakoa da. Zehazki, Ingalaterra, Gales eta Ipar Irlandan lan hau Polizia-buruen Elkarteak («Association of Chief Police Officers» edo «ACPO»), Crown Prosecution Service-k eta Home Office-k burutzen dute. Eskoziari dagokionez, arduraduna Fiskala («Procurator Fiscal») da. 95.552 delituetatik, 94.098 Ingalaterra eta Galesi dagozkie eta 1.454 Ipar Irlandari, Eskozia alde batera utzita. Beste ñabardura interesgarri bat egin daiteke, poliziak jasotako gorroto delituen erdia baino gehiago ordena publikoaren aurkako delituak («*public order offences*») direla, nahiz eta eurentariko batzuk OSCEren marko estandarizatuaren kanpo kokatzen diren.

Erresuma Batuko mapa konplexua osatzen duten lege sistemetako bati aipamena egingo diogu, Ingalaterra eta Galeseko lege sistemari (*English law*), hain zuzen. Sistema honetan, poliziak eta gizarte zibileko beste erakunde batzuek, esate baterako *Community Security Trust* eta *Tell MAMA* erakundeek, delitu mota hauen informazio bilketan eta elkartrukean parte hartu dute. Delitu hauek OSCE-n islatzen dira, herrialdearen kontrol informazio gisa. Halere, delitu kategoriak ez daude zehazturik, eta beraz, ez

---

<sup>37</sup> EUROPEAN COMMISSION AGAINST RACISM AND INTOLERANCE (ECRI), “ECRI conclusions on the implementation of the recommendations in respect of Germany subject to interim follow-up”, *Consejo de Europa*, Estrasburgo, 2017, p. 6.

<sup>38</sup> Xehetasunekin, ikus: FUNDAMENTAL RIGHTS AGENCY (FRA), “Hate crime recording and data collection practice across the EU”, *FRA’s Publications Office*, Luxemburgo, 52-54. or.

<sup>39</sup> Zehazten denez, eskainitako informazioak 2017ko apiriletik 2018ko martxora arteko tartearen barnebiltzen du. Online sarbidea: <http://hatecrime.osce.org/united-kingdom>

da posible zentzu honetan inongo daturik eskaintzea. Egilearen arrazoiei dagokienez, ondorengo sailkapena handitik txikira ordenatu da, delitu kopuruaren arabera: 71.251 arrazakeria eta xenofobiarengatikoak dira<sup>40</sup>; 13.289 sexu-orientazioaren edo genero-identitatearen arabera definitzen diren taldeen aurkako aurreiritziarengatik, horietatik 11.638 sexu-orientazioarengatikoak izanik eta 1.651 transfobiaren aurreiritziarengatik motibaturikoak; 7.226 desgaitasuna duten pertsonen aurkako aurreiritziarengatik; 2.965 musulmanen aurkako aurreiritziarengatik; 1.916 bestelako erlijio edo sinesmenak dituztenen aurkako aurreiritziarengatik<sup>41</sup>; 672 antisemitismoarengatik; eta 264 kristauen aurkako aurreiritziarengatik. Eskainitako datuen arabera, delitu guztien baturak 97.583 delituen kopurua ematen du. Erresuma Batuko gorroto delituen kopuru osoarekiko (95.552) dagoen desberdintasunaren arrazoia da aurreiritzi motibazio bat baino gehiago dituzten delituak daudela.

Alde batera utzita poliziaren aurrean erregistratutako delituak edota gizarte zibileko beste erakundeen aurrean jasotakoak, eta judizializazio faseari erreparatuz gero, OSCE/ODIHR-ek 14.535 gorroto delitu jasotzen ditu, horietatik 14.151 Ingalaterra eta Galesen eta 384 Ipar Irlandan. Berriz ere, ez zaio Eskoziari aipamenik egiten. Zigorraren zehaztapenaren fasean (*sentencing*) 11.987 kondena daude gorroto delituengatik Ingalaterra eta Galesen. Fase horri buruzko daturik ez dago Ipar Irlandari edo Eskoziari buruz.

## 2.6. Hausnarketa konparatuak

I. Aztertutako herrialdeak, arrazakeriaren, xenofobiaren eta diskriminazioaren aurkako borrokan erreferenteak direnak, beren egitura normatiboetan eta baita beren informazio enpirikoaren bilketa sistemetan, norberaren identitate juridiko-politiko propioa agertzen dute. Eredu politiko-kriminalak desberdinak dira, eta baita ere informazio bilketaren fokuk.

Horrela, Alemania estremismo politikoari aurre egitea helburu duen eredu politiko-kriminalaren adibide paradigmaticoa da. Estremismo politikoa da erreferentziazko puntua, demokrazia arriskuan jar dezaketen portaera arriskutsuenak filtratzeko eta zigortzeko. Horregatik, gorroto delituek fenomenologia partikular bat adierazten dute, motibazio politikoko kriminalitatearen kategoria

---

<sup>40</sup> Kategoria honetan sartu daiteke arrazaren, kolorearen, naziokotasunaren edo jatorri etniko edo nazionalaren arabera definitzen den edozein talde; baita ere Erresuma Batua osatzen duten herrialdeak eta nomada irlandar eta ijitoak. Barnebiltzen dira baita asilo eskatzaileak edo errefuxiatuak izateagatik erasotutako pertsonak.

<sup>41</sup> Markatzaile honek budista, hindu, siji eta bestelako erlijioetako jarraitzaileen aurkako gorroto delituak barnebiltzen ditu, erlijioa ezezagunekoak edo bestelako sinesmenak dituztenak [*members of other religions, on the basis of unknown or no religion (atheists)*].

orokorraren barnean, azken hau estatistikoki biltzen delarik, gertakariak atzean dituzten fenomeno ideologikoen motibazioen eta ezaugarrien arabera.

Frantzian, aldiz, ereduak diskriminazioaren aurkako soslaita du –ez halabeharrez esku hartze juridiko-penala- zeinean gertakarien kontzeptualizazioak portaera larrienak harrapatu nahi dituen, justifikaziorik gabeko tratamendu arbitrario moduan kolektibo zaurgarrienak ukitzen dituzten portaerak, hain zuzen. Gertakariak detektatzera zuzendutako jarduera polizial eta administratiboak potentzialki delitu ez diren gertakari erregistratuen bolumen askoz ere handiagoa jasotzen duela dirudi, larriagoak diren gertakari multzoarekin alderatuta<sup>42</sup>.

Azkenik, txosten honetan jasotako hirugarren herrialdeari helduz, Erresuma Batuaren (Ingalaterra eta Gales) berezitasunen artean dago *common law* sistema juridikoan sartuta egonik, Amerikako Estatu Batuetatik datozen korrante politiko-kriminalekin gehiago lerrotatzen den gorroto delituen ulermena partekatzen duela. Erresuma Batuko datu bilketa sistema sofistikuena eta emaitzetan aberatsena da, eta bere dinamika poliziak justizia administrazioan duen posizioak eta botere instituzionalak azal dezake, neurri handi batean. Beren eredu politiko-kriminalean indar handiagoa dute tipo astunduek edo zigorraren zehaztapan fasean astuntzeak (*sentencing enhancement*); eta Europa kontinentalarekin alderatuta, adierazpen askatasunari dagokionean, tradizio garantistago baten eragina nabari da.

**II.** Itzelezko desberdintasun politiko-kriminalek eta, gorroto delituen inguruan datuak biltzerako orduan bakoitzaren sakontasunean eta heldutasunean dauden desberdintasunek, ez dute galarazten zenbait ezaugarri edo joera komun nabarmendu ahal izatea.

**II.1. LEGEZ BABESTUTAKO KOLEKTIBOAK.** Babestutako kolektiboen mapa, historikoki arrazakeriak, xenofobiak eta antisemitismoak jazartitako talde etnikoetan zentratua egon dena, beste zenbait kolektibotara hedatu da: kolektibo sexualak (sexu-orientazioa, sexu-identitatea, generoa, etab.) eta, haratago, ezaugarri bereizgarrien arabera identifikatzen diren bestelako talde batzuk, hala nola desgaitasuna eta beste ezaugarri batzuk. Markatzaileen edo erasotutako taldeen mapa hau badoa islatzen tipo penalen debeku eremuaren hedapenerako joeran, nahiz eta oraindik ez dagoen homogeneotasunik kolektibo horien zerrendan edota definizioan.

---

<sup>42</sup> Konpara bitez iturri enpirikoen analisisian emandako gertakarien datuak (goian, 2.2.2. atalean) Frantziak OSCE-ri emandako datuekin, azken hauek espresuki diskriminazioari eta gorroto diskurtsoari dagozkien datuak deskargatzen dituelarik.

**II.2. DATU BILKETA KOLEKTIBOEN ARABERA.** Marko legalaren joera hedatzaile honek islada asimetrikoa du bilketa sistema enpiriko desberdinek emandako emaitzetan. Era honetan, aztertutako hiru herrialdeetako datu estatistikoek eraso gertakari gehienak talde etnikoen inguruan erregistratzen dituzte, bigarren toki batean dagoelarik talde sexualen aurkako gertakari dokumentatuen multzo esanguratsu bat, bereziki sexu-orientazioari dagozkionak. Aldi berean, bestelako kolektiboen informazio bilketa baztertzeko modukoa da, aurreko taldeekin alderatuta.

**II.3. TRAZABILITATEA.** Datu bilketa sistemek estatistika polizialari dagozkion gertakariak jasotzerakoan erakusten dute indar handiena. Erresuma Batuak datu gehiago ditu bere esku gertakariaren trazabilitatea identifikatzeko, eremu polizialek hasita, prozesamendu, kondena eta betearazpenera heldu arte. Frantzia edo Alemanian, norabide horretan egindako esfortzuak esfortzu, ez dirudi oraindik trazabilitate hori nahikotasunez bermatzeko baldintzak lortu direnik. Dena den, hiru kasuetan erregistroak daude –ez halabeharrez koordinatuak– gertakari polizialen datu esanguratsuak dituztenak, ez soilik gertakari polizialenak baina baita prozesamendu judizialenak ere.

**II.4. DELITU TIPOLOGIA.** Joera komun bat antzeman daiteke, gorroto delituen aurkako esku-hartze juridiko-penala bideratu eta indartzekoa, oinarrizko delituen (“egitatezko” gorroto delituak: *hate crime*) zigorra astuntzeko mekanismoen bidez. Zentzu honetan, bizitzaren aurkako delituak eta lesio delituak erdigunean kokatzen dira, termino kualitatiboetan, gorroto delituen estatistikan. Joera hau Ingalaterra eta Galesen jada nagusi zen termino kuantitatiboetan.

Jurisdikzio guztietan, baita ere *common law* tradizioan, esanguratsua da baita mehatxu motako portaerak –zentzu zabalean ulertuta– sortzen eta jasotzen dituen erasoen multzo bat. Badirudi mehatxuzko eta irainezko portaerak oraindik kuantitatiboki nagusitzen direla Europa kontinentalean. Hala ere, gorrotoa, indarkeria edo diskriminazioa zirikatzearen delitu espezifikoak, zentzu hertsian (“hitzeekin” burututako gorroto delituak: *hate speech*) Europa kontinentalean –bereziki, Alemanian– Erresuma Batuan baino gehiago nagusitzen dira. Azken herrialde honetan, gorroto delitu hauek salbuespen sinboliko soila dira praktika jurisprudenzialaren ikuspegitik, bildutako erregistroen arabera.

**II.5. OSCE.** Gorroto delituek estatueta jurisdikzioetan duten ezarpenaren balizko konparagarritasun enpirikoa bere hastapenetan dago, hasierako fase prekario eta enbrionario batetan. Desberdintasun normatiboak eta datu bilketa sistemetan dauden desberdintasunek, nekez hasi dute beraien arteko hurbilketarik edota nazioarteko elkarlanerako mugimendu esanguratsurik. Datuak



biltzerako orduan OSCE-k buruturiko esfortzua ekimen aitzindaria da. Hala ere, esfortzu honen egungo garapenaren egoerak, behin-betiko adostasun bat lortzeko egiturazko zailtasunak islatzen ditu, hiru puntutan behintzat: erro ideologikoa duten gertakarien tratamendu, definizio eta erregistroan; bildu beharreko delitu kategorien eta kolektibo esanguratsuen homogeneizazio eta zehaztapenean; eta, azkenik, gorroto diskurtso deiturikoaren definizio eta bilketan.

**II.6. EXCURSUS: ESPAINIA ETA OSCE.** Espainian gertaturiko gorroto delituen inguruan OSCE/ODIHR-ek erabiltzen duen informazio estatistiko berriena, autoritate nazionalek erakundeari iraulitako datuen arabera, 2017 urtekoa da<sup>43</sup>. Guztizko kopurua poliziak erregistraturiko 1.419 gorroto delitu dira. Zehatzago, lan hau Mossos d'Esquadra, Ertzaintza, Nafarroako Foruzaingoa, Polizia Nazionalea eta Guardia Zibilak burutzen dute, Barne Ministerioraren Segurtasunerako Estatu Idazkaritzak zentralizatzen duen informazioa. Aurreko zifra horretatik (1.419), 11 gorroto delitu daude aporofobia mota batekin («*fear of the poor*») loturik eta 446 ideologiarekin («*ideology*»), OSCE/ODIHR-ek ez dituenak baloratzen, ondorio konparatuetarako ezarritako gutxieneko markotik at geratzen direlako. Izan ere, estatu kide baten eta OSCE-k emandako informazioaren artean beti elkarrekikotasunik ez badago ere, garrantzitsua da gogoraraztea erakunde honek ez dituela aurretik juzgatzen edo mugatzen herrialde bakoitzean ondorio estatistikoetarako bildutako egileen motibazioak; praktika hori estatu bakoitzaren tokiko, eskualdeko edo estatu-mailako beharrezanaren menpekoa delako. Laburbilduz, Espainiaren kasuan, 962 dira OSCE/ODIHR-en geroko analisiaren mende dauden gorroto delituak.

Edozein kasutan, delitu kategoriak ez daude zehaztuta, eta beraz, ez da posible zentzu horretan inongo daturik ematea. Egilearen motibazioari dagokionez, sailkapen hau gorroto delituen kopuruaren arabera ordenatu da, handitik txikira: 524 arrazakeria eta xenofobiarengatik; 271 sexu-orientazio edo genero-identitatearen arabera definitutako taldeen aurkako aurreiritziengatik; 103 bestelako erlijio edo sinesmenak dituztenen aurkako aurreiritziarengatik, erlijio guztiak barne biltzen dituen, kristauen eta musulmanen aurkako aurreiritziengatik burututakoak barne; 35 sexuarengatik; 23 desgaitasuna duten pertsonen aurkako aurreiritziengatik; eta 6 antisemitismoarengatik.

Sintesi modura: Espainiako datuek, behin OSCE-ren sisteman irauli eta filtratutakoan, *Excursus* honen aurretik egindako hausnarketan harira, islatzen dute mapa bat zeinean kolektibo etnikoek nagusitasuna duten; jada finkatuta dagoen kolektibo sexualen sektore kontsolidatu bat; eta bestelako

---

<sup>43</sup> Online sarbidea: <http://hatecrime.osce.org/spain>

taldeen erregistroa hondar gisa. Edozein kasutan, OSCE-ren sistemak ez du oraindik ahalbidetzen, Espainiaren kasuan, delitu kategorien arabera bereizitako bilketarik<sup>44</sup>.

### 3. SINTESIA: AZKENEKO ONDORIOAK

Euskadiko Gorroto Gertakarien bigarren Txosten honek lehenengo Txostenarekin antzekotasun asko dituen mapa bat irudikatzen du, funtsezko emaitzei erreparatuta. Bi txostenek estatistika polizialaren argazki enpirikoa irudikatzen dute, 2016, 2017 eta 2018 urteetan izandako gorroto gertakarien berri emanez. Mapa horrek, espainiar estatuko eta europar joera konparatuarekin bat, gertakarien inguruko elementu estrukturalen multzo komun bat azaltzen du, sei puntutan laburbildu daitezkeenak:

1. kolektibo etnikoen (arraza, etnia, jatorri nazionala, eta baita erlijioa, sinesmenak eta ideologia ere) aurka zuzendutako gertakarien bilketa nagusitzen da;
2. kolektibo sexualen aurkako gertakariak bigarren mailan finkatu dira kolektibo erasotu moduan;
3. etnikoak edota sexualak ez diren bestelako kolektiboen erregistro-maila baztergarria da;
4. lesioek, kategoria esanguratsuen eta larriena izanik, talde osoaren ia herena ordezkatzeko dute, gorroto delituen (egitateetan oinarrituak, astunduak) ikusgarritasuna finkatuz, erdiguneko erreferentzia puntu moduan;
5. “adierazpenezko” gorroto gertakariak, propagandakoek, (kriminalizatutako) gorroto diskurtsoaren norabide berean, presentzia estatistikoko oso nabarmena mantentzen dute, baita gure ingurune kulturalako herrialde europarren emaitzak gaituz ere;
6. gertakarien bilketa sistemak ez du oraindik perspektiba konparatua ikertutako herrialdeen ibilbide historikoa, baina, funtsean, erronka berei aurre egin behar die. Erronka hauek bitan laburbildu daitezke: erreferentziako termino normatibo eta aplikatiboak (gorroto delituen definizio eta interpretazioa) zehazteko beharrezkoak, bereziki izaera “ideologikoko”

---

<sup>44</sup> Halere, ikus: BARNE MINISTERIOA (ESPAINIA), “Informe sobre la evolución de los incidentes relacionados con los delitos de odio en España”, Ministerio del Interior (España), 2017, 59 or.; eta behean, Txosten honetan, 1.7. atalean, Ondorioak, 5. Puntua.

motibazioari dagokionean; eta bilketa estatistikorako eta poliziaren, fiskaltzaren eta epaileen arteko elkarlanerako beharrezko mekanismoak ezartzea, informazio aberatsagoa lortze aldera, gorroto markatzaileei eta, batez ere, gertakarien trazabilitateari (jatorritik epaitegien balizko kondenaraino) dagokienez.

## BIBLIOGRAFIA

- BARNE MINISTERIOA (ESPAINIA), “Informe sobre la evolución de los incidentes relacionados con los delitos de odio en España”, *Ministerio del Interior (España)*, 2017, 59 or.
- BUNDESMINISTERIUM DES INNERN, FÜR BAU UND HEIMAT, “Verfassungsschutzbericht 2017”, *Bundesministerium des Innern, für Bau und Heimat*, 2017, 359 or. [Azken sarbidea: 15/03/2019].
- COLLEGE OF POLICING, “Hate crime. Operational guidance”, *College of Policing*, Coventry, 2014, 132 or. Online sarbidea: <http://www.college.police.uk/What-we-do/Support/Equality/Documents/Hate-Crime-Operational-Guidance.pdf> [Azken sarbidea: 15/03/2019].
- COMMISSION NATIONALE CONSULTATIVE DES DROITS DE L’HOMME (CNCDH), “La lutte contre le racisme, l’antisémitisme et la xénophobie”, *Direction de l’information légale et administrative*, París, 2018, 412 or. Online sarbidea: [https://www.cncdh.fr/sites/default/files/cncdh\\_rapport\\_2017\\_bat\\_basse\\_definition.pdf](https://www.cncdh.fr/sites/default/files/cncdh_rapport_2017_bat_basse_definition.pdf) [Azken sarbidea: 15/03/2019].
- DELEGATION INTERMINISTERIELLE A LA LUTTE CONTRE LE RACISME, L’ANTISEMITISME ET LA HAINE ANTI-LGBT (DILCRAH), “Stabilité du nombre de crimes et délits anti-LGBT”, *Secrétariat d’Etat chargé de l’Egalité entre les femmes et les hommes*, París, 2018. Online sarbidea: <http://uvyk.mjt.lu/nl2/uvyk/lz3z.html?hl=fr> [Azken sarbidea: 15/03/2019].
- EUROPEAN COMMISSION AGAINST RACISM AND INTOLERANCE (ECRI), “ECRI General Policy Recommendation N° 11 on Combating racism and racial discrimination in policing”, *Council of Europe*, Strasbourg, 2007. [Azken sarbidea: 15/03/2019].
- EUROPEAN COMMISSION AGAINST RACISM AND INTOLERANCE (ECRI), “ECRI report on Germany (fifth monitoring cycle)”, *Council of Europe*, Strasbourg, 2014, 50 or. [Azken sarbidea: 15/03/2019].
- EUROPEAN COMMISSION AGAINST RACISM AND INTOLERANCE (ECRI), “ECRI conclusions on the implementation of the recommendations in respect of Germany subject to interim follow-up”, *Council of Europe*, Strasbourg, 2017, 7 or.
- FUNDAMENTAL RIGHTS AGENCY (FRA), “Hate crime recording and data collection practice across de EU”, *Publications Office of the European Union*, Luxemburgo, 2018, 104 or. Online

- sarbidea: <https://fra.europa.eu/en/publication/2018/hate-crime-recording> [Azken sarbidea: 15/03/2019].
- GERMAN INSTITUTE FOR HUMAN RIGHTS, “Implementation of selected OSCE commitments on human rights and democracy in Germany. Independent evaluation report on the occasion of the German OSCE Chairmanship 2016”, *German Institute for Human Rights*, Berlin, 2016, 110 or.
- HER MAJESTY’S INSPECTORATE OF CONSTABULARY (HMIC), “Crime-recording: Making the victim count. The final report of an inspection of crime data integrity in police forces in England and Wales”, *HMIC*, 2014, 126 págs. Online sarbidea: <https://www.justiceinspectors.gov.uk/hmicfrs/wp-content/uploads/crime-recording-making-the-victim-count.pdf> [Azken sarbidea: 15/03/2019].
- LANDA GOROSTIZA, Jon-Mirena, “El mapa de odio en el País Vasco. A la vez una reflexión sobre delitos de odio y violencia política en Euskadi, Catalunya e Irlanda del Norte”, *InDret: Revista para el Análisis del Derecho*, 4. zk., 2018, 29 or.
- LANDA GOROSTIZA, Jon-Mirena, *Los delitos de odio*, Tirant lo Blanch, Valencia, 2018, 152 or.
- LANDA GOROSTIZA, Jon-Mirena/GARRO CARRERA, Enara (Zuz.), *Delitos de odio: derecho comparado y regulación española*, Tirant lo Blanch, Valencia, 2018, 323 or.
- NATIONAL POLICING IMPROVEMENT AGENCY, “The national standard for incident recording (NSIR 2011), Instructions for Police Forces in England and Wales”, *Home Office*, 2011, 34 or. Online sarbidea: [https://assets.publishing.service.gov.uk/government/uploads/system/uploads/attachment\\_data/file/116658/count-nsir11.pdf](https://assets.publishing.service.gov.uk/government/uploads/system/uploads/attachment_data/file/116658/count-nsir11.pdf) [Azken sarbidea: 15/03/2019].
- OFFICE FOR STATISTICS REGULATION, “Code of Practice for Statistics: Ensuring official statistics serve the public”, *UK Statistics Authority*, 2018, 38 p. Online sarbidea: <https://www.statisticsauthority.gov.uk/wp-content/uploads/2018/02/Code-of-Practice-for-Statistics.pdf> [Azken sarbidea: 15/03/2019].

## IRUDIEN AURKIBIDEA

1. Irudia Gorroto gertakarien bilakaera 2016-2018 .....	8. or.
2. Irudia Gorroto delituen bilakaera 2016-2018 .....	8. or.
3. Irudia Delituen banaketa kolektiboaren arabera (2018) .....	9. or.
4. Irudia Gorroto delituen bilakaera kategoriaz (2016-2018).....	10. or.
5. Irudia Delituen banaketa agertokiaren arabera .....	10. or.
6. Irudia Delituen banaketa hilabetero (2018) .....	11. or.
7. Irudia Delituen banaketa astero (2018) .....	11. or.
8. Irudia Delituen banaketa orduaren arabera.....	12. or.
9. Irudia Delituen banaketa lurralde historikoaren arabera (2018).....	12. or.
10. Irudia Delituen banaketa udalerrri mailan .....	13. or.
11. Irudia Arrazismo/xenofobia delituen banaketa jatorriko lurralde historikoaren arabera (2018).....	14. or.
12. Irudia Sexu-orientazio/identitatearen kontrako delituen banaketa jatorriko lurralde historikoaren arabera (2018) .....	15. or.
13. Irudia Arau-hauste administratiboak lurralde historikoaren arabera (2018)	
14. Irudia Ikertuak jatorrizko herrialdearen arabera (2018) .....	16. or.
15. Irudia Ikertuak jatorriko lurralde historikoaren arabera (2018).....	17. or.
16. Irudia Ikertuak jatorriko udalerrriaren arabera Euskadin.....	18. or.
17. Irudia Ikertuen adina (2018) .....	18. or.
18. Irudia Atxilotuen perfil demografikoa (2018) .....	19. or.
19. Irudia Atxilotuen adina (2018) .....	19. or.
20. Irudia Atxilotuak jatorriko eskualde edo lekuaren arabera (2018) .....	19. or.
21. Irudia Biktimak jatorriko lurraldearen arabera (2018) .....	20. or.
22. Irudia Biktimak jatorriko lurralde historikoaren arabera (2018).....	21. or.
23. Irudia Biktimak jatorriko udalerrriaren arabera (2018) .....	22. or.
24. Irudia Biktimen adina (2018) .....	23. or.
25. Irudia Delitu-tipologiak .....	24. or.

## I. ERANSKINA: PRENTSAN AGERTUTAKO KASU NABARMENAK (2018). Kasuen laburpena babestutako kategoriaren arabera.

### ARRAZAKERIA ETA XENOFOBIA

- Hiru turkiar marinelei eraso Bermeon
- Erasoak ijito etniako familiari, ‘Los Pichis’ izenez ezaguna, Vitoria-Gasteizen
- Txanodunen erasoak etorkinei Bilboko Errekalde auzoan

### IDEOLOGIA / JOERA POLITIKOA

- Ikasle bati eraso UPV/EHUko Arabako Campusean ustez “Espainiako batasunaren” aldeko elkarte bat sortu nahi izanagatik
- Presoei ongietorria egiteko ekitaldiekin edo haien oroimenean egindako pintadekin edo haien egoerari buruzko Tiko programekin lotutako kasuak, Covitek edo PPK salatutakoak
- Gabriel haur gaixo eta zezenzalea ustez mehatxatu eta iraindu zuten tuitlarien kontrako prozesuak
- Terrorismoz eta Guardia Zibila gorrotatu izanaz leporatutako Altsasuko gazteen kasua
- Rap-kantariei zigorrak terrorismoa gorestegatik

### SINESMENAK / ERLIJIOA

- “Hontzak” taldearen txosnaren kasua errito katolikoei egindako umore satirikoagatik

### SEXU-ORIENTAZIOA / IDENTITATEA

- Tokian-tokiko jaietan homofobiazko erasoen kasua

### DESGAITASUNA / ANIZTASUN FUNTZIONALA DUTEN PERTSONAK

Ez da kategoria honekin lotutako nabarmendutako albisterik topatu

### APOROFOBIA

- Etxegabe bati eraso Bilbon

## **1. ARRAZAKERIA ETA XENOFOBIA**

- 1.1. “Los Pichis familiak dio bere kideetako inork ez duela Otxarkoagako hilketarekin zerikusirik”
“Sentencia de conformidad nº 10/1, dictada del Juzgado de lo Penal nº 2 de Bilbao de 25 de enero de 2017: En este caso, el encausado con actitud violenta, increpó a la víctima con expresiones como “vete a tu país”, “este no es tu país fuera de aquí, vete”, “por mis cojones que te vas a ir” a la vez que le zarandeaba y empujaba, añadiendo “ese gilipollas, de negro, no tiene que estar aquí y se tiene que ir a su puto país”, “no tienes que estar aquí hijo de puta, vete a tu país”. Y fue condenado por un delito de xenofobia.”

“Sentencia. nº 195/17 de conformidad, dictada del Juzgado de lo Penal nº 3 de Bilbao de 27 de junio de 2017: En un momento, en el interior de un bar, la víctima, rozó el muslo al acusado ante lo cual éste manifestó “yo no soy maricón”, a lo que la víctima contestó “pero si homófobo”, procediendo el encausado con ánimo de atentar contra la integridad física de la víctima a propinarle un fuerte puñetazo en la cara, causándole lesiones. Se consideraron los hechos constitutivos de un delito de lesiones del art. 147.1 del C. Penal.”

**3. “Delitos de cualquier otra naturaleza cuando la acción ilícita se lleve a efecto por motivos racistas, antisemitas, o por otra clase de discriminación derivada de la ideología, religión o creencias de la víctima, o bien en atención a la etnia, raza o nación a la que pertenezca o por su sexo, orientación sexual, enfermedad o discapacidad, así como delitos cometidos contra personas que viven por debajo del umbral de la pobreza, que vienen denominándose como *aporofobia*, dando lugar a la aplicación de la agravante prevista en el artículo 22.4 del C Penal.”**

En Bizkaia consta la aplicación de esta agravante en dos escritos de calificación de la fiscalía y en dos sentencias.

En Gipuzkoa no consta el número de calificaciones en que se ha apreciado, pero “[r]eseña el Fiscal, que en los escritos de calificación formulados en Gipuzkoa, su mayoría han supuesto la aplicación de la agravante del art 22.4 del CP, al no constar en la investigación realizada datos que con lleven a una aplicación del art 510.2 o del art 173 del CP (...)”.

No hay datos sobre Álava.

**4. “Delitos de amenazas a grupos determinados de personas previstos y penados en el artículo 170.1 del CP”**

No consta actividad en los juzgados y fiscalías de Euskadi en 2017.

**5. “Delitos de tortura por razones basadas en alguna forma de discriminación previstos y penados en el artículo 174. 1º inciso segundo del CP”**

No consta actividad en los juzgados y fiscalías de Euskadi en 2017.

**6. “Delitos contra la integridad moral previstos y penados en el artículo 173.1 del Penal, cuando el trato degradante, menoscabando gravemente la integridad moral o las acciones hostiles o humillantes a que se refiere el citado precepto tengan su origen, entre otras causas, en razones discriminatorias basadas en la ideología, religión, raza, nacionalidad, orientación sexual, o enfermedad de la víctima o en motivos de igual naturaleza”**



En los Territorios Históricos de Gipuzkoa y Álava, no consta tramitación de ningún procedimiento por delitos del artículo 173.1 del CP.

#### 6.1. Escritos de acusación de las Fiscalías Provinciales

Consta un escrito de acusación de la Fiscalía Provincial de Bizkaia:

“PAB 3531/14 del Juzgado de Instrucción nº10 de Bilbao: Los hechos fueron calificados como un delito contra la integridad moral previsto y penado en el artículo 173.1 del C. Penal (delito cuya regulación no ha sufrido modificación alguna). Un delito de lesiones psíquicas previsto y penado en el artículo 147.1 del C. Penal (vigente en el momento de realizar la presente calificación). Una falta de lesiones prevista y penada en el artículo 617 del C. Penal (vigente en el momento de los hechos). Así mismo se aplicó la agravante [del] artículo 22.4 del C. Penal (discriminación por razón de sexo) (...)”.

En un procedimiento en Gipuzkoa, la Fiscalía Provincial ha calificado uno de los hechos como constitutivo del delito del 510.2 a) CP, y subsidiariamente del 173.1 del CP.

#### 6.2. Sentencias dictadas

Consta una única sentencia en Bizkaia, en el marco del procedimiento al que pertenece el escrito de acusación enunciado en las líneas anteriores.

“Sentencia nº 377/17 de 30 de diciembre de 2017 dictada por el Juzgado de lo Penal nº 3 de Bilbao en su Causa 277/17: De la prueba practicada en el plenario y con especial referencia al testimonio de la víctima, el acusado prevaliéndose de su cargo y de la posición jerárquica que ostentaba en la empresa de su titularidad con respecto a la denunciante, profería a aquella continuas descalificaciones y humillaciones... creando el acusado a raíz de su comportamiento un ambiente de trabajo tenso en relación a la denunciante, trato humillante y vejatorio, con gritos, comentarios de alto contenido sexual, tocamientos, y con amenazas constantes de despido si la víctima se quejaba de dicho trato, que generó en la misma un estado de ansiedad, llegando a padecer un trastorno ansioso-depresivo que requirió tratamiento psicológico y psiquiátrico precisando para su sanidad 84 días improductivos para sus ocupaciones habituales, sin secuelas. Los hechos enjuiciados y declarados probados son legalmente constitutivos de un delito contra la integridad moral, art. 173.1 C. Penal, de un delito de lesiones psíquicas, art. 147.1 C. Penal y de una falta de lesiones, art. 617.1 C. Penal derogado por L.O. 1/2015 siendo de aplicación la Disposición Transitoria Cuarta de la L.O. 1/2015. Y se solicitó a aplicación de la circunstancia agravante prevista en el art. 22.4 C. Penal, discriminación por razón de sexo en su redacción anterior a la L.O. 1/2015, pero esta circunstancia no se aplicó en sentencia, por entender que no se había probado suficientemente.”

### **7. Delitos contra los sentimientos religiosos previstos y penados en los artículos 522 a 525 del C. Penal.**

Consta un procedimiento incoado en Bizkaia; ninguno en Gipuzkoa y Álava.

“DIP (Diligencias previas) nº 969/17 del Juzgado de Instrucción nº 3 de Bilbao: En fecha 19 de agosto 2017 se presentó denuncia por un particular y representante de la Iglesia Católica, en relación al decorado de una Txosna situada dentro del recinto festivo, en dicho decorado bajo el título “Carnicerías Vaticanas” aparecía un Jesucristo en el cual se señalan las distintas partes del cuerpo como si de un animal despiezado se tratara, apareciendo además rodeado de todo

tipo de embutidos y con la frase “hartzazu eta jan guztiok hontatik. Hau nire gorputza data (“tomada y comed, que este es mi cuerpo “). En fecha 20 de agosto de 2017 se dictó por el Juzgado en funciones de guardia, auto acordando incoar Diligencias previas y la medida cautelar de retirada de los carteles de las txosnas que hagan referencia a Jesucristo, así como el título Carnicerías Vaticanas.

Por los investigados se interesó el Sobreseimiento al entender que el contenido del decorado se enmarca dentro de un entorno festivo y el mismo tendría una finalidad de sátira social y política, todo ello dentro del marco de la libertad de expresión. Actualmente se encuentra en fase de resolución por la Audiencia Provincial ante el recurso de apelación interpuesto por el Fiscal, al haber aceptado el Juez Instructor la tesis de la defensa.”

## 8. “Delitos de discriminación en el empleo público o privado previsto y penado en el artículo 314 del C. Penal”

Consta un procedimiento judicial incoado en Bizkaia; ninguno en Gipuzkoa y Álava.

“DIP (Diligencias previas) nº 1297/16 del Juzgado de Instrucción nº 8 de Bilbao: Aunque los denunciante, trabajadores, en su escrito de denuncia invocaban este delito entendiendo que el despido de los mismos se llevó a cabo por los responsables de la empresa en la que trabajaban debido a su condición de miembros de un sindicato, y aunque el Juzgado incoó las Diligencias Previas por este delito, durante la instrucción se ha comprobado que en modo alguno el despido tuvo por motivos discriminatorios.”

## 9. “Delitos de denegación de prestaciones públicas y privadas previstos y penados en el artículo 511 y 512 del C. Penal”

No consta actividad en los juzgados y fiscalías de Euskadi en 2017.

### Síntesis CAPV

Partiendo de los datos presentados por la Fiscalía Superior del País Vasco arriba indicados, se ha elaborado la siguiente síntesis estadística:

#### 1. Procedimientos incoados

Tipo delictivo <sup>46</sup>	Bizkaia	Gipuzkoa	Álava
Amenazas a grupos determinados. Art. 170.1	–	–	–
Tortura por discriminación. Art. 174	–	–	–
Discriminación empleo. Art. 314	1	–	–
Provocación odio/violencia/discriminación. Art. 510.1	1	4	–
Difusión información injuriosa. Art. 510.2	4	2	–
Denegación prestaciones. Art .511-512	–	–	–
Asociación ilícita para discriminación. Art. 515-5.º	1	–	–

<sup>46</sup> Por coherencia con el apartado siguiente, se emplean las mismas descripciones de los tipos empleadas por la Fiscalía General del Estado en su Memoria del 2018

Contra sentimientos religiosos. Art. 522-525	1	—	—
Justificación genocidio. Art. 607.2	—	—	—
Contra integridad moral. Art. 173.	—	—	—
Delitos con agravante. Art. 22.4.º	—	—	—
Otros	—	—	—
Total Territorios Históricos	7	6	0
Total CAPV	13		

## 2. Diligencias de investigación abiertas por las Fiscalías Provinciales

Tipo delictivo	Bizkaia	Gipuzkoa	Álava
Amenazas a grupos determinados. Art. 170.1	—	—	—
Tortura por discriminación. Art. 174	—	—	—
Discriminación empleo. Art. 314	—	—	—
Provocación odio/violencia/discriminación. Art. 510.1	1	3	2
Difusión información injuriosa. Art. 510.2	1	1	—
Denegación prestaciones. Art .511-512	—	—	—
Asociación ilícita para discriminación. Art. 515-5.º	—	—	—
Contra sentimientos religiosos. Art. 522-525	—	—	—
Justificación genocidio. Art. 607.2	—	—	—
Contra integridad moral. Art. 173.	—	—	—
Delitos con agravante. Art. 22.4.º	—	—	—
Otros	—	—	—
Total Territorios Históricos	2	4	2
Total CAPV	8		

## 3. Escritos de acusación de las Fiscalías Provinciales

Tipo delictivo	Bizkaia	Gipuzkoa	Álava
Amenazas a grupos determinados. Art. 170.1	—	—	—
Tortura por discriminación. Art. 174	—	—	—
Discriminación empleo. Art. 314	—	—	—
Provocación odio/violencia/discriminación. Art. 510.1	—	—	—
Difusión información injuriosa. Art. 510.2	2	—	—
Denegación prestaciones. Art .511-512	—	—	—
Asociación ilícita para discriminación. Art. 515-5.º	—	—	—
Contra sentimientos religiosos. Art. 522-525	—	—	—
Justificación genocidio. Art. 607.2	—	—	—
Contra integridad moral. Art. 173.	1	—	—
Delitos con agravante. Art. 22.4.º	2	*	—
Otros	—	—	—
Total Territorios Históricos	5	*	0
Total CAPV	5*		

\* No consta el número concreto de escritos de acusación en que se ha empleado la agravante del 22.4, de ahí que no se pueda establecer el cómputo total en Gipuzkoa y, por tanto, en la CAPV.

#### 4. Sentencias dictadas

Tipo delictivo	Bizkaia	Gipuzkoa	Álava
Amenazas a grupos determinados. Art. 170.1	–	–	–
Tortura por discriminación. Art. 174	–	–	–
Discriminación empleo. Art. 314	–	–	–
Provocación odio/violencia/discriminación. Art. 510.1	–	–	–
Difusión información injuriosa. Art. 510.2	2	–	–
Denegación prestaciones. Art .511-512	–	–	–
Asociación ilícita para discriminación. Art. 515-5.º	–	–	–
Contra sentimientos religiosos. Art. 522-525	–	–	–
Justificación genocidio. Art. 607.2	–	–	–
Contra integridad moral. Art. 173.	1	–	–
Delitos con agravante. Art. 22.4.º	2	–	–
Otros	–	–	–
Total Territorios Históricos	5	0	0
Total CAPV	5		

## ESPAÑA

Se reproducen a continuación los datos correspondientes a la actividad de los juzgados y fiscalías de España en materia de delitos de odio y de discriminación en el año 2017, tal y como se recogen en la Memoria de la Fiscalía General del Estado del año 2018<sup>47</sup>.

<sup>47</sup>Apartado dedicado a la “Estadística” (12.6) dentro Capítulo III, apartado 12. *Delitos de odio y contra la discriminación*, pp. 831-832

**1. Procedimientos judiciales sobre los cuales la Fiscalía hace un seguimiento:**

Amenazas a grupos determinados. Art. 170.1 . . . . .	32
Tortura por discriminación. Art. 174 . . . . .	–
Discriminación empleo. Art. 314 . . . . .	2
Provocación odio/violencia/discriminación. Art. 510.1. . . . .	89
Difusión información injuriosa. Art. 510.2 . . . . .	220
Denegación prestaciones. Art .511-512 . . . . .	35
Asociación ilícita para discriminación. Art. 515-5.º . . . . .	1
Contra sentimientos religiosos. Art. 522-525 . . . . .	14
Justificación genocidio. Art. 607.2. . . . .	–
Contra integridad moral. Art. 173.1 . . . . .	31
Delitos con agravante. Art. 22.4.º . . . . .	271
Otros. . . . .	114
Total . . . . .	809

**2. Diligencias de investigación abiertas en Fiscalía:**

Amenazas a grupos determinados. Art. 170.1 . . . . .	6
Tortura por discriminación. Art. 174 . . . . .	–
Discriminación empleo. Art. 314 . . . . .	–
Provocación odio/violencia/discriminación. Art. 510.1. . . . .	101
Difusión información injuriosa. Art. 510.2 . . . . .	75
Denegación prestaciones. Art .511-512 . . . . .	12
Asociación ilícita para discriminación. Art. 515-5.º . . . . .	–
Contra sentimientos religiosos. Art. 522-525 . . . . .	5
Justificación genocidio. Art. 607.2. . . . .	–
Contra integridad moral. Art. 173.1 . . . . .	4
Delitos con agravante. Art. 22.4.º . . . . .	43
Otros. . . . .	1
Total . . . . .	247

**3. Escritos de acusación formulados por Fiscalía:**

Amenazas a grupos determinados. Art. 170.1 . . . . .	–
Tortura por discriminación. Art. 174 . . . . .	–
Discriminación empleo. Art. 314 . . . . .	–
Provocación odio/violencia/discriminación. Art. 510.1. . . . .	14
Difusión información injuriosa. Art. 510.2 . . . . .	52
Denegación prestaciones. Art .511-512 . . . . .	5
Asociación ilícita para discriminación. Art. 515-5.º . . . . .	4
Contra sentimientos religiosos. Art. 522-525 . . . . .	3
Justificación genocidio. Art. 607.2. . . . .	2
Contra integridad moral. Art. 173.1 . . . . .	21
Delitos con agravante. Art. 22.4.º . . . . .	52
Otros. . . . .	–
Total . . . . .	153

**Sentencias:****4.**

Amenazas a grupos determinados. Art. 170.1 . . . . .	–
Tortura por discriminación. Art. 174 . . . . .	–
Discriminación empleo. Art. 314 . . . . .	–
Provocación odio/violencia/discriminación. Art. 510.1. . . . .	29
Difusión información injuriosa. Art. 510.2 . . . . .	18
Denegación prestaciones. Art .511-512 . . . . .	2
Asociación ilícita para discriminación. Art. 515-5.º . . . . .	–
Contra sentimientos religiosos. Art. 522-525 . . . . .	1
Justificación genocidio. Art. 607.2. . . . .	–
Contra integridad moral. Art. 173.1 . . . . .	21
Delitos con agravante. Art. 22.4.º . . . . .	30
Otros. . . . .	2
Total . . . . .	103

## **1. MUGAPEN TERMINOLOGIKO ETA METODOLOGIKOA**

Jarraian, lehenik eta behin grafiko batean eta ondoren argumentu-egituran azaltzen da zer kategoria babestu dauden halako gertakarietan; aldi berean, horien harira aplikatu beharreko legezko manuen berri ematen da labur-labur. Aurkezpen honen asmoa, nagusiki, terminologiako esparrua finkatzea da, azterlanari homogeneotasuna, zehaztasuna eta argitasuna emateko. Era berean, labur azaldu nahi da zer oinarri metodologiko erabili diren txostena aurrera eramateko.

### **1.1. Sailkatzeko proposamenak**

#### *1.1.1. Babestutako kategoriak*



<b>I. BLOKEA</b>
<b>KOLEKTIBO ETKNIKOA / KOLEKTIBO ARRAZISTA ETA XENOFOBOA</b>
<b>I. TALDEA</b> ARRAZA / ETNIA EDO «IZAERA ETNIKOA» (JATORRIA, IDENTITATEA EDO TALDE ETNIKOA) / NAZIONALITATEA
<i>Arabiarra</i>
<i>Asiarra</i>
<i>Beltza</i>
<i>Zuria</i>
<i>Latinoa</i>
<i>Beste arraza / jatorri etniko bat</i>
<i>Ijitoa</i>
<i>Nazioa edo jatorri nazionala</i>
<b>II. TALDEA</b> IDEOLOGIA ETA JOERA POLITIKOA
<b>III. TALDEA</b> ERLIJIOA ETA SINESMENAK
<i>Islamiarra (musulmana)</i>
<i>Kristaia</i>
<i>Beste erlijio batzuk</i>
<i>Ateoa edo agnostikoa</i>
<i>Antisemitismoa</i>
<b>II. BLOKEA</b>
<b>KOLEKTIBO SEXUALA</b>
<b>IV. TALDEA</b> SEXU-ORIENTAZIOA
<i>Gaya</i>
<i>Lesbiana</i>
<i>Heterosexuala</i>
<i>Transexuala</i>
<i>Intersexuala</i>
<i>LGTBI taldea (talde mistoa)</i>
<b>V. TALDEA</b> SEXU-IDENTITATEA
<b>VI. TALDEA</b> GENEROA
<i>Gizonezkoa</i>
<i>Emakumezkoa</i>
<b>VII. TALDEA</b> GENERO-IDENTITATEA



<b>III. BLOKEA</b>
<b>BESTE KOLEKTIBO BATZUK</b>
<b>VIII. TALDEA</b> GAIXOTASUNA ETA DESGAITASUNA / ANIZTASUN FUNTZIONALA DUTEN PERTSONAK
<b>IX. TALDEA</b> ADINA
<b>X. TALDEA</b> APOROFOBIA EDO EGOERA SOZIOEKONOMIKOA
<b>XI. TALDEA</b> FAMILIA-EGOERA

### ***1.1.2. Gorroto- eta diskriminazio-delituen erregulazioa araudian***

**GORROTO-DELITUAK**

*I. Stricto sensu manuak*

- ZKren 22.4 art.
- ZKren 170.1 art.
- ZKren 174. art.
- ZKren 510. eta 510 bis art.
- ZKren 515.4 art.

*II. Manu osagarriak edo funtzionalak*

- ZKren 160.3 art.
- ZKren 173.1 art.
- ZKren 197.5 art.
- ZKren 522-526. art.
- ZKren 607. art.
- ZKren 607 bis art.
- ZKren 611.6 art.

**DISKRIMINAZIO-DELITUAK**

- ZKren 314. art.
- ZKren 511. art.
- ZKren 512. art.

## GORROTO- ETA DISKRIMINAZIO-DELITUEN ARAUDI PENALA

### I. GORROTO-DELITUAK

#### 1.1. Stricto sensu manuak

- **ZKren 22.4 art.** [astungarria oro har bereizkeria dela-eta egiten bada]
- **ZKren 170.1 art.** [kolektibo bat beldurtzeko asmoa duen mehatxu delitua]
- **ZKren 174 art.** [bereizkeria dela-eta torturatzea]
- **ZKren 510. art.** [gorrotoa, bereizkeria edo indarkeria eragiteagatiko delitua] eta **ZKren 510.bis art.** [pertsona juridikoen erantzukizun penala]
- **ZKren 515.4 art.** [zilegi ez diren bilerak egitea, horrez gainera diskriminazioa, gorrotoa edo indarkeria eragiten edo sustatzen bada]

#### 1.2. Manu osagarriak edo funtzionalak

- **ZKren 160.3 art.** [ugaltzeko gizakiak klonatzea eta arrazaren hautespena]
- **ZKren 173.1 art.** [tratu apalesgarria]
- **ZKren 197.5 art.** [datu pertsonal bereziki kontuzkoei eragiten dieten sekretuak azaleratu eta jakitera ematea]
- **ZKren 522-526 art.** [kontzientzia askatasunaren, erlijio-askatasunaren eta hildakoekiko errespetuaren aurkako delituak:
  - a) erlijio- edo gurtza-askatasuna baliatzearekin lotutako jokabideak (ZKren 522 eta 523 artikulua).
  - b) erlijiozko sentimenduak ofenditzen dituzten donauste-egintzak gauzatzea (ZKren 524. art.).
  - c) erlijio- edo gurtza-askatasunarekin lotutako eskarnio-jokabideak (ZKren 525. art.).
  - d) hobiak nahiz hilobiak bortxatzea eta gorpuak donaustea (ZKren 526. art.)]
- **ZKren 607. art.** [genozidio-delituak]
- **ZKren 607.bis art.** [gizateriaren aurkako delituak]
- **ZKren 611.6 art.** [gatazka armatua dagoenean, babespeko pertsonen duintasuna laidozten dituzten jokaera anker eta apalesgarriak egitea]

### II. DISKRIMINAZIO-DELITUAK

- **ZKren 314. art.** [laneko diskriminazio-delitua]
- **ZKren 511. art.** [prestazio publikoa diskriminazioz ukatzeagatiko delitua]
- **ZKren 512. art.** [laneko edo enpresako prestazioa diskriminazioz ukatzeagatiko delitua]

## GORROTO- ETA DISKRIMINAZIO-DELITUEN ADMINISTRAZIO-ARAUDIA

19/2007 Legea, uztailaren 11koa, kirol-ikuskizunetan egon daitekeen indarkeria, arrazakeria, xenofobia eta intolerantziaren aurkakoa [2007ko uztailaren 12ko BOE, 166. zk, 29946-29964. or.].

10/2015 Legea, abenduaren 23koa, Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jarduerena [2016ko urtarrilaren 7ko EHAA, 3. zk.].

## 1.2. Kategoriaren arabera sailkapenari buruzko jarrera eta azalpena

---

### 1.2.1. Sailkapen terminologikoaren konparaziozko erreferenteak

Jarraian datorren atalak gorroto-gertakarietan babestutako kategoriei buruzko terminologia mugatzen du, Ertzaintzak emandako datu-baseetan jasotako estatistika-informaziotik abiatuta.

Hala ere, beharrezkoa izan den heinean, informazio gehigarria atera da hiru kontzeptu-esparru edo erreferentzia-puntutatik. Lehenik eta behin, AEBko 1990eko *Hate Crime Statistics Act* (HCSA) legetik, baita haren gida edo azalpenerako eskuliburu berrietik ere; hau da, *Hate Crime Data Collection Guidelines and Training Manual (2015)*<sup>2</sup> izenekotik. Estatu Batuetan kriminalitate mota horri buruzko informazioa bildu eta argitaratzeko eskatu zuen lehen lege federaltzat hartu ohi da HCSA. Bigarrenik, estatuko zigor-araudiari erreparatuko zaio, zehazki, Zigor Kodearen 22.4 eta 510. artikuluei. Ikuspegia bi artikulua zehatzetara mugatzeak, terminologia-garapenari dagokionez, zerikusia du esku hartzeko bi ardatz handiren inguruan mamitzen den erantzun politiko-kriminalarekin: batetik, gorrotoa dela-eta zigorra astuntzea eta, bestetik, gorroto-diskurtsoa zigortzea. Legegintzako bi joera horiek bat egiten dute gure Zigor Kodean eta, beraz, joera horien erakusgarri handienak dira ZKren 22.4 eta 510. artikulua<sup>3</sup>. Baina artikulua horiek intolerantziaren aurkako zigor-araudiaren ardatz nagusiak izateak ez du agortzen helburu horretarako xedatu diren artikulua guztien multzoa. Are gehiago, Zigor Kodearen artikulua guztien artetik, artikulua horien idazketan ikus daitezke babestutako taldeen kategoriaren arabera zerrenda zabal eta osoenak; beraz, babestutako kategorien uniformetasun-falta tarteko, zentzua du atal honetan manu horiei buruzko azterketa egitea.

Arestian adierazitako guztia gorabehera, hala dagokionean aipamen osagarriak egingo zaizkio Espainiako Gorroto Delituekin lotutako Gertakarien Bilakaeraren gaineko Txostenari; Barne Arazoetako Ministerioak egina, txostena 2017ko ekainaren 8an atera zen argitara<sup>4</sup>. Jarraian agertzen den grafikoak ikuspegi panoramiko batean jaso ditu aipatu diren iturrietako terminologian dauden diferentzia nagusiak.

---

<sup>2</sup> LAW ENFORCEMENT SUPPORT SECTION (LESS); CRIME STATISTICS MANAGEMENT UNIT (CSMU), «Hate crime data collection», 68. or.

<sup>3</sup> LANDA GOROSTIZA, *Los delitos de odio, passim*.

<sup>4</sup> BARNE ARAZOETAKO MINISTERIOA, «Informe sobre la evaluación», 13. or.

HATE CRIME STATISTICS	ERTZAINZA	ZIGOR KODEA (1995)
<b>SINGLE-BIAS INCIDENTS</b>		
<b>RACE / ETHNICITY / ANCESTRY</b>	<b>ARRAZAKERIA ETA XENOFOBIA</b>	<b>ARRAZOI ARRAZISTAK: ETNIA, ARRAZA, NAZIOA, JATORRI NAZIONALA</b>
Anti-White	Zuria	
Anti-Black or African American	Beltza	
Anti-American Indian or Alaska Native		
Anti-Asian	Asiarra	
Anti-Native Hawaiian or Other Pacific Islander		
Anti-Multiple Races, Group		
Anti-Arab	Arabiarra	
Anti-Hispanic or Latino		
Anti-Other Race/Ethnicity/Ancstry	Arraza/Etnia (zehaztu gabe)	
	Ijitoa	

RELIGION	ERLIJIOA	ERLIJIOA EDO SINESMENAK
Anti-Jewish		
Anti-Catholic		
Anti-Protestant		
Anti-Islamic (Muslim)	Islamofobia	
Anti-Other Religion	Beste erlijio batzuk	
Anti-Multiple Religions, Group		
Anti-Mormon		
Anti-Jehovah's Witness		
Anti-Eastern Orthodox (Russian, Greek, Other)		
Anti-Other Christian	Kristauen aurkakoa	
Anti-Buddhist		
Anti-Hindu		
Anti-Sikh		
Anti-Atheism/Agnosticism/etc.		

SEXUAL ORIENTATION	SEXU-ORIENTAZIOA / -IDENTITATEA	SEXU-ORIENTAZIOA EDO -IDENTITATEA
Anti-Gay (Male)		
Anti-Lesbian		
Anti-Lesbian, Gay, Bisexual or Transgender (Mixed Group)		
Anti-Heterosexual		
Anti-Bisexual		

DISABILITY	DESGAITASUNA ETA GAIXOTASUNA	GAIXOTASUNA EDO DESGAITASUNA
Anti-Physical		
Anti-Mental		

GENDER IDENTITY		GENERO-ARRAZOIAK
Anti-Transgender		
Anti-Gender Non-Conforming		

	SEXUA <i>*Gaur egun jasotzen ez den markatzailea</i>	SEXUA

	ANTISEMITISMOA	ARRAZOI ANTISEMITAK

	JOERA POLITIKOA, IDEOLOGIA	IDEOLOGIA

	POBREZIA ETA APOROFOBIA	

	ADINA <i>*Oraindik ez da operatiboa.</i>	

		FAMILIA-EGOERA
<b>MULTIPLE-BIAS INCIDENTS</b>		

Azkenik, jaso diren gorroto-gertakariak zenbatzeko garaian, garrantzitsua da zehaztea Ertzaintzak kasu zehatz batean gehienez ere aldi berean bi markatzaile gertatzeko aukera baliatzen duela soilik (adibidez, homosexuala eta desgaitasun edo aniztasun funtzionala duen norbait). FBIk, aldiz, ez du jartzen muga kuantitatiborik, baina kualitatiboak jartzen ditu; izan ere, ez du zehazten zer motibazio zehatz gertatzen diren aurreiritzi anizkunagatiko gertakarien kasuetan. Etorkezunean bi estandarrak gainditzeko asmoa du txostenak. Biktima batek babestutako ezaugarri bat baino gehiago agertzen baditu, hura biktimizatzeke probabilitatea ere handitzen da; izan ere, areagotu egiten da aurreiritzi baten baino gehiagoren aurrean duen ikusgaitasuna eta esposizio publikoa. Hau da, biktimarentzat zailagoa da gizartean nahastea, eta horrek kalteberago bihurtzen du. Zalantzarik gabe, asko dago hobetzeko interseksionalitatearen auzian eta uneotan ezin zaio bere hedadura osoan heldu, txostenak berez dituen mugak direla eta.

Halaber, ongi dakigu ezen, poliziaren ikuspegitik, zenbat eta handiago izan babestutako kategorien kopurua, orduan eta zailagoa dela horiek behar bezala identifikatzea. Kolektiboak hedatzeak biktimen konfiantza eta haiekiko lankidetzaren mailak beheratu ditzake; izan ere, batzuei iruditu dakieke ez dela behar bezala kontuan hartzen haiei eragiten dien gertakaria. Hala ere, gorroto-gertakarietan, biktimaren aldeko eta ukitutako kolektiboen babeseko ikuspegitik egingo dugu hurbilketa; beraz, poliziaren instantziak hauteman eta monitorizatu egin behar du komunitate jakin batzuetan agertzen den gorroto edo etsaikeria. Ezinbestekoa da biktimarekin elkarlanean jardutea eta, horretarako, giza eskubideak erabili eta baliatzea lehenetsiko eta maximizatuko duen diseinu operatiboak egon behar du arreta-foku nagusiaren ardatz-gunean. Hortaz, ikus daiteke kasu honetan ez dela babestutako kategorien zerrenda itxi-zurruna nagusitu; aitzitik, EAEn hautemandako talde kaltebera guztien babesaren barne hartzea da bokazioa. Era berean, aurreiritzi-eredu historikoetan ere adierazten da kalteberatasun hori, eta, egunerokoan eskala txikian gauzatzen badira ere (adibidez, mikro-matxismoak), guztiak metaturik eta mendetako menderaldiaren testuinguruan hartzen badira aintzat, eragin nabarmena dute biktimaren eta komunitatearen beraren gainean.

### 1.2.2. Kategorien proposamena: azalpen orokorra

I. BLOKEA
KOLEKTIBO ETKNIKOA / KOLEKTIBO ARRAZISTA ETA XENOFOBOA
I. TALDEA ARRAZA / ETNIA EDO «IZAERA ETNIKOA» (JATORRIA, IDENTITATEA EDO TALDE ETNIKOA) / NAZIONALITATEA
Arabiarra
Asiarra
Beltza
Zuria
Latinoa
Beste arraza / jatorri etniko bat
Ijitoa
Nazioa edo jatorri nazionala

Txosten honetarako, *Hate Crime Statistics Act* (HCSA) legean erabilitako «*ethnicity*» terminoa «etnia» gisa edo «etnizitate» gisa itzuliko da aurreratzean; nolahi ere, elementu hauetako batekin identifikatuko da: «jatorri etnikoa», «identitate» edo «talde etnikoa»<sup>5</sup>. Dena dela, FBIk *Hate Crime Data Collection Guidelines and Training Manual* (2015) eskuliburua jarri du ulermena errazteko, eta bertan definizio operatiboak jaso dira gorrotoan oinarritutako gertakariak biltzeko.

Arrazazko aurreiritziari dagokionez, honela definitzen da: «giza talde baten aurkako iritzia edo jarrera izatea aldez aurretik, ondorengotzaz edo herentziaz jasotako ezaugarri fisiko komunak izateagatik –adibidez, azalaren, begien eta/edo ilearen kolorea, aurpegiera, eta abar–, ezaugarriok talde hori gizatasunaren atal desberdintzat bereizten dituelakoan: adibidez, asiarrak, beltzak edo afroamerikarrak, zuriak»<sup>6</sup>. Aurreiritzi etnikoari dagokionez, honako hau dela ulertzen da: «herentzia beraren bitartez elkarrekin identifikatzen den giza talde baten aurkako iritzi edo jarrera izatea aldez aurretik. Askotan, hizkuntza bera, kultura bera (batzuetan erlijio bera ere) eta/edo jatorri bera azpimarratzen duen ideologia bat izateak osatzen du herentzia hori. Lotura hertsia izan arren, desberdinak dira etnia eta arraza kontzeptuak; izan ere, azken hori irizpide biologikoetan

<sup>5</sup> Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioarekin batera argitaratutako lan batean, definizio honekin lotzen dira lotzen dira «*ethnicity*» eta «izaera etniko» terminoak: «(...) norbaiten identitate kultural eta historikoaren zentzu berezia, jaiotzaz (eta batzuetan, ezkontzaz) talde etniko jakin bateko kide izatea oinarri». DADZIE, *Herramientas contra el racismo en las aulas*, 109. or.

<sup>6</sup> “**Racial Bias**—A preformed negative opinion or attitude toward a group of persons who possess common physical characteristics, e.g., color of skin, eyes, and/or hair, facial features, etc., genetically transmitted by descent and heredity which distinguish them as a distinct division of humankind, e.g., Asians, Blacks or African Americans, whites” [testuko itzulpena geuk egin dugu]. LAW ENFORCEMENT SUPPORT SECTION (LESS); CRIME STATISTICS MANAGEMENT UNIT (CSMU), «Hate crime data collection», 11. or.

oinarritutako taldeei buruzkoa da; aldiz, “etniak” kulturaren arloko faktore gehigarri batzuk ere hartzen ditu barne»<sup>7</sup>. Azkenik, jatorriarekin lotutako aurreiritzia «etnikoaren azpikategoria bat» da; hau da, «giza talde baten aurkako iritzia edo jarrera izatea, aurrez, haien leinua edo etorkia harturik oinarri»<sup>8</sup>. «Arraza» terminoari dagokionez, badakigu ez duela oinarri zientifikorik, baina hori erabiltzen da herritarren artean hedatuena delako. Era berean, nolana ere eraikuntza sozial bat da aipamen hori, eta beraz, praktikoa da datuak biltzeko garaian<sup>9</sup>.

Bestalde, *Hate Crime Data Collection Guidelines and Training Manual* (2015) eskuliburuan gehiago garatu dira arestian definitutako aurreiritzi arrazial eta etnikoen ondorioz babestuta dauden giza talde bereziak. Alderdi horretan, azpikategoria hauek zehazten dira:

---

<sup>7</sup> “**Ethnicity Bias**—A preformed negative opinion or attitude toward a group of people whose members identify with each other, through a common heritage, often consisting of a common language, common culture (often including a shared religion) and/or ideology that stresses common ancestry. The concept of ethnicity differs from the closely related term *race* in that “race” refers to grouping based mostly upon biological criteria, while “ethnicity” also encompasses additional cultural factors” [testuko itzulpena geuk egin dugu]. LAW ENFORCEMENT SUPPORT SECTION (LESS); CRIME STATISTICS MANAGEMENT UNIT (CSMU), «Hate crime data collection», 11. or.

<sup>8</sup> “**Ancestry Bias**—A preformed negative opinion or attitude toward a group of people based on their common lineage or descent” [testuko itzulpena geuk egin dugu]. LAW ENFORCEMENT SUPPORT SECTION (LESS); CRIME STATISTICS MANAGEMENT UNIT (CSMU), «Hate crime data collection», 11. or.

<sup>9</sup> Gainera, praktikotasunetik harago doaz txosten honetan, «arrazakeria» edo «xenofobia» ordez, kategoria zehatz gisa «arraza» erabiltzeko arrazoiak. Arrazakeria eta xenofobia elkarrekin lotuta daude, baina horien azpian arraza datza. Arraza hitzarekin herentziatzko ezaugarri fisiko komunak dituen giza talde naturalari egiten badiogu erreferentzia, orduan, arrazakeria ez da gainjartze logiko baten bidez soilik eratzten, faktore fenotipiko horiek soilik kontuan hartuz. Mutazioen bat izan da, eta ondorioz, arrazakeria berriari edo arrazakeria sotilari buruz hitz egin behar dugu. Beraz, arrazakerian ez dira arraza taldeak (arrazakeria, adiera hertsienean) soilik sartzen: barne hartzen ditu etnia eta kulturak ere. Irekitasunaren aldeko ildo horretan, interesgarriak diren beste batzuekin batera, nabarmengarria da ECRIn 2002ko abenduaren 13ko Politika Orokorrean jasotako 7. gomendioa. Honela definitzen du arrazakeria «(...) *arraza, sexua, kolorea, hizkuntza, erlijioa, nazionalitatea edo jatorri nazional nahiz etnikoa direla eta norbaiten edo norbaitzueganako mespretxua justifikatu daitekeelako ustea*». Beraz, ondoriozta daiteke arrazakeriak hertsiki arrazazkoa –hau da, fenotipikoa– dena gainditzen duela, eta, ezinbestean ez bada ere, hurbileko beste errealitate batzuetan ere bermatzen dela orobat. Eta, arrazakeriaren zeharkakotasuna alde batera utzita ere, gauza jakina da taldearteko nagusitasunarekin edo gutxiegitasunarekin lotzen dela; hau da, beste talde bat mendean hartzeko eskubidearen ustekizuna dakar. Alderdi horretan, egiturazko tasunarekin lotuta dago arrazakeria kontzeptua. Aldiz, esan dezakegu arraza terminoak ez duela horrenbesteko kutsua eta ez dakarrela ez nagusitasun ez gutxiegitasun ideiarik gogora; aitzitik, sailkatzera mugatzen da eta horrenbestez, esku artean dugun txostenerako datuak kudeatzeko beharrezko den eraginkortasuna ematen digu. Laburbilduz, AGUILAR GARCÍA-k ondorioztatu bezala, «arrazakeria, nahiz banakoarena, nahiz instituzionala, sinesmen eta jarrera diskriminatzaileak izatea da, talde bat berez besteak baino gehiago delako ustearen ondorioz». Gehiago sakondu nahi izanez gero, ikus AGUILAR GARCÍA, «Manual práctico para la investigación», 44-48. or.

Aldi berean, ezin dira xenofobia eta arrazakeria nahastu; izan ere, bata arbuiozko sentimendu bat da, nagusitasun ideologia bat baino gehiago. Are gehiago, xenofobia arrotz denaren aurka bideratzen da, dela erreala, dela hautemandakoa (ez ordea arrazakeria). Ezezagun denaren aurkako beldurra, nazka, gorrotoa, etsaitasuna edo arbuioa da –eskuarki, funtsik gabea eta eraikuntza sozial baten ondoriozkoa–. Hau da, atzerriko eragileak dakarren kultur ondarearen kontrakoa (kultura, tradizioak, balioak, eta abar). AGUILAR GARCÍA, «Manual práctico para la investigación», 48. or.

- **Arabiarra** da «jatorriz eta/edo etorkiz, herrialde hauetako arabierako hiztunen ondorengo den norbait: Libano, Siria, Palestina, Jordania, Irak, Saudi Arabia, Yemen, Oman, Arabiar Emirerri Batuak, Qatar, Bahrein, Kuwait, Egipto, Libia, Tunisia, Komoreak, Aljeria, Maroko, Sudan, Djibuti, Mauritania eta Somalia»<sup>10</sup>.
- **Asiarra** da «jatorriz Ekialde Urrunetik, Hego-ekialdeko Asiatik edo Indiako azpikontinentetik –besteak beste, Kanbodia, Txina, India, Japonia, Korea, Malaysia, Pakistan, Filipinak, Thailandia eta Vietnam– datorren norbaiten ondorengo»<sup>11</sup>.
- **Beltza** da «jatorria Afrikako arraza talde beltzetako edozeinetan duen norbait»<sup>12</sup>.
- **Zuria** da «Europako, Ekialde Hurbileko edo Iparraldeko Afrikako jatorrizko jendeetatik datorren edonor»<sup>13</sup>.
- **Latinoa** da «jatorri edo kultura kubatarra, mexikarra, puertorricarra, hegoamerikarra nahiz erdialdeko amerikarra duen edonor, edo beste jatorri edo kultura espainiarra duena, edozein arrazakoa izanik ere (...)»<sup>14</sup>. Badakigu FBIrengandik jasotako definizio partzial horrek kutsu amerikar nabarmena duela; nolana ere, badirudi argi dagoela euskal herritarren iruditeria kolektiboan Latinoamerikarekin zerikusia duen edozerekin lotzen dela kategoria hau.

---

<sup>10</sup> “**Arab**—A person having origins, and/or ancestry, in any of the Arabic speaking peoples of Lebanon, Syria, Palestine, Jordan, Iraq, Saudi Arabia, Yemen, Oman, United Arab Emirates, Qatar, Bahrain, Kuwait, Egypt, Libya, Tunisia, Comoros, Algeria, Morocco, Sudan, Djibouti, Mauritania, and Somalia” [testuko itzulpena geuk egin dugu]. LAW ENFORCEMENT SUPPORT SECTION (LESS); CRIME STATISTICS MANAGEMENT UNIT (CSMU), «Hate crime data collection», 12. or.

<sup>11</sup> “**Asian**—A person having origins in any of the original peoples of the Far East, Southeast Asia, or the Indian subcontinent including, for example, Cambodia, China, India, Japan, Korea, Malaysia, Pakistan, the Philippine Islands, Thailand, and Vietnam” [testuko itzulpena geuk egin dugu]. LAW ENFORCEMENT SUPPORT SECTION (LESS); CRIME STATISTICS MANAGEMENT UNIT (CSMU), «Hate crime data collection», 12. or.

<sup>12</sup> “**Black (...)**—A person having origins in any of the Black racial groups of Africa” [testuko itzulpena geuk egin dugu]. LAW ENFORCEMENT SUPPORT SECTION (LESS); CRIME STATISTICS MANAGEMENT UNIT (CSMU), «Hate crime data collection», 12. or.

<sup>13</sup> “**White**—A person having origins in any of the original peoples of Europe, the Middle East, or North Africa” [testuko itzulpena geuk egin dugu]. LAW ENFORCEMENT SUPPORT SECTION (LESS); CRIME STATISTICS MANAGEMENT UNIT (CSMU), «Hate crime data collection», 13. or.

<sup>14</sup> “**Hispanic or Latino**—A person of Cuban, Mexican, Puerto Rican, South or Central American, or other Spanish culture or origin, regardless of race. Includes people from Hispanic or Latino groups (...)” [testuko itzulpena geuk egin dugu]. LAW ENFORCEMENT SUPPORT SECTION (LESS); CRIME STATISTICS MANAGEMENT UNIT (CSMU), «Hate crime data collection», 12. or.



- *Beste arraza / jatorri etniko batekoa* da «bestelako arraza/etnia duen edonor, bat egindako kategoria honetan sartzen dena»<sup>15</sup>.

Gainera, HCSAn arraza, etnia eta etorki terminoetatik adarkatzen diren kategoria eta azpikategoria zehatzak bat datoz, erabat, Estatu Batuetako Errolda Bulegoak (*US Census Bureau*, Estatu Batuetako Merkataritza Sailaren barruan) kudeatzen eta argitaratzen dituen agirietan erabiltzen den terminologiarekin. Hain zuzen ere, GARNERek, Estatu Batuetako estatistika-erroldari erreferentzia eginez, adierazten du gobernuko agentzia horrek jasotako kategoria orokorren definizioak geografikoak direla batez ere, direla eremuka, direla herrialde zehatzen arabera. Eta jatorriko herrialdeari buruzko erreferentzia, pertsona batzuen genealogietan, hainbat belaunaldiz egingo du atzera. Hala, bada, arrazatik abiatuta eraikitzen da izaera etnikoa, aurrez arrazializatutako talde barruan zenbait aldagai (erlijioa, hizkuntza-bereizkuntzak, eta abar) uztartuz ateratzen den emaitzan. Horiek horrela, aurreiritzi etnikoak berekin dakar kulturaren osagaiaren eta hartatik bereizten diren aldagai guztien balioa gutxitzea. Laburbilduz, arrazarekin batera bizi den eraikuntza bat da etnia, eta aldi berean jarduten du, azpiko plano batean<sup>16</sup>. Azken baieztapen horretan badago zer zehaztu; izan ere, AGUILAR GARCÍAak adierazitakoaren arabera, talde batzuk besteengandik desberdintzen dituzten ageriko ezaugarri fisikoak talde etniko jakin baten osagai izan daitezke edo ez<sup>17</sup>.

Laburbilduz, HCSAk erabiltzen duen metodologiaren oinarrian, gorroto-gertakariaren egileak adierazle nagusi gisa erabiltzen dituen ezaugarri fenotipikoak hartu, eta jatorri geografiko zehatz erreal edo ustezko batekin lotzen da biktima bera, edo biktima bere arbasoetako batekin erlazioan. Kulturaren osagaiak, ondoren, antzemateko moduan zatikatzen du biktimaren jatorria (hainbat aldagairi balioa emanez: besteak beste, erlijioa, hizkuntza, ideologia, janzkera, usadioak, bizimoduak, eta abar). Hala gertatzen bada, jatorri etnikoaren araberako aurreiritzi batez ari gara. FBIk ongi jaso bezala, erredundantea eta baztergarria da arraza eta etniarekin batera «etorki» hitza erabiltzea.

Gainera, ezin da alde batera utzi Zigor Kodeak bai 22.4 artikuluko zioen zerrendan bai 510. artikulukoan jasotzen duela «*nazio*» markatzailea. Orobat, Kode Penalaren 510. artikuluko aipamena egiten dio «*jatorri nazional*» terminoari ere. Dena dela, ondoriozta liteke bi terminoek

<sup>15</sup> “**Other Race/Ethnicity/Ancestry**—A person of a different race/ethnicity/ancestry than is otherwise included in this combined category” [testuko itzulpena geuk egin dugu]. LAW ENFORCEMENT SUPPORT SECTION (LESS); CRIME STATISTICS MANAGEMENT UNIT (CSMU), «Hate crime data collection», 12. or.

<sup>16</sup> GARNER, *Racisms*, 44, 53 eta 63. or.

<sup>17</sup> AGUILAR GARCÍA, «Manual práctico para la investigación», 48 eta 49. or.

biktimaren nazionalitateari egiten diotela erreferentzia<sup>18</sup>. Ikusmolde horri jarraikiz, ROIG TORRESEk honako hau nabarmentzen du: «jatorri nazional terminoa sartuta, bai uneko nazionalitatearen bai jaiotzakoaren ondoriozko diskriminazioa har daiteke barne»<sup>19</sup>. Hala ere, badakigu puntu horretan ez datozela bat zenbait doktrina; izan ere, egile batzuek –besteak beste, DIAZ ETA GARCÍA CONLLEDOk– adierazitakoaren arabera: «jatorri nazionala eta nazionalitatea ez dira gauza bera eta, hortaz, subjektu batek, nazionalitatea aldatuta ere, diskriminazioa jasan dezake bere jatorri nazionalarengatik (lotzen zaion nazionalitatea galdu badu ere)»<sup>20</sup>.

Hala ere, DÍAZ LÓPEZi jarraikiz, interpretazioarekin lotuta dago puntu horretan eztabaida sortzen duen auzia: «(...) zentzu normatiboagoan ulertu behar da hori? (adibidez, gobernu berak zuzendutako estatu batekoa dela, esaterako, “Andorrako naziokoa”) edo kulturalagoan (jatorri berekoa dela, hizkuntza bera eta tradizio komuna duela, “Kataluniako naziokoa”)[?]. Egilearen ustez, lehenbiziko hipotesia onartzea litzateke zuzena, nazio kulturalari erreferentzia egitea erredundantea izango litzatekeelako eta edukiz hutsa geratuko litzatekeelako, aurrez etnia kontuan hartu delako. Bestalde, Espainiako Konstituzioaren 2. artikulua<sup>21</sup> maila berean jasotzen ditu «nazionalitateak eta eskualdeak» eta, beraz, diskriminazio bidegabe eta arrazoirik gabea izango litzateke lehenengoei nolabaiteko nagusitasuna ematea, bigarrenen gainean. Dena dela, ideia hau da tesiaren ondorioa: «(...) ideologiaren edo etniaren bidetik, Espainiako Konstituzioaren 22.4 artikulua aplikatu daiteke autonomiako nazionalitateekin lotutako gorroto-kasuetan»<sup>22</sup>. Korrante horretan kokatzen da AGUILAR GARCIA ere; izan ere, ziurtatzen du «(...) hemen [nazioa edo jatorri nazionala kategoriatan gisa aipatzen ditugunean] nazio bakarrak axola du: nazioa zentzu juridiko-konstituzionalean, Konstituzio Auzitegiak 2010eko ekainaren 28ko 31/2010 epaian adierazi bezala»<sup>23</sup>.

«Ijitoen» etniari dagokionez, Ertzaintzak orain arte eman dion presentzia autonomoari eutsiko zaio halaber; izan ere, komenigarria da hori euskal gizartearen errealitatea kontuan hartuta.

---

<sup>18</sup> AGUILAR GARCÍA, «Manual práctico para la investigación»«», 56. or.

<sup>19</sup> ROIG TORRES, «Los delitos de racismo y discriminación», 1264. or.

<sup>20</sup> DÍAZ Y GARCÍA CONLLEDO, *Protección y expulsión*, 323-324. or.

<sup>21</sup> EK, 2. art.: «Konstituzioa Espainiako nazioaren batasun zatiezinean oinarritzen da, hura baita espainiar guztien aberri komun eta banaezina; Konstituzioak aitortu eta bermatu egiten du Espainia osatzen duten nazionalitate eta herrialdeen autonomia-eskubidea, bai eta horien guztien arteko elkartasuna ere».

<sup>22</sup> DÍAZ LÓPEZ, *El odio discriminatorio*, 295-298. or.

<sup>23</sup> AGUILAR GARCÍA, «Manual práctico para la investigación», 56. or.

Horregatik, nahikoa izango da norbaitek ijitoen komunitatearen ezaugarri kultural berezko eta markatuekin loturaren bat izatea, gorroto-gertakari gisa sailkatzea azter dadin. GARNERen arabera, talde nomaden historia (eta horien artean sartzen dira, besteak beste, ijitoak), jatorriak, kultura-berezitasunak eta ezaugarri komunak bereziki garrantzitsuak dira talde horientzat; izan ere, erakunde boteretsuago batzuek –adibidez, estatuak eta komunikabideek– haiei buruz eraikitako irudien aurka borrokatu behar dute<sup>24</sup>. Beste definiziorik ezean, ECRik bere Politika Orokorreko 13. gomendioan (2011ko ekainaren 24koa) antigitanismoaren eta erromanien/ijitoen aurkako diskriminazioen kontrako borrokatari buruz adierazitakoa jaso dugu jarraian: «(...) arrazakeria mota espezifiko bat, arrazaren nagusitasunean oinarritutako ideologia bat, diskriminazio historikoak bultzatutako gizagabetze eta arrazakeria instituzional mota bat, besteak beste honako adierazpen hauek dituen: indarkeria, beldurraren diskurtsoa, eta esplotazio eta diskriminaziorik agerikoenak».

<b>I. BLOKEA</b>
<b>KOLEKTIBO ETKNIKOA / KOLEKTIBO ARRAZISTA ETA XENOFOBOA</b>
<b>II. TALDEA</b> IDEOLOGIA ETA JOERA POLITIKOA

Joera politikoa bereizketa politikotzat uler daiteke eta, zenbait herrialdetan, testuinguru historikoak haren babesa justifikatzen du. Hein batean gure egingo dugu Espainiako Gorroto Delituekin lotutako Gertakarien Bilakaeraren gaineko Txostenak erabilitako definizioa; hau da, ideologiarekin lotutako gorroto-gertakari bat da pertsona edo kolektibo batzuen aurka egitea, gizarteko sektore batek politikari, zientziari, ekonomiari, kulturari eta moralari buruz dituen oinarritzko ideiak direla eta<sup>25</sup>. Nolanahi ere den, logikoa eta gomendagarria dirudi ideologiaren adiera mugatzea, gorroto politikoa soilik egin diezaion erreferentzia; hala, jainkotasunari buruzko dogma edo doktrinei buruz hitz egiteko gordeko dugu «erlijio eta sinesmen»ei buruzko etiketa (III. taldea). Ildo horretan doa DÍAZ LÓPEZ, zera iruditzen baitzaio: «(...) “motibazio ideologikoan” (...) sartzen dira, ulertzen denaren arabera, egileak Espainiako estatuaren antolamendu politiko jakin baten aldekoa denez biktimak alderdi horretan bestelako ustea duelako egiten dituen delituak»<sup>26</sup>.

<sup>24</sup> GARNER, *Racisms*, 57. or.

<sup>25</sup> BARNE ARAZOETAKO MINISTERIOA, «Informe sobre la evaluación», 64. or.

<sup>26</sup> DÍAZ LÓPEZ, *El odio discriminatorio*, 289. or.

Baina, interesatzen zaigun honetan, aurreko hori harturik oinarri, egile horrek azalpen bat ematen du ideologia politikoaren eta izaera etnikoaren nahasbide izan daitezkeen kasuen orientazioari buruz. Hortaz, adibidez, gorroto-deliturik egiten bada euskal herritar baten aurka, hain zuzen ere, euskalduna izateagatik, orduan, bi tratamendu juridiko ditugu aukeran:

1. Balizko kasua «ideologia eta joera politikoa»ren multzoan sartuko da (II. taldea), baldin eta delitu-egintzaren oinarrian «(...) *polisaren* antolamenduarekin lotutako usteak badaude: esaterako, Espainiako gaur egungo Estatu monarkia parlamentario gisa mantentzea, edo Estatu totalitario batean eraldatzea, Errepublika federal bihurtzea, desegin eta beste Estatu independente batzuk sortzea, edo antolamendu politikoko beste edozein modu». Laburbilduz, egilearen aurreiritziaren baitan eta jatorrian dagoen emozioa «(...) “nazionalismo independentista” / “nazionalismo espainolista” dikotomiaren ondorioz» sortu denean<sup>27</sup>.
2. Aldiz, balizko kasua «Beste arraza / jatorri etniko bat» multzoan sartuko da (I. taldean sartutako markatzailea), adibidez, biktimarenganako gorroto-emozioaren jatorria bada, esate baterako, «euskaraz hitz egiten ari zela (eta horrek euskal herritar gisa identifikatzen du)»<sup>28</sup>. Hala, alderdi batzuek etniarekin lotutako oldar diskriminatzaileei bide ematen diete: adibidez, hizkuntza bera izateak, edo gutxiengo nazional bati bere identitate eta kidetza sentimendu partekatua, *ad intra* nahiz *ad extra*, finkatzeko modua ematen dion beste edozein ezaugarri kultural komun izateak.

Errezelo handiagoak daude Estatuari edo Gobernuari babes emateko, hau da, babes instituzionala (adib., poliziarri), gorroto-gertakarien bidez. Aukera tentagarria da, eta gizarteko inguru batzuetan bultzatu egiten da, baina ez dator bat giza eskubideen estandarren azpian datzan babes esparru orokorrarekin. Hau da, talde batzuen giza eskubideak babestea da kontua, ez estatua. Hala ere, horrek ez du esan nahi auzitan jartzen direnik indarrean dauden babes bitarteko indartu eta instituzionalak; besteak beste, agintaritzaren aurkako atentatuaren kasua. Laburbilduz, edozein polizia-agente izan daiteke gorroto-delituen biktima (adib., arraza edo sexu-orientazioa direla eta), beste edonor bezalaxe, baina argi dago ez dela beharrezkoa izango babes hori zigor bidetik indartzea, kategoria autonomo bat eratuz, edo zehatzago, hizpide dugun kategoria ideologikoaren

---

<sup>27</sup> DÍAZ LÓPEZ, *El odio discriminatorio*, 289-290. or.

<sup>28</sup> DÍAZ LÓPEZ, *El odio discriminatorio*, 290. or.

interpretazioaren bidetik, segurtasun-indar eta -kidegoetako erakunde-ordezkarari izateagatik eraso egiten badiote<sup>29</sup>.

<b>I. BLOKEA</b>
<b>KOLEKTIBO ETKNIKOA / KOLEKTIBO ARRAZISTA ETA XENOFOBOA</b>
<b>III. TALDEA</b> <b>ERLIJIOA ETA SINESMENAK</b>
<i>Islamiarra (musulmana)</i>
<i>Kristaua</i>
<i>Beste erlijio batzuk</i>
<i>Ateoa edo agnostikoa</i>
<i>Antisemitismoa</i>

*Hate Crime Data Collection Guidelines and Training Manual* (2015) eskuliburuak honela definitzen du erlijiozko aurreiritzia: «Unibertsoaren jatorriari eta xedeari, eta izaki goren bat existitzeari edo ez existitzeari buruzko erlijio-sinesmen berak dituen giza talde baten aurkako iritzi edo jarrera izatea aldeaz aurretik: adibidez, katolikoan, judutarren, protestanteen edo atoen aurka»<sup>30</sup>. Hala ere, kontuan hartuta Euskadiko erlijio-aniztasuna, ez da gomendatzen FBIk ondoren ematen dituen markatzaileak erabiltzea. Dena dela, markatzaile batzuetan FBIrekin bat dator Ertzaintza, baina beste batzuk *ex novo* jaso litezke edo, besterik gabe, idazketa egokitu liteke.

- Ertzaintzak jasotako islamofobia neologismoaren kasuan, zehazki, mugitzen garen alorrean oso eztabaidatua izan da horren erabilera; izan ere, terminoa gutxiago edo gehiago murrizten duten iritzi akademikoak daude. Hain zuzen, arrazakeria berri edo arrazakeria kultural delakoaren baliokidetzat har liteke; horrela, erlijio islamiko edo musulman soilaren aurkako intolerantzia ez ezik, aditzera ematen dugu dimentsio hori baino handiagoak diren alderdi kultural eta gaindiezinen aurkako intolerantzia ere<sup>31</sup>. Halakoek etnizitatearen

<sup>29</sup> LANDA GOROSTIZA, *Los delitos de odio*, 100. or. eta hurrengoak.

<sup>30</sup> “**Religious Bias**—A preformed negative opinion or attitude toward a group of persons who share the same religious beliefs regarding the origin and purpose of the universe and the existence or nonexistence of a supreme being, e.g., Catholics, Jews, Protestants, atheists”. [testuko itzulpena geuk egin dugu]. LAW ENFORCEMENT SUPPORT SECTION (LESS); CRIME STATISTICS MANAGEMENT UNIT (CSMU), «Hate crime data collection», 13. or.

<sup>31</sup> GARNER, *Racisms*, 246. or.

Izan ere, AGUILAR GARCÍAk jasotako Intolerantziaren aurkako Mugimenduaren aipuaren arabera, «(...) [islamofobia] kontzeptua desegoki erabiltzen da islamari egin dakioken kritika zilegizkoa –batez ere, askatasun zibilei eta giza eskubideei dagokienez– belztu eta isilarazteko. Zibilizazioen arteko talkaren “hipotesi” arriskutsu eta ezagunaren muina islamofobiak elikatzen du». Hain zuzen ere, islamofobia terminoak sortzen duen deserosotasuna dela eta, nazioarteko eta gobernuarteko erakunde batzuek, adibidez, ESLEk, «musulmanen aurkako intolerantzia eta diskriminazioa» erabiltzen dute, zehazkiago. Hala ere, honako hau azpimarratzen da ESLEk, Europako Kontseiluak eta Unescok elkarrekin egindako lan batean: «(...) gogoan hartu behar da musulmanen aurkako intolerantziak eta

multzoan sartzen dute islamofobiaren markatzailea eta, beraz, ez datoz bat bildutako beste markatzaile batzuekin.

FBiren erabilera terminologikoan, erlijioarekin lotutako motibaziotik hurbilago dagoela ematen da ulertzer. Hala, «islamiarra (musulmana) da musulmanen erlijio monoteistari jarraitzen dion pertsona; hau da, besteak beste, jainko bakarra Ala eta haren profeta Mahoma dela sinesten duena. Fede islamikoaren praktikatzaileek Koranaren irakaskuntzei jarraitzen diete eta islamaren bost oinarriak betetzen dituzte: otoitza, ramadan garaiko baraua, limosna, erromesaldia eta fede-aitormena»<sup>32</sup>.

Dena dela, etorkizunean musulmanen aurkako gorroto-delitua sartzeko aukera azter daiteke, baina ez orain hizpide ditugun erlijiozko markatzaileen artean, beste talde egokiago batean baizik. Izan ere, badirudi, islamaren aurkako gorrotoa edo beldurra baino gehiago, segurtasunerako mehatxu diren usteak eragiten dituela musulmanen aurkako eraso asko<sup>33</sup>.

- Ertzaintzaren datu-basean jasotako «antikristau» markatzailearen ordez, FBIk bereiz sailkatzen ditu kristau-fedearen hiru adar nagusiak: katolikoa, protestantea eta ortodoxoa. Gainera, «beste kristauen aurkako» izeneko beste kategoria bat ere zehazten du, saski-naski gisa.

EAEn, Ertzaintzak apenas jaso duen kristau izate hutsagatik gorroto-gertakarien xede izan den kristauren kasurik; beraz, gomendagarria da arestiko markatzaile horiek «kristau» formula bateratuan biltzea. Horrela, Jesukristoren bizitzan eta irakaskuntzetan oinarritutako erlijioei jarraitzen dien edonori egiten zaio erreferentzia. Beraz, halako gorroto-gertakari batek barne hartzen du kristauen, kristau-erlijioaren nahiz kristautasunaren praktikaren aurkako guztia (kristauen eta haien sinesmenaren adierazten duten irudien aurkako atentatu oro)<sup>34</sup>.

---

diskriminazioak lotura hertsia duela beste diskriminazio mota batzuekin eta aldi berean egon daitezkeela immigrazioaren arbuiozko, xenofobia- eta arrazakeria-sentimenduak, edo generoan oinarritutako aurreiritziak ere. Zenbaitek jasaten dituen diskriminazio-moduak ugaritu ditzake horrek guztiak». AGUILAR GARCÍA, «Manual práctico para la investigación», 54-55. or.

<sup>32</sup> **“Islamic (Muslim)**—A person who follows the monotheistic religion of Muslims, which includes belief in Allah as the sole deity and in Muhammad as his prophet. Practitioners of the Islamic faith follow the teachings of the Koran and practice the Five Pillars of Islam: praying, fasting during Ramadan, almsgiving, pilgrimage, and declaration of faith” [testuko itzulpena geuk egin dugu]. LAW ENFORCEMENT SUPPORT SECTION (LESS); CRIME STATISTICS MANAGEMENT UNIT (CSMU), «Hate crime data collection», 14. or.

<sup>33</sup> GITHENS-MAZER; LAMBERT MBE, «Islamophobia and anti-muslim», 17. or.

<sup>34</sup> ANDREU ARNALTE, «Conceptos generales», 13. or.

- Gainera, bai FBIk bai Ertzaintzak jasotako «beste erlijio batzuk» kategorian, une jakin batean ager litezken beste aukera batzuk sar daitezke, hala behar izanez gero. Hau da, aurrez jaso gabeko beste erlijio batzuei jarraitzen dien norbaiti buruz hitz egiteko.
- FBIk jasotako beste kategorია bat antiatео edo antiagnostikoa da. Lehenengoak «jainkoaren existentzian sinesten ez duen norbait» deskribatzen du<sup>35</sup>; bigarrenak, aldiz, «azken errealitate baten, adibidez, jainko baten, existentzia edo izaera ezezaguna eta, ziurrenik, inoiz ezagutu ezinekoa, dela uste duen norbait»<sup>36</sup>. Bi markatzaile horiek sartzea justifikatuta dago; izan ere, «beste erlijio batzuk» erreferentzian sartu ezineko balizko fenomenologia osoa barne har daiteke horrela. Beraz, markatzaile bakarrean bildu dira «ateoak eta agnostikoak».

Azkenik, gaur egun judu izendapenarekin identifikatzen direnen artean sartzen dira, bai judaismoaren fededunak, bai munduko edonongo judu taldeetan arbasoak dituztenak. FBIk erlijioari buruzko markatzaileen artean sartzen du HCSAko *jewish* kategoria; aldiz, *Hate Crime Data Collection Guidelines and Training Manual* (2015) eskuliburuak *jewish (judaism)* aipatzen du. Azken dokumentu horretan, zehazten da judu dela «bere burua antzinako hebrearren leinuko erlijio eta/edo etnia taldeko kideztat hartzen duen edonor. Abraham, Moises eta hebrear profeten aurrean agertu zen Jainko transzendente batenganako fedea da talde horren bereizgarria. Juduen erlijio-praktika hebrear Biblian (Tora) oinarritzen da, baita errabinoen lege eta usadioetan ere»<sup>37</sup>. Ertzaintzak zuzenean kategoria bereiz gisa jasotzen du antisemitsimoa, eta egokia dirudi hala jokatzea, konplexua baita kolektibo horren sailkapena argi eta eztaba daezina egitea. Bereizkuntza hori azaltzen du, halaber, Europako esperientzia nazionalsozialistaren eta haren izaera nabariki antisemitaren marka ezabaezinak.

---

<sup>35</sup> “**Atheist**—A person who does not believe in the existence of a deity” [testuko itzulpena geuk egin dugu]. LAW ENFORCEMENT SUPPORT SECTION (LESS); CRIME STATISTICS MANAGEMENT UNIT (CSMU), «Hate crime data collection», 13. or.

<sup>36</sup> **Agnostic**—A person who believes that the existence or nature of an ultimate reality, such as a deity, is unknown, and probably unknowable [testuko itzulpena geuk egin dugu]. LAW ENFORCEMENT SUPPORT SECTION (LESS); CRIME STATISTICS MANAGEMENT UNIT (CSMU), «Hate crime data collection», 13. or.

<sup>37</sup> “**Jewish (Judaism)**—A person who identifies himself or herself as a member of the religious and/or ethnic group that descended from the ancient Hebrews and is characterized by belief in one transcendent God who revealed Himself to Abraham, Moses, and the Hebrew prophets. Jewish religious practice is based on the Hebrew Scriptures (the “Torah”) and rabbinic laws and customs” [testuko itzulpena geuk egin dugu]. LAW ENFORCEMENT SUPPORT SECTION (LESS); CRIME STATISTICS MANAGEMENT UNIT (CSMU), «Hate crime data collection», 14. or.

Ikuspegi antropologiko batetik, Ekialde Hurbiletik datozen hizkuntza semitikoaren hiztunekin lotzen da semita terminoa; gaur egun, hor ez lirateke hebrearrak soilik sartu beharko, inguruan dugun diskriminazio-esparruan unibertsalki hala onartzen bada ere. Gainerakoan, beste ulertzeko modu batean juduen erlijioaren sinesten duen edonork hartzen da judutzat. Hala ere, lotura oso hertsia eta barne-kohesio handia duten taldeak eratzen dira erlijio horren fededunen artean. Hortik abiatuta, adiera «etnikoa» ere hartu zuen judu izateak, arbaso juduak dituen edonori erreferentzia egiteko. Azken mendeotan, judu kopuru handiak utzi dio fededun izateari. Batzuk beste erlijio batzuetara konbertitu ziren, eta beste batzuk ateo bihurtu ziren, baina euren burua «judu»tzat hartzen jarraitu zuten, haien leinuagatik edo kulturkidetzagatik. Bada beste zailtasun bat ere: etnia bati buruz hitz egin arren, ez dute identitate bera izatearen kontzientziarik; izan ere, erromatarren aurreko garaitik Europa, Afrika eta Asiako hainbat herrialdetan eratu dira juduen komunitateak, eta finkatutako leku bakoitzean hizkuntza, tradizio eta eguneroko ohitura oso desberdinak garatu dituzte. Oro har, antisemitismoaren fenomenoak forma bat baino gehiago agertzen du, eta motibo etniko, erlijiozko, kultural, ekonomiko eta politikoen ezohiko konbinazioa hartzen du barne<sup>38</sup>.

Hori guztia jakinik, *Hate Crime Data Collection Guidelines and Training Manual* (2015) eskuliburuan judu noziorako emandako definizioa gureganatu dugu hein batean; «antisemitismo» hitzan bidez, bere burua antzinako hebrearren leinuko erlijio eta edo etnia taldeko kideatzat hartzen duen edonorenganako arbuio intolerantea edo aurreiritzia adieraziko dugu. Hori guztia, esan dugun bezala, ongi jakinik nolabaiteko zehaztasuna falta zaiola lanerako definizio horri.

<b>II. BLOKEA</b>
<b>KOLEKTIBO SEXUALA</b>
<b>IV. TALDEA</b> <b>SEXU-ORIENTAZIOA</b>
<i>Gaya</i>
<i>Lesbiana</i>
<i>Heterosexuala</i>
<i>Transexuala</i>
<i>Intersexuala</i>
<i>LGTBI taldea (talde mistoa)</i>
<b>II. BLOKEA</b>
<b>KOLEKTIBO SEXUALA</b>
<b>V. TALDEA</b> <b>SEXU-IDENTITATEA</b>

<sup>38</sup> AGUILAR GARCÍA, «Manual práctico para la investigación», 54. or.



Kolektibo sexualari dagokionez, lehenbiziko egitura aurkezten da hemen, etorkizunean kolektibo horri buruzko datu xeheagoak biltzea errazteko.

Ertzaintzak ez du bereizketarik egiten kolektibo horren barruan; beraz, FBIk *Hate Crime Data Collection Guidelines and Training Manual* (2015) eskuliburuko kontzeptu-definizioen bidez bildutako kategoriak jaso dira lehenik eta behin. Dokumentu horretan honela definitzen da sexu-orientazioan oinarritutako aurreiritzia: «norbaiten edo norbaitzuen aurkako iritzia edo jarrera izatea aldez aurretik, benetan duen edo antzematen zaion sexu-orientazioan oinarrituta». Aldiz, «sexu-orientazioa» da «(...) norbaitek sexu berekoenganako edo kontrako sexuoen erakarpen fisiko, erromantiko eta/edo emozionala izatea, lesbiana, gay, bisexual eta heterosexualenganakoa barne»<sup>39</sup>. Azpimarratu behar da argi eta garbi bereizi behar dela norberaren sexu-orientazioaren eta sexu-hobespenaren artean; izan ere, azken horrek sexu-aukera nolabait borondatezkoa dela ematen du aditzera<sup>40</sup>. Nolanahi ere *Hate Crime Data Collection Guidelines and Training Manual* (2015) eskuliburuan ez da jaso «sexu-identitatea» zer den; laburbilduz, uler daiteke nork bere gorputza sailkatzeko (gizona/emakumea) ebatzen duen iritzia dela; hau da, norberaren ezaugarri fisiko edo biologikoak (genitalak, gorputzaren irudia, eta abar), sexu-orientazioa zehazteko bide ematen dutenak. Are gehiago, AGUILAR GARCÍAri jarraikiz, Zigor Kodetik ondorioztatu bezala, sexu-identitatea da «(...) berez besteengandik desberdintzen gaituen sexu-ezaugarrien multzoa: gure sexu-hobespenak, gure sentimenduak eta sexuari buruz ditugun jarrerak. Hitz lauetan, esan daiteke pertsona horrek bere bizitza osoan izango duen maskulinitasun edo feminitasun sentimendua dela (behar beste ñabardurarekin), eta ez datorrela beti bat haren sexu biologikoarekin edo organo genitalekin»<sup>41</sup>.

Gainerakoan, hauek dira FBIk egiten dituen azpikategoriak:

- Bisexuala. Hala gizon nola emakumeenganako erakarpen fisiko, erromantiko eta/edo emozionala sentitzen duten pertsonak<sup>42</sup>. Hala ere, bisexualtasuna bera baino gehiago,

---

<sup>39</sup> “**Sexual-Orientation Bias**–(noun) A preformed negative opinion or attitude toward a person or group of persons based on their actual or perceived sexual orientation.

**Sexual Orientation**–(noun) The term for a person’s physical, romantic, and/or emotional attraction to members of the same and/or opposite sex, including lesbian, gay, bisexual, and heterosexual (straight) individuals” [testuko itzulpena geuk egin dugu]. LAW ENFORCEMENT SUPPORT SECTION (LESS); CRIME STATISTICS MANAGEMENT UNIT (CSMU), «Hate crime data collection», 15. or.

<sup>40</sup> AGUILAR GARCÍA, «Manual práctico para la investigación», 59. or.

<sup>41</sup> AGUILAR GARCÍA, «Manual práctico para la investigación», 60. or.

<sup>42</sup> “**Bisexual**–(adjective) Of or relating to people who are physically, romantically, and/or emotionally attracted to both men and women” [testuko itzulpena geuk egin dugu]. LAW ENFORCEMENT SUPPORT SECTION (LESS); CRIME STATISTICS MANAGEMENT UNIT (CSMU), «Hate crime data collection», 16. or.

kasu gehienetan homosexualitatea izango da egilearen jokabidearen benetako arrazoia. Beraz, txosten honetarako, talde hau ez da oraingoz bereizita jasoko.

- **Gaya.** Sexu bereko pertsonenganako erakarpen fisiko, erromantiko eta/edo emozionala sentitzen duten pertsonak<sup>43</sup>. Jarraian, FBIk ohartarazten du haien jardunbidean biktimak gizonezkoa izan behar duela antigay gorroto-delitua salatzeke.
- **Lesbiana.** Beste emakume batzueganako erakarpen fisiko, erromantiko eta/edo emozionala sentitzen duten emakumeak<sup>44</sup>. Alderdi honetan, FBI jakitun da hainbat emakumek nahiago dutela haiekin emakume gay izendapena erabil dadila; nolana ere, lanerako ez da kontuan hartzen erabilera hori.
- **Heterosexuala.** Aurkako sexuko pertsonenganako erakarpen fisiko, erromantiko eta/edo emozionala sentitzen duten pertsonak<sup>45</sup>.
- **LGBT taldea (talde mistoa).** FBIk markatzaile hau ere jasotzen du, baina «(...) lesbianeiei, gayei, bisexualei, transexualei eta haien aliatuei zerbitzu ematen dieten erakunde komunitarioak eta ekitaldiak aipatzeko» darabil<sup>46</sup>. Adibidez: «gauaren azken orduan, talde bat indarrez sartu zen bertako lesbiana, gay, bisexual eta transexualen (LGBT) zentro batean. Taldeak LGBTen aurkako irain ezagunak margotu zituen hormetan, eta zentroko ate nagusiaren gainean zegoen bandera lapurtu zuen».<sup>47</sup>

---

<sup>43</sup> “**Gay**–(adjective) Of or relating to people who are physically, romantically, and/or emotionally attracted to people of the same sex” [testuko itzulpena geuk egin dugu]. LAW ENFORCEMENT SUPPORT SECTION (LESS); CRIME STATISTICS MANAGEMENT UNIT (CSMU), «Hate crime data collection», 16. or.

<sup>44</sup> “**Lesbian**–(adjective) Of or relating to women who are physically, romantically, and/or emotionally attracted to other women” [testuko itzulpena geuk egin dugu]. LAW ENFORCEMENT SUPPORT SECTION (LESS); CRIME STATISTICS MANAGEMENT UNIT (CSMU), «Hate crime data collection», 16. or.

<sup>45</sup> “**Heterosexual**–(adjective) Of or relating to people who are physically, romantically, and/or emotionally attracted to people of the opposite sex” [testuko itzulpena geuk egin dugu]. LAW ENFORCEMENT SUPPORT SECTION (LESS); CRIME STATISTICS MANAGEMENT UNIT (CSMU), «Hate crime data collection», 16. or.

<sup>46</sup> “**LGBT**–(noun) Common initialism for “lesbian, gay, bisexual, and transgender,” used here to refer to community organizations or events that serve lesbian, gay, bisexual, transgender, and allied people” [testuko itzulpena geuk egin dugu]. LAW ENFORCEMENT SUPPORT SECTION (LESS); CRIME STATISTICS MANAGEMENT UNIT (CSMU), «Hate crime data collection», 16. or.

<sup>47</sup> “Late in the night, a group of individuals broke in to a local Lesbian, Gay, Bisexual, and Transgender (LGBT) Center. The group painted well-known and recognized LGBT epithets on the walls and stole the gay pride rainbow flag that was flown above the front door of the center” [testuko itzulpena geuk egin dugu]. LAW ENFORCEMENT SUPPORT SECTION (LESS); CRIME STATISTICS MANAGEMENT UNIT (CSMU), «Hate crime data collection», 18. or.

Hori guztia kontuan hartuta, kategoria independente berri gisa jaso daitezke transexual eta intersexual kategoriak. «Transexual» bidez, bere sexu biologikoa ez, baizik eta kontrakoa duela uste eta sentitzen duen pertsonari egiten zaio erreferentzia. «Intersexual» bidez, jaiotzazko sexu-anatomia, ugalketa-organoak eta/edo patroikromosomikoak direla-eta gizon edo emakumeei buruzko ohiko definizioarekin halaberrez bat ez datorren norbaiti egiten zaio erreferentzia.

<b>II. BLOKEA</b>
<b>KOLEKTIBO SEXUALA</b>
<b>VI. TALDEA GENEROA</b>
<i>Gizonezkoa</i>
<i>Emakumezkoa</i>

<b>II. BLOKEA</b>
<b>KOLEKTIBO SEXUALA</b>
<b>VII. TALDEA GENERO-IDENTITATEA</b>

*Hate Crime Data Collection Guidelines and Training Manual* (2015) eskuliburuaren arabera, generoan oinarritutako aurreiritzia da «norbaiten edo norbaitzuen aurkako iritzia edo jarrera izatea aldeztu aurretik, benetan duen edo hautematen zaion generoan oinarrituta; adibidez, gizona edo emakumea izateagatik»<sup>48</sup>. Aldiz, sexu hitzaren sinonimo gisa definitzen du «genero»; hortaz, zentzu biologikoa ematen die barne hartzen dituen markatzaileei (gizona eta emakumea)<sup>49</sup>. Halaber, Espainiako Gorroto Delituekin lotutako Gertakarien Bilakaeraren gaineko Txostenean<sup>50</sup> bereizketarik egin gabe aipatzen dira generoarekin eta sexuarekin zerikusia duten arrazoiak. Egia

<sup>48</sup> **Gender Bias**—(noun) A preformed negative opinion or attitude toward a person or group of persons based on their actual or perceived gender, i.e., male or female” [testuko itzulpena geuk egin dugu]. LAW ENFORCEMENT SUPPORT SECTION (LESS); CRIME STATISTICS MANAGEMENT UNIT (CSMU), «Hate crime data collection», 10. or.

<sup>49</sup> **Gender**—(noun) This term is used synonymously with sex to denote whether a newborn is male or female at birth, e.g., “it’s a boy” or “it’s a girl.”

**Male** – An individual that produces small usually motile gametes (as spermatozoa or spermatozooids) which fertilize the egg of a female.

**Female** – An individual of the sex that bears young or produces eggs”.

LAW ENFORCEMENT SUPPORT SECTION (LESS); CRIME STATISTICS MANAGEMENT UNIT (CSMU), «Hate crime data collection», 10. or.

<sup>50</sup> BARNE ARAZOETAKO MINISTERIOA, «Informe sobre la evaluación», 13. or.

esan, nolabaiteko ahultasun-seinale izan daiteke halaber; izan ere, argi eta garbi doa 1/2015 LOak jasotakoaren aurka: Zioen Azalpenean, honela azaltzen du Zigor Kodearen 22.4 artikuluko diskriminazio-arrazoien artean genero hitza sartu izana: «(...) **generoa**, *Europako Kontseiluaren 210. zenbakiko Hitzarmenean ezarritakoaren arabera ulertuta, **sexuari egindako erreferentziak biltzen dituen bezelako bereizkeriazko ekintzen funts izan daiteke**. Zehazki, honela definitzen da generoa *Europako Kontseiluko Ministroen Komiteak 2011ko apirilaren 7an Istanbullen onartutako Hitzarmenean*: “gizarte batean eraikitako eginkizun, jokabide edo jarduerak eta atribuzioak emakumeei ala gizonei esleitzea, berez emakumeei ala gizonezkoiei dagozkienak direlakoan”» (1/2015 LO, XXII. atala, Zioen azalpena).*

Txosten honetan sexu eta generoa batera erabiltzeko, *ex ante* zehaztu beharko genuke zer logikari jarraikiz erabiltzen diren biak trukagarri izango balira bezala, eta bi dira aukerak: 1) FBIk erabilitako zentzu biologiko soila, hau da, ernaltzean erabakitakoa [XX eta XY sexu-kromosomak daude, eta Y kromosomak sexua erabakitzen du]; edo 2) gizarteko kategorizazioa, delitugintzari bide ematen diona, «(...) norbaiten jokabidea [gizon batena edo emakume batena] ez badator bat biztanleriak pertsonak beren sexuaren arabera [zentzu biologikoan] (...) izan beharreko jokabideari buruz dituen uste orokortuekin»<sup>51</sup>.

*Hate Crime Data Collection Guidelines and Training Manual* (2015) eskuliburuaren arabera, generoan oinarritutako aurreiritzia da «norbaiten edo norbaitzuen aurkako iritzia edo jarrera izatea alde aurretik, benetan duen edo hautematen zaion genero-identitatean oinarrituta»<sup>52</sup>. «Genero-identitatea»ri dagokionez, honela definitzen da: norbait bere baitan gizon, emakume nahiz bien arteko konbinazio sentitzea; (...)»<sup>53</sup>. Beraz, nork bere burua gizon nahiz emakumetzat sailkatzea, kulturaren arabera historian zehar gizona eta emakumea zer diren itxuratu duten alderdietan oinarrituta (balioak, jokabideak eta rolak). FBIk azaltzen duen moduan, transgenero

---

<sup>51</sup> ENPLEGU ETA GIZARTE SEGURANTZA MINISTERIOA, «La persecución penal», 45. or.

ODIHR-ESLeren gidaliburu praktikoko baten itzulpena da, Kanpo Arazoetako eta Lankidetzako Ministerioaren, Estatuko Fiskaltza Nagusiaren eta Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioaren Immigrazio eta Emigrazio Idazkaritza Nagusiaren arteko lankidetzaren emaitza. Jatorrizko bertsoa: ODIHR/ESLE, «Prosecuting hate crimes», 99. or.

<sup>52</sup> “**Gender Identity Bias**—A preformed negative opinion or attitude toward a person or group of persons based on their actual or perceived gender identity, e.g., bias against transgender or gender nonconforming individuals” [testuko itzulpena geuk egin dugu]. LAW ENFORCEMENT SUPPORT SECTION (LESS); CRIME STATISTICS MANAGEMENT UNIT (CSMU), «Hate crime data collection», 10. or.

<sup>53</sup> “**Gender Identity**—(noun) A person’s internal sense of being male, female, or a combination of both; (...)” [testuko itzulpena geuk egin dugu]. LAW ENFORCEMENT SUPPORT SECTION (LESS); CRIME STATISTICS MANAGEMENT UNIT (CSMU), «Hate crime data collection», 10. or.

batek zenbait ezaugarriren bitartez adieraz dezake bere identitatea: kasurako, arropa, ilea, ahotsa, manierak edo hainbat jokabide, gizarteak generoan oinarrituta dituen itxaropen jakin batzuekin bat ez datozenak.

Halaber, FBIren arabera, «transgenero» markatzaileak zera esan nahi du: «jaiotzean erabakitako generoaz bestelako genero batekin identifikatzen den norbait»<sup>54</sup>. Gainera, garrantzitsua da kontuan hartzea transgenero batek denbora guztian, denbora batez edo inoiz ez azaleratu dezakeela bere genero-identitatea. Eta «generoarekin bat ez datorren» markatzailearen bidez, «gizartearen genero-itxaropenetara egokitzen ez den norbait» identifikatzen du FBIk: «adibidez, tradizioz gizonena izan den arropa daraman emakume bat, edo makillajea erabiltzen duen gizon bat»<sup>55</sup>. Baina, nola jakin daiteke transgenero batek bere genero-identitatea adierazteko erabilitako bideetako bat izan den gorroto-gertakariaren kausa? Edo generoarekin bat ez datorren norbait gizarte-itxaropenetara bat ez etortzea? Intersekzio bat baino gehiago dago eta, teoriarik zentzuzkoa bada ere horien artean bereiztea, egiatan, kontu eztabaidagarria da. Hasiera batean, «genero-identitate» mantentzearen alde egiten dugu; hobe ez badira talde horren ondotik datozen beste markatzaile batzuk erabiltzen, elkarri ez gainjartzeko.

<b>III. BLOKEA</b>
<b>BESTE KOLEKTIBO BATZUK</b>
<b>VIII. TALDEA</b>
<b>GAIXOTASUNA ETA DESGAITASUNA / ANIZTASUN FUNTZIONALA DUTEN PERTSONAK</b>

HCSAn esparru-kategoria bereizia osatzen du desgaitasunak; Ertzaintzak, aldiz, gaixotasun kategoriarekin batera jaso du. HCSAk, gainera, bi azpikategoria ematen ditu: *anti-physical* (desgaitasun fisikoa) eta *anti-mental* (desgaitasun fisiko edo mentala). Ildo horretan, *Hate Crime Data Collection Guidelines and Training Manual* (2015) eskuliburuak honela definitzen du desgaitasunean oinarritutako aurreiritzia: «giza talde baten aurkako iritzi edo jarrera izatea alde aurretik, haien disfuntzio fisiko edo mentaletan oinarrituta, aldi baterako desgaitasuna nahiz iraunkorra izan, jaiotzetikoa nahiz herentzia, istripu, lesio, adin aurreratu edo gaixotasun bidez

<sup>54</sup> “**Transgender**–(adjective) Of or relating to a person who identifies as a different gender from their gender as determined at birth” [testuko itzulpena geuk egin dugu]. LAW ENFORCEMENT SUPPORT SECTION (LESS); CRIME STATISTICS MANAGEMENT UNIT (CSMU), «Hate crime data collection», 11. or.

<sup>55</sup> “**Gender Nonconforming**–(adjective) Describes a person who does not conform to the gender-based expectations of society, e.g., a woman dressed in traditionally male clothing or a man wearing makeup” [testuko itzulpena geuk egin dugu]. LAW ENFORCEMENT SUPPORT SECTION (LESS); CRIME STATISTICS MANAGEMENT UNIT (CSMU), «Hate crime data collection», 10. or.

hartua»<sup>56</sup>. Desgaitasun mentalari dagokionez, bat dator «edonolako disfuntzio mental edo nahasmendu psikologikorekin: besteak beste, garuneko sindrome organikoa, gaixotasun emozional edo mentala eta ikaskuntzako desgaitasun bereziak»<sup>57</sup>. Azkenik, desgaitasun fisikoa da «edonolako disfuntzio fisiko, edonolako nahasmendu edo kondizio fisiologiko, desitxuratzeko kosmetiko edo galera anatomiko, gorputzeko sistema hauetako batean edo gehiagoan: neurologikoan, muskulu-eskeletikoan, zentzumenen organo berezietan, arnasketa-sisteman (mintzamenaren organoak barne), kardiobaskularrean, ugalketakoan, digestiokoan, genitourinarioan, hematikoan eta linfatikoan, azalean eta endokrinoan»<sup>58</sup>.

Gehiago sakontzeko, *Hate Crime Data Collection Guidelines and Training Manual* (2015) eskuliburuan berariaz jaso ez bada ere, *Americans with Disability Act* (ADA) arauak ere «desgaitasuna duen pertsona»ri buruz ematen duen definiziora jo da<sup>59</sup>. Estatu Batuetako lege horren arabera, «desgaitasuna duen pertsona» da:

- desgaitasun fisiko edo mentala duen norbait, eta ondorioz «bizitzako funtsezko jardueraren bat» nabarmen mugatuta duena; edo
- halako desgaitasun baten historia duena; edo
- halako desgaitasuna izango balu bezala ikusia dena.

Zigor Kodeko 25. artikulua (duela gutxi 1/2015 LOak erreformatu zuen) definizio hau ematen du desgaitasunerako: «*Kode honen ondoreetarako, desgaitasuntzat hartzen da urritasun fisiko, mental, intelektual edo sentsorial iraunkorrek dituen pertsonak duen egoera, zenbait oztopo izatean, mugatu edo eragotzi egiten zaionean gizartean gainerakoen baldintza berberetan guztiz eta eraginkortasunez parte hartzea*».

---

<sup>56</sup> “**Disability Bias**– A preformed negative opinion or attitude toward a group of persons based on their physical or mental impairments, whether such disability is temporary or permanent, congenital or acquired by heredity, accident, injury, advanced age, or illness” [testuko itzulpena geuk egin dugu]. LAW ENFORCEMENT SUPPORT SECTION (LESS); CRIME STATISTICS MANAGEMENT UNIT (CSMU), «Hate crime data collection», 9. or.

<sup>57</sup> “**Mental Disability**–Any mental impairment or psychological disorder such as: organic brain syndrome, emotional or mental illness, and specific learning disabilities” [testuko itzulpena geuk egin dugu]. LAW ENFORCEMENT SUPPORT SECTION (LESS); CRIME STATISTICS MANAGEMENT UNIT (CSMU), «Hate crime data collection», 10. or.

<sup>58</sup> “**Physical Disability**–Any physical impairment; any physiological disorder or condition, cosmetic disfigurement, or anatomical loss affecting one or more of the following body systems: neurological, musculoskeletal, special sense organs, respiratory (including speech organs), cardiovascular, reproductive, digestive, genitourinary, hemic and lymphatic, skin, and endocrine” [testuko itzulpena geuk egin dugu]. LAW ENFORCEMENT SUPPORT SECTION (LESS); CRIME STATISTICS MANAGEMENT UNIT (CSMU), «Hate crime data collection», 10. or.

<sup>59</sup> ALTSCHILLER, *Hate crimes*, 354. or.

Desgaitasuna duen pertsonari dagokionez, honela aipatzen du Zigor Kodearen 25. artikulua: «Kode honen ondoretarako, halaber, babes berezia behar duen desgaitutzat hartzen da, urritasun intelektual edo mental iraunkorrak izateagatik, gaitasun juridikoa egikaritzeko eta berari eta bere eskubide edo interesei buruzko erabakiak hartzeko laguntza edo babesa behar duen desgaitua, jarduteko gaitasuna judizialki aldatuta izan zein ez».

Nolanahi ere, argitu behar da ezen, kasu batzuetan, gaixotasun edo sindrome zehatz baten seinaleztat hartzen dela desgaitasuna (adibidez, buruko nahasmendu jakin batzuen diagnostikoa egiteko, ezinbestean muga funtzionalak agertu behar dira), edo gaixotasun baten edo sindrome zehatz baten ondorioztat<sup>60</sup>. Desgaitasuna, hortaz, «(...) termino orokor bat da, gaixotasun, lesio edo jaiotzetiko anomalia batek giza funtzionamenduan, maila guztietan, izan ditzakeen era askotako ondorioak islatzen dituen»<sup>61</sup>. Ildo horretan, aldi baterakoa nahiz iraunkorra izan daiteke desgaitasuna, eta jaiotzetikoa nahiz hartutakoa, herentzia, istripua, lesioa, adin aurreratua edo gaixotasuna dela eta<sup>62</sup>. Ikus daitekeen moduan, komeni da azpimarratzea espezifikotasunak daudela desgaitasun terminoaren tratamenduan, gaixotasunarekin alderatuz gero, eta, hortaz, justifikatuta dagoela bata eta bestea bereiztea. Laburbilduz, baliteke gaixotasun bat izatea desgaitasunaren kausa, baina ez du zertan hala gertatu. Beste xehetasun bat ere hartu behar da kontuan: hain zuzen, Osasunaren Mundu Erakundearen arabera gaitz edo gaixotasun puntual baten presentziak definitzen badu ere gaixotasuna, egiaz, «(...) Zigor Kodean gaixotasun iraunkorra duten pertsonen aurkako egintzak aipatzen dira diskriminatzeko ziotzat (adibidez, GIB-eramaileak, hiesa duten gaixoak, C hepatitisak dutenak, eta abar)<sup>63</sup>. Kasu horretan, hiesa gaixotasun edo are desgaitasun definizioan sartuta ere, gure kasuan ez du izango garrantzirik gorroto- edo diskriminazio-gertakariak biltzeko garaian, biak ala biak erreferentzia talde berean (VIII. taldea) jaso baitira gure kategoría-indizean.

---

<sup>60</sup> Hemen jasota: OME, «OMEren baliabideen eskuliburua», 25. or.

<sup>61</sup> GONZÁLEZ VIEJO; COHÍ RIAMBAU; SALINAS CASTRO, *Amputación de extremidad inferior y discapacidad*, 2005, 4. or.

<sup>62</sup> ALTSCHILLER, *Hate crimes*, 354. or.

<sup>63</sup> ANDREU ARNALTE, «Conceptos generales», 13. or.

Desgaitasun mental nozioari dagokionez, oso eztabaidatua izan da gizartean onartuta dagoen, eta desgaitasun mental edo psikiatrikoa medikuntzako alorrarekin lotzen dela defendatu izan da<sup>64</sup>. Horregatik, bereziki apropos eta trukagarritzat hartzen da desgaitasun psikosozial terminoa ere. Gorroto-gertakarien esparruan zentzuzkoa izan daiteke hori; izan ere, gizarte-ikuspegia ekartzen zaio diferentziazio psikikoari eta, horrenbestez, hobeto bildu dezake desgaitasunik izan ez arren arrazoi hori dela-eta diskriminazioa jasaten duten pertsonen babesa<sup>65</sup>.

<b>III. BLOKEA</b>
<b>BESTE KOLEKTIBO BATZUK</b>
<b>IX. TALDEA</b>
<b>ADINA</b>

Adinaren markatzailea, Ertzaintzaren datu-basean ez ezik, ODIHR/ESLeren<sup>66</sup> laneko definizioan ere jaso da. Legez loteslea izan gabe ere, eragin handiko definizioa da eta Espainiako Gorroto Delituekin lotutako Gertakarien Bilakaeraren gaineko Txostenean transkribatuta dator halaber<sup>67</sup>. Beraz, gorroto-delitutzat hartzen da edozein arau-hauste penal, gizakien nahiz jabetzen aurkako arau-hausteak barne, baldin eta arau-haustearen biktima, tokia edo objektua aukeratzeko arrazoia izan bada talde batekiko lotura, harremana, kidetza, babesa edo partaidetza benetako nahiz ustezkoa, arrazan, jatorri nazional nahiz etnikoan, hizkuntzan, kolorean, erlijioan, adinean, desgaitasun fisiko nahiz mentalean, sexu-orientazioan edo beste antzeko faktore erreal zein ustezko batzuetan oinarrituta<sup>68</sup>.

<sup>64</sup> OME, «OMEren baliabideen eskuliburua», 26. or.

<sup>65</sup> PALACIOS, *El modelo social de discapacidad*, 348-349. or.

<sup>66</sup> Erakunde Demokratiko eta Giza Eskubideen Bulegoak (ODIHR) –Europako Segurtasun eta Lankidetzarako Erakundearen (ESLE) mendeko instituzioa– ahalegin nabarmena egin du hainbat kontinentetako estatu batzuk (gaur egun 57) tresna eraginkor eta eragingarritzat hornitzeko. ESLE segurtasun-gaiei buruzko eskualde-mailako erakunde handiena da munduan; izan ere, Europan eta haren inguruan gatazkak prebenitzeko asmoz sortu da. Beraz, oinarrian duen ardurarekin bat, gorroto-delituei buruzko ulermen-estandar handia izateko ere lagundu du.

<sup>67</sup> BARNE ARAZOETAKO MINISTERIOA, «Informe sobre la evaluación», 62. or.

<sup>68</sup> **“A hate crime can be defined as:**

- (A) Any criminal offence, including offences against persons or property, where the victim, premises, or target of the offence are selected because of their real or perceived connection, attachment, affiliation, support, or membership of a group as defined in Part B.
- (B) A group may be based upon a characteristic common to its members, such as real or perceived race, national or ethnic origin, language, colour, religion, sex, age, mental or physical disability, sexual orientation, or other similar factor” [testuko itzulpena geuk egin dugu]. ODIHR/ESLE, *Combating hate crimes*, 12. or.



Are gehiago, ESLEk 2009. urtean argitaratutako *Hate Crime Laws. A Practical Guide* gidan, gorroto-delituei buruzko legerietan «*maiz babestutako ezaugarrien*» artean agertzen da adina, generoaren, desgaitasun fisiko nahiz mentalaren eta sexu-orientazioaren maila berean. Hain zuzen, gorroto-delituei buruzko legerietan «*eskuarki babes handiena jasotzen duten ezaugarriak*» besterik ez daude gainerik; hau da, arraza, jatorri nazionala eta etnia<sup>69</sup>. Zenbait egilek, adibidez, HERRINGek, adierazi dute adinean oinarritutako delituak ere gorrotozkotzat hartu behar direla<sup>70</sup>. Hala ere, CHACKRABORTIrengana jo dugu markatzaile horri buruzko definizio onargarri baten bila, eta hark honela definitu du «*ageism*» terminoa: «adinekoen aurkako aurreiritzizko jarrerak edo diskriminaziozko jokabideak»<sup>71</sup>.

<b>III. BLOKEA</b>
<b>BESTE KOLEKTIBO BATZUK</b>
<b>X. TALDEA</b>
<b>APOROFOBIA EDO EGOERA SOZIOEKONOMIKOA</b>

Espainiako Gorroto Delituekin lotutako Gertakarien Bilakaeraren gaineko Txostenaren arabera, aporofobia<sup>72</sup> terminoan jasotzen dira «pobre, baliabiderik gabe eta babesgabeen aurkako gorroto, nazka edo etsaitasun»eko intolerantzia-adierazpen eta -jokabideak<sup>73</sup>. Aldi berean, haren osagarria da «egoera sozioekonomikoa»ri buruzko aipamena, non barne hartzen baita prekaritatea, eskean ibiltzearen edo etxerik ez izatearen (*homelessness* edo etxegabetasuna) ondorioz diskriminazioaren xede izan daitekeen egoera ekonomiko gisa.

AGUILAR GARCÍAren arabera, aporofobia kontzeptu sortu berria denez eta Zigor Kodeak ez duenez jasotzen diskriminatzeke zioen artean, aztertu behar da arrazoi horretan oinarritutako egintzak zigor bidetik bideratu daitezkeen, gehienetan ekintza apalesgarri eta isekagarri gisa (Zigor Kodeko 173.1 art.)<sup>74</sup>.

<sup>69</sup> ODIHR/ESLE, «Hate crime laws», 40 eta 43. or.

<sup>70</sup> HERRING, «Elder abuse», 190 eta 191. or.

<sup>71</sup> CHACKRABORTI; GARLAND, *Hate crime*, 161. or. [testuko itzulpena geuk egin dugu].

<sup>72</sup> Terminoaren sorrerari buruzko azalpen labur bat jasotzeko, ikus CORTINA ORTS, *Aporofobia, el rechazo al pobre*, 17-27. or.

<sup>73</sup> BARNE ARAZOETAKO MINISTERIOA, «Informe sobre la evaluación», 63. or.

<sup>74</sup> AGUILAR GARCÍA, «Manual práctico para la investigación», 64. or.

<b>III. BLOKEA</b>
<b>BESTE KOLEKTIBO BATZUK</b>
<b>XI. TALDEA</b> <b>FAMILIA-EGOERA</b>

Zigor Kodearen 2015eko erreformak, 2008/913 EAn adierazitakoaz harago joan, eta babestutako beste kategoria batzuen artean sartzen du «familia-egoera» (Zigor Kodearen 510. art.). Doktrinan gutxitan aipatzen da alderdi hori; hala ere, DÍAZ Y GARCÍA CONLLEDOk, minimoen interpretazioa eginik, ziurtatzen du egoera hauei egiten zaiela erreferentzia: «(...) ezkongabea, ezkondua, banandua, dibortziatua, alarguna, edo izatezko egoeretan ezkontzaren antzeko familia-bizikidetzaren dutenak». Badirudi, gainera, «(...) filiazio-formak» ere sar daitezkeela hor<sup>75</sup>.

### 1.3. Gorroto- eta diskriminazio-delituen arauzko erregulazioari buruzko iritzia eta azalpena

ESLEk gorroto-delituei buruz emandako lanerako definizioa behin eta berriz agertzen da. Hala, Espainiako Gobernuaren Barne Arazoetako Ministerioak ere jaso zuen Espainiako Gorroto Delituekin lotutako Gertakarien Bilakaeraren gaineko 2016ko Txostenean<sup>76</sup>.

ESLEk gorroto-delitutzat hartzen du «*edozein arau-hauste penal (...)»*<sup>77</sup>. Nolanahi ere den, guztiz bestelako kontua da txosten honen oinarriko kategoria zabalagoa izatea eta barne hartzea gorroto-gertakari («*hate incidents*») guztiak, arau-hauste penal izan nahiz ez. Kasu honetan bai, gorroto-delituaren izendapenaren pean sartuko litzateke ekintza oro, arau-hauste penala egin den alde batera utzita. Gorroto-delitu (egiaz, gorroto-gertakari) dirudien guztiaren *prima facie* test bat egitea besterik ez da asmoa.

Gainera, garrantzitsua da hau zehaztea, estatistikako kontaketa egiteko garaian kontuan hartuko dira harremanezko edo hutsegitezko gorroto-gertakariak (edo diskriminaziozkoak) ere. Lehenengo kasuan, norbaitzuekin harremana edo kontaktua izateagatik bideratzen da ekintza pertsona batengana; egiaz, beste horiek dira jokabide nagusiaren xede, ZKn zerrendatutako zioetako bat dela-eta betiere. Bigarrean, norbait oker hauteman eta ezaugarri jakin batzuekin lotzeagatik gertatzen da.

<sup>75</sup> DÍAZ Y GARCÍA CONLLEDO, *Protección y expulsión*, 323. or.

<sup>76</sup> BARNE ARAZOETAKO MINISTERIOA, «Informe sobre la evaluación», 62. or.

<sup>77</sup> ODIHR/ESLE, «Combating hate crimes», 12. or. [testuko itzulpena geuk egin dugu].

Bestalde, txosten honetan erabilitako sailkapenean, tipo penalek esanbidez (edo isilbidez) adierazitakoaren arabera multzokatzen dira gorroto-delituak eta -gertakariak. Horiek horrela, funtsezko edo *stricto sensu* delituak eta delitu osagarriak edo funtzionalak hartzen dira<sup>78</sup>. Horrez gain, Ertzaintzak gorroto-delituen ildotik sailkatu ditu orain arte diskriminazio-delituak; aldiz, txosten honetan formalki bereizi dira bi kategoria horiek. Espainiako Zigor Kodean ez dira berariaz aipatzen, ez diskriminazio-delituak, ez eta gorroto-delituak ere, eta horrek azaltzen du doktrina-lerro desberdinak egotea kategoria horien peko artikulua sistematizatzeko. Hala ere, badirudi doktrina nagusiak horien artean bereiztera jotzen duela, diskriminazio-delituek gorroto-delituen aldean zer berezitasun duten argitzeko azalpen nabarmen desberdinak ematen badira ere. Adibide ugari daude horretarako:

- OSUNA CEREZOn arabera, «halakotzat [diskriminazio-delitutzat] hartzen dira, baldin eta tratu-berdintasunaren ondasun juridikoari eraso egin bazaio, dela zuzenean, dela zeharka»<sup>79</sup>. Are gehiago, GÜERRI FERRÁNDEZek honako hau argudiatzen du: «ez da nahikoa delituak berdintasun-printzipioari eraso egitea (diskriminazio-delitua: adibidez, langileen eskubideen aurkako delitua); gorroto-delituek pertsonaren duintasunari ere egiten diote eraso (adibidez, homosexual baten aurkako eraso bortitza, haren sexu-orientazioa dela eta)»<sup>80</sup>.
- BERNAL DEL CASTILLOk honela azaltzen du bere jarrera: «(...) diskriminazio-delituen tipifikazioan, jokabide kaltegarria subjektu jakin baten aurka doa, hura identifikatzen den taldeen aurka baino gehiago, eta halakoetan, legean berariazko preskripziorik ezean, bigarren mailan geratzen da taldearen edo kolektiboaren legitimazioa delitu horren subjektu pasibo sentitzeko. Zehazki, Espainiako Zigor Kodean doktrinak zuzenean diskriminaziozkozat sailkatzen dituen delituei buruz ari naiz: kasurako, prestazioak edo zerbitzuak diskriminazioz ukatzea, edo laneko diskriminazioa»<sup>81</sup>.
- Aldiz, DÍAZ LÓPEZek zera aipatzen du: «(...) kontzeptu-mailan, gure ordenamenduak desberdindu izan ditu gorroto-delituak (“diskriminazioa dela-eta” egindakoak) eta diskriminazio-delituak. Azken horietan, delituaren ondoretarako, diskriminatutako subjektuan aurki daiteke diskriminazioa, ez egilearen motibazioetan». Horiek horrela, eta gorroto-delituen iturburuan dagoen motibazioaren aldean, diskriminazio-delituen bidez

---

<sup>78</sup> LANDA GOROSTIZA, *Los delitos de odio*, 45. or. eta hurrengoak.

<sup>79</sup> OSUNA CERESO, «Los delitos de odio», 65. or.

<sup>80</sup> GÜERRI FERRÁNDEZ, «La especialización de la fiscalía», 5. or.

<sup>81</sup> BERNAL DEL CASTILLO, «Política criminal en España», 382. or.

zigortu nahi diren jokabideak, objektiboki diskriminatzaileak izan arren, «(...) ez dira “diskriminazioa dela-eta” eginak; izan ere, aurreiritzi bat egoteak bihurtzen du, hain zuzen ere, motibazioa motibazio»<sup>82</sup>.

Kontrako jarrerak ere jaso izan dira, hein handi batean, konta ezin ahala doktrina- eztabaidaren ardatz izan delako gorroto-delituetan aipatutako gorroto-emozioa. Hala, ahots kritikoen artean, TAPIA BALLESTEROSek honako hau adierazten du «(...) ezinbestean bat etorri behar dute gorroto-delitu delakoak eta 1995eko Zigor Kodean jasotako delitu antidiskriminatzaileak, eta desegokia da “gorroto-delitu” esamolde nahasgarri eta zehaztugabea, delitu antidiskriminatzaile terminoarekin alderatuz gero: azken horrek argi eta garbi deskribatzen du zer jokabide auzipetzen den, eta alde batera uzten du sentimenduaren eta delituzko jokabidearen arteko erlazioa»<sup>83</sup>. Are gehiago, egile horrek jasotakoaren arabera, Barne Arazoetako Ministerioak ontzat ematen du «(...) gorroto-delituak, argi eta garbi, 1995eko Zigor Kodea onartu zenetik Espainiako ordenamendu juridiko penalean jasotako delitu antidiskriminatzaileak direla»<sup>84</sup>. Hain zuzen, Espainiako Gorroto Delituekin lotutako Gertakarien Bilakaeraren gaineko 2016ko Txostenaren sarreran, honako hau azaltzen da lehenengo paragrafoan: «“gorroto-delituak” terminologiaren bidez, faktore izendatzaile eta komuna agertzen duen jokabide-kategoria bat definitzen da: guztietan motibazio-elementu bat dago, gorrotoa eta diskriminazioa»<sup>85</sup>.

Ondorioz, Espainiako doktrinan ez du hainbesteko eztabaida sortzen gorroto-delituen eta diskriminazio-delituen arteko sailkapen bereziak, jasotako azken ekarpenak aditzera eman bezala; argi eta garbi, salbuespen izatetik hurbilago dago. Proposatutako bereizketa akademikoan desberdintasunak ageri dira justifikazioan; hala ere, alderdi horrek ez du nahikoa garrantzi, ezaugarri hauetako txosten batean hori ebatzi behar izateko adina.

Azken batean, gorroto- eta diskriminazio-delituekin lotutako Zigor Kodearen artikuluen artetik, bakarra gehitu zaie Ertzaintzak lehendik ere jasotzen zituenei. Zigor Kodearen 174. artikulua da, diskriminazio mota bat dela-eta egindako torturari buruzkoa. Ildo horretan, TAMARIT SUMALLAk adierazten du «2003ko azaroaren 25eko erreformak (15/2003 LO) tortura kasu berri bat sartu zuela eta, hain zuzen, egitatearen alderdi subjektiboan, “diskriminazio motaren batean oinarritutako edozein zio”ri egiten dio erreferentzia. Zigor Zuzenbidea

---

<sup>82</sup> DÍAZ LÓPEZ, *El odio discriminatorio*, 97 eta 102-103. or.

<sup>83</sup> TAPIA BALLESTEROS, «Identificación de las víctimas», 360. or.

<sup>84</sup> TAPIA BALLESTEROS, «Identificación de las víctimas», 358. or.

<sup>85</sup> BARNE ARAZOETAKO MINISTERIOA, «Informe sobre la evaluación», 3. or.

diskriminazioaren aurkako politikaren tresna gisa erabiltzeko 1995ean hasitako joeraren barruan sartzen da hori. **Manuak ez du zehazten zein den zioa edo zer oinarritan funtsatu daitekeen diskriminazioa; horiek horrela, Zigor Kodearen 22.4, 510., 511. eta 512. artikuluetan jasotako zerrendak balio du irizpide gisa»<sup>86</sup> (azpimarra gehitu da). Laburbilduz, Zigor Kodearen 174. artikulua adiera hertsiko (edo *stricto sensu*) gorroto-delituen manuen kategorian sartu da txosten honetan.**

## 1.4. Laburpen gisa

---

Txosten hau Ertzaintzak gorroto-gertakariei buruz bildu eta emandako estatistika-iturrietatik elikatu da –eta horiek aztertu ditu–. Lehen emanaldi honetan, hala 2016. urtean nola 2017. urtean jazotako gertakariak bildu dira (urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra arte); hartara, konparazioko ebaluazio-ikuspegia erakuts daiteke, eta lagungarria izango da etorkizuneko txostenetan halako jokabideek zer joera duten errazago azaltzeko.

Txostenaren oinarrian, Euskadiko gorroto-gertakarien mapa aurkezteko funtsezkoak izan diren hiru gako daude.

1. **DELITUA versus GERTAKARIA.** Lehenik eta behin, informazioa biltzeko orduan «gertakari» kontzeptuan oinarritzearen alde egin da, ez soilik eta hertsiki «delitu» kontzeptuan. Oraindik azken hori da oinarritzko erreferentzia-puntua, baina poliziak proaktiboki eta biktimaren alde jardun behar duenez zifra beltzean murgildutako kriminaltasun-zerrendak dituen gizarte demokratiko batean, egokia da gertakari kontzeptu zabalagoa erabiltzea. Eta halaxe da, hari esker eraginkortasunez bete daitezkeelako dagozkion zereginak: berehalako arreta, laguntza, informazioa, prebentzioa, delituaren jazarpena eta biktimekiko eta komunitatearekiko konfiantza eratzea. Gainera, oinarri gisa balio du, beste instantzia batzuek (fiskaltza, epailetza) zehaztu dezaten behin betiko zer tipifikazio dagokien jokabide horiei, berme guztiak dituen prozesu batean horiek frogatutzat emanez, eta kasu honetan –ez doktrinak ez jurisprudentzia-praxi sortuberriak ez dutenez erabat zehaztu zer profil dituzten honelako jokabide kriminalek– arian-arian segurtasun juridiko handiagoa eman diezaieten fenomeno honen ezaugarriei.

2. **BABESTUTAKO KOLEKTIBOAK.** Bigarrenik, hiru sektore nagusitan oinarrituta multzokatu dira xede kolektiboak eta/edo babestutakoak. Etnikoa, sexuala eta beste talde batzuek osatutako hirugarren sektore bat. Lehenengo biek, bai soziologiaren arloan, bai mundu juridikoan eta diskriminazioaren aurkako politika publikoen alorrean, ezagut daitezkeen eta ezagunak diren logika historikoei erantzuten diete. Hirugarrenak gizartean ikusteko zailagoak diren sektoreak

---

<sup>86</sup> TAMARIT SUMALLA, «Artículo 174», 1221. or.

biltzen ditu; legegintzan, beranduago zehaztu dira gorroto-gertakariengatik erasoen xede izandako subjektu gisa. Jarraian azalduko diren datuetan, gainera, agerian geratzen da gertakari horiei buruz bildutako datuetan oldarkortasun-zifra txikiak islatzen direla; hala ere, ez da horren ondorioz atera behar haien aurkako gorroto-delitugintza ez denik hain larria edo garrantzitsua, baizik eta ezkutuagoa dela, bestelako eraso-logika batzuei erantzuten diela, eta etorkizunean horiek ikustera emateko estrategia bereziak beharko direla.

Hiru makro-taldeen zirriborro lauso horrek antolamendurako abiapuntu bat ematen du, baina, era askotako azpikategoriak identifikatuz, horiek banakatuta aurkezteko bidea ematen dio txostenari eta, beraz, *ad hoc* informazio-tresna gisa balio dezake kolektibo zehatzagoentzat eta polibiktimizazio eta interseksionalitate-kasuetarako.

Laburpen gisa, txosten honetan erabiliko den terminologia proposamena, «1.2. *Kategoriaren araberako sailkapenari buruzko jarrera eta azalpena*» atalean xeheki garatua.

Txostena **bloke edo kolektibo** izeneko hiru gai multzo orohartzailetan ardaztu da. Hizpidera ekarriko den lehen kolektiboa etnikoa da (Arrazakeriaren eta xenofobiaren xede den multzoa, adiera zabalenean), eta ondoren kolektibo sexuala. Azkenik, beste kolektibo batzuk formula generikoa erabiliko da, horren izendapenak gainerako bien aldean garrantzi gutxiago duela esan nahi gabe; izan ere, sailkapen ireki bat da, hasierako multzoetan sartu ezineko talde heterogeneoetako edozeinetarako.

Esparru orokor horien ondoren, bloke edo kolektibo bakoitzak barne hartzen ditu **erreferentzia talde** zehatzagoak, berdin-berdin bidera daitezkeenak, nolabait lotura komun bat dutelako, etnikora, sexualera edo aurreko biek in erlaziorik ez duten beste motibazio batzuetara. Hala, bada, hiru talde aipatzen dira kolektibo etnikoan: (i) arraza, etnia eta nazionalitatea; (ii) ideologia eta joera politikoa; (iii) erlijioa eta sinesmenak. Kolektibo sexuarean, lau dira erreferentziako taldeak: (iv) sexu-orientazioa; (v) sexu-identitatea; (vi) generoa; (vii) genero-identitatea. Eta beste kolektibo batzuk multzoan honako hauek bildu dira: (viii) gaixotasuna eta desgaitasuna / aniztasun funtzionala duten pertsonak; (ix) adina; (x) aporofobia edo egoera sozioekonomikoa; (xi) familia-egoera. Laburbilduz, guztira, 11 talde identifikagarri eta hautemangarri aurkeztu dira txosten honetarako.

Azkenik, eta guztietara predikatu ezin bada ere, erreferentziako taldeak ere zenbait **kategoria edo markatzaile**tan banakatu dira, eta horrela aukera sorta zabaldu da. Kategoria horiei esker, biribilago zehaztu daiteke zer jokabide gertatzen diren gorroto-gertakarietan, lehendik zeuden aurreiritzien arabera betiere; aldi berean, lotura izango dute horiek barne hartzen dituen

talde nagusiarekin ere. Hala, kolektibo etnikoaren barruan, lehen eta hirugarren erreferentzia taldeetarako markatzaileak prestatu dira. Kolektibo sexualaren barruan, laugarren eta seigarren erreferentzia taldeetarako soilik jaso dira markatzaileak. Azken kolektiborako eta, beraz, hura osatzen duten erreferentzia taldeetarako, ez da jaso markatzaile gehigarrik. Lehen taldeari, arraza, etnia eta nazionalitateari buruzkoari, dagokionez, markatzaile hauek aipatu dira: *arabiarra, asiarra, beltza, zuria, latino, beste arraza edo jatorri etnikoa, ijitoa eta nazioa edo jatorri nazionala*. Hirugarren taldean, erlijio eta sinesmenei buruzkoan, markatzaile hauek daude: *islamiarra (musulmana), kristaua, beste erlijio batzuk, ateo edo agnostikoa eta antisemitismoa*. Laugarren taldean, sexu-orientazioari dagokionez, markatzaile hauek azaleratu dira: *gaya, lesbiana, heterosexuala, transexuala, intersexuala eta LGTBI taldea edo talde mistoa*. Azkenik, seigarren taldean, generoari buruzkoan, *gizon eta emakume* markatzaileak aipatu dira.

3. **DELITU MOTAK.** Hirugarren eta azken gakoa da kriminalitate eta arau-hauste administratibo mota bat baino gehiago jasotzea aukeratu dugula txosten honetan. Datu orokorretan ez da bereizketarik egiten, baina adierazitako diferentziazioari esker profil kriminologikoak antolatu daitezke, gorroto-gertakaria hura eragin edo bultzatzen duen etiologiaren arabera zehazteko: propaganda-delituak (ZKren 510. art., mehatxuak), delitu astunduak (ZKren 22.4 art.), diskriminazio-delituak (ZKren 511., 512., 314. art.) eta abar. Gertakariak behin-behinean lege-aurreikuspen jakin batean txertagarritzat sailkatzea baliagarria da azken zifra orokor –bateratua– lortzeko, eta halaxe ere, zifra hori banakatzeko analisi-prozesuak ere lagungarriak izan daitezke era askotako mapa deskribatzaileak moldatzeko (delituak adiera hertsian vs adiera zabalean; hainbat kolektiboren aurkako gertakari eta delituak; eta beste), logika kriminologiko bereiziei dagozkienak barne. Diferentzia horiek informazioa findu eta zehazten lagundu behar dute; ez dira inoiz interpretatu edo erabili behar jokabide batzuek besteen aldean –edo talde batzuek besteen aldean– duten garrantzia gutxitu edo hutsaltzeko.